



GEREDIAGA
ELKARTEAREN
HISTORIA
ETA ISTORIOAK
50. URTEURRENEAN

**HAMABI
HARRIEN
AHOTSA**

JON IRAZABAL AGIRRE
RAQUEL CALVO LARRALDE



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

© edizio honena Gerediaga Elkartea, 2015.
© Testuak: Jon Irazabal Agirre, Raquel Calvo Larralde, 2015.
© Argazkiak: Gerediagako artxiboa eta egileenak
edo aipatutako artxiboarenak, 2015.

Lan taldea: Txelu Angoitia, Aitziber Atorrasagasti, Izaskun Ellakuriaga,
Esther Garcia, Jon Irazabal, Esther Soto, Jose Mari Uriarte.

Itzulpenak: Joseba Berriotxoa.

Diseinu eta maketazioa: Biko komunikazioa (Durango)

Inprimatzea: Gertu (Oñati)

Lege gordailua: BI-845-2015

ISBN: 978-84-943197-1-6

Gerediaga Elkartea

Astola Auzitegia 48220 Abadiño

Larrasoleta 3 48200 Durango

gerediaga@gerediaga.eus

www.gerediaga.eus

«No pretende Guerediaga crear escuelas, sufragar exposiciones, realizar instalaciones de claro signo económico, sino proporcionar a quien uno u otro ámbito puedan hacerlo, el estímulo, la información y el apoyo, a veces incluso económico, que precisen»

Miguel Ángel Astiz. 1965, La Gaceta del Norte.

Orrialde hauek erakunde berezi baten historia jasotzen dute: Gerediaga Elkartearena. Hasiera batean Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango izenarekin jaio zen. Francoren diktaduraren garaian sortu zen, eta elkartearren babespean oso masa sozial zabala eta pentsamendu eta helburu anitzeko elkartzea erabaki zuten garai hartako agintarietik, baina helburu nagusi batean elkartua, eurena zenaren defentsa eta sustapena.

Elkartea oso ekitaldi garrantzitsuak antolatu zituen, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka edo Ezpatadantzari Eguna, adibidez eta, aldi berean, askoz ere ekitaldi apalagoak ere eraman zituen aurrera, Gerediagako Salbatore jaietako gastronomía lehiaketak, besteak beste. Horrez gain, mugimendu zabalagoetan ere hartu zuen parte, ikastolen mugimenduan, eta DIBA bezalako kooperatiben sorkuntzan, besteak beste. "Elkarteen Tertzioaren" izenean zinegotzi izateko hautagaia ere aurkeztu zituen.

Lehenengo urteetan, elkartea, administrazio ofizialaren paraleloa zen administrazio lanak, izaera herrikoia zutenak, bete zituen. Elkartearren lanaren barruan kultura, hirigintza, ingurumena, hezkuntza, ekonomia... sartzen ziren. Sarritan ez da erraza Gerediagak berak bultzatutako ekimenak eta elkartek beharrezkoa zen lege estaldura eman zizkion ekimenak bereiztea. Sarritan ezinezkoa da jakitea non hasten zen bat eta non amaitzen zen besteia.

Lan hau, pertsona berberak saltsa guztiako perrexil ziren elkartearren kronika da. Ez da lan itxia. Seguru gertakari eta esaera asko baztertuta edo ahaztuta geratu direla, gaur egun gure paperen artean haien erreferentziarik ez dugulako edo hiaeik gogoratu zitzaketenak hilda daudelako.

Hala ere, hemen aurkezten den lan hau, gure historia soziala berreskuratzeko beharrezkoen den lanaren hasiera baino ez da, protagonista zein izan zen kontuan izan barik. Bost hamarkadatan, Gerediaga gure eskualdearen historiaren motore eta bidaiai izan da. Orolmen hori kontuan izan barik ezinezkoa da gaur egungo unea ulertzea, lur honen alde lan egin duten gizon eta emakume taldearen lanaren fruitua: Durangoko merinalde zaharra.

1

HARITZA ETA HAMABI HARRIAK. GEREDIAGAREN SORKUNTZA

- 7** Harrien deia
- 10** Astolako kixoteak
- 13** Haritzaren sustraiak
- 15** Enborra eta adarrak
- 18** Topaketa trenean
- 18** Aldizkariak eta multikopistak

- 29** Ezpatak eta txilinak
- 31** Aire berriak baserrian
- 34** Liburu artean
- 37** Harrobia zabaltzeko ahalegina
- 38** Kirikiñoren lagunza
- 42** Ikastola bat Durangalderako
- 44** Hizkuntza komuna
- 46** Ikerriñak Urkiolan
- 48** Eskualde kontzientzia
- 51** Muga kontua
- 54** Politikan sartuz
- 56** Pikotxaren mehatxua
- 58** Presidente bat TOP-aren aurrean

2

EZTANDA SORTZAILEA. GEREDIAGAREN LEHENENGO URTEAK

- 21** Hamarkada emankorra eta gorabeheratsua
- 24** Artistak ganbaran
- 27** Euskal antzerkiaren berpizkundea

3

TRANTSIZIOA ETA BIDE BERRIAREN DILAKETA

- 61** Presaz emandako errelebua
- 63** Astola, amestutako etxea

- 68** Profesionalizaziora saltoa
70 Pisutxoak
72 Iraganean induskatuz
75 Urkiolako Parke Naturalaren eraketa prozesua
77 Berriro hasi
80 Euskal Jaiak
82 Burua moztutako kondesa
84 Kontatu ahal izateko ikertu

4

EMAN DIEZAGUN ETORKIZUNA HARITZARI

- 87** Etaparik luzeena
90 Gerediagaren altxorra
92 Gero eta bilduma handiagoa
95 Atxarte hamaka gainera igo da
98 Omenaldiak eta efemerideak
101 Iragana defendatz
103 “Inork ez daki ezer Durangoko bombardaketari buruz”

- 105** Italiarrak izan ziren!
108 Berriro gertatu ez dadin
112 Etapa berria Merinalde Egunarentzat
114 Teilatu beraren azpian
116 Zubiaurretarren itzulera

5

XXI. MENDEARI BEGIRA

- 119** Aldaketa garaia
122 Dantzekin gora eta behera
124 Merinoaren ibilbidea
126 Zaindu, ikertu... zabaldu!
127 Irudi kontua
128 Talde lana

A

- 130** Aintzatespenak

I

HARITZA ETA HAMABI HARRIAK. GEREDIAGAREN SORKUNTZA

- 7 Harrien deia
- 10 Astolako kixoteak
- 13 Haritzaren sustraiak
- 15 Enborra eta adarrak
- 18 Topaketa trenean
- 18 Aldizkariak eta multikopistak

«Lehengo egunean esan zuen gizon zuhur batek gizon zoroak ere behar diradela mundu honetan»


Harri eta Herri, 1964
Gabriel Aresti

HARRIEN DEIA

Gerediagako zelaian¹ batak bestei begiratzen dieten hamabi harrietako bakoitzak, Durangoko Lurreko elizatean kontzentratutako indarra sinbolizatzen du, antzina horiek zirelako bertako ordezkarien eserlekuak. Ez dago jada bertan, haren babespean bilten zirenei, antzinako legeen eta ohituren arabera jardun eta erabaki behar zutela gogoratzten zien haritza. Bere lekuan monolito bat dago, eta haritza hazten zen lurra hormigoiz estalita dago. Bainaz hamabi harriei han jarraitzen dute, entzutera hurbiltzen direnei euren historia xuxurlatuz.

Florencio Amador Carrandik jasota zuen *Archivo de la Tenencia de Corregimiento de la Merindad de Durango*² lanean. 1922an Bilbon argitaratu zen liburu horrek, eta liburuaren hasieran dagoen Merinaldeari eskainitako monografiak, batez ere, Durangoko Lur zaharraren berezitasunari buruzko kontzientzia piztu zuen bertako bi semeren artean, ia aldi berean, gerra osteko urteetan. Lehenengoa Gerediaga Elkarteko sustatzaile nagusietakoa izan zen; bigarrena bere ohorezko presidente bat, ia hasieratik gaur egunera arte.

Testu hori honela hasten da: “Es el Archivo de la Tenencia de Corregimiento de la Merindad de Durango, no sólo una curiosidad desconocida, sino un interesante depósito de documentos que pueden utilizarse para construir una parte de la Historia de Vizcaya, tan típica, tan peculiar, tan propia, que ha de formarse con la suma de investigaciones minuciosas de cada una de las diferentes variedades que la integran”. ➤



Carrandiren
omenaldirako kartela,
1988.

1 Lan honetan erabilten den izendegia, argitalpenaren unean indarrean zegoena da, beste forma batzuk dituzten testuak hitzez hitz aipatzen diren uneetan izan ezik. Horrela, Gerediaga Elkartea edo Bizkaia aipatuko ditugu orokorrean, baina “Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango” aipatuko dugu elkartearen sorrerari buruzko dokumentua bezalakoa adierazten ditugunean.

2 AMADOR CARRANDI, FLORENCIO. Archivo de la Tenencia del Corregimiento de la Merindad de Durango. Catálogo de los Manuscritos, Lista de los Tenientes y Monografía de la Merindad. Publicaciones de la Junta de Cultura Vasca. Bilbao, 1922.

Bidebarrietako liburutegiaren hormen artean irakurritako testu hori Leopoldo Zugaza ikasle gaztearenan grabatuta geratu zen, hemeretzi urte baino ez zituela. Oroitzapen hori askoz gerora arte gorde zuen. Jada ezkonduita zegoela, Durangaldean kultura bultzatzu behar zuen kultur elkartearren estatutuak idazteari ekin zion arte.

Amador Carrandiren liburua, hamazazpi urte baino ez zituen beste gazte baten eskuetara ere heldu zen, Balendin Lasuenen eskuetara. Bere erreakzioa, bizikleta hartu eta Zaldibar eta Abadiño arteko bidea egitea izan zen. Garai haietan “bidea ez zen hain erraza” eta Abadiñoko Matiena auzoan Gerediagako baselizaraino zelan heldu galdu behar izan zuen. “Hunkitura geratu nintzen duela 400 edo 500 urte gure arbosoak bildu egiten zirela eta herriek euren burua gobernatzen zutela ikustean. Ezin nuen sinetsi. Urteek aurrera egin ahala beste hainbat bider itzuli nintzen, seme-alabekin eta bilobekin. Bihotzean sartuta neukan. Liluratura geratu nintzen, antzina ere gauzak egiten zirela ikustean, euren modura, demokrazian oinarritutako sistema hark antzinatik funtzionatzen zuela ikustean, harrizko eserleku sinbolikoak...”. Horrela kontatzen du Lasuenek. Foru zelaira egindako lehenengo bisita hora ixteko, Durangoko Merinaldeko antzinako batzarren ohiko egoitza zen Astolako auditorio etxea bisitatu zuen.

Bere burua Durangoko Merinaldearen izpirituarren ondorengotzat aurkezten duen Gerediaga Elkartearen historia 1961era ere luzatu daiteke. Urte hartan, denbora luzez bertan behera itxita egon ondoren, Gerediagako San Salbatore eta San Klemente baselizako teilatua jausi egin zen. Eraikina erabateko aurri egoeratik gertu zegoela ikusita, Pedro Mari Iturriagagoitia tenpluko maiordomoak, prentsara jo zuen.



Gerediagako foru gunea XX. mendearen hasieran. *Jesus Larrea*.

Miguel Angel Astiz kazetariak laguntza eske egindako deiaren berri eman zuen La Gaceta del Norte egunkarian idatzitako artikuluan. Bertan, ingurune horren balio historikoaren eta baseliza desagertzeak eragingo lukeen galera handiaren berri ematen zuen. Ohar horren ondorioz, Antonio Ibañez Freire Bizkaiko Gobernadoreak eta Valentín Eguidazu Durango-ko alkate eta Durangaldeko probintzia diputatuak parte hartzea erabaki zuten. Erreakzio horien ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiaren 'Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Vizcaya' izenekoak agindua eman zien Jesus Astigarra-gak lan egiten zuen Durangoko bulego teknikoari eta Ricardo Olaran Añibarro arkitektokari, lekua berritzatzeko. Agindu horren ondorioz, lur horren kulturaren eta iraganaren inguruan sentsibilitatea zuten zenbait pertsona elkartu ziren lehen aldiz.

Beste mehatxu bat ere bazegoen Merinaldeko batzarren beste egoitza historikoan: "Astolako auditorio etxea" izenez ezagutzen zen Zubiaurre etxearen. Gobernuak hotel moduan egokitzea gura zuen, eta plan haien aurrean, Gerediagako base-lizan parte hartu zuten pertsona batzuk eta antzeko pentsaera zuten beste batzuk antolatzen hasi ziren.


Nazioarteko politika hurbiletik jarraitzen zuen Leopoldo Zugazak³ bazekien Francoren erregimena presioak jasaten ari zela, eskua pixka bat zabaldzu zezan, eta Durangoko alde zaharreko bere etxearen idatzitako estatutu haiei berrekin zien. Aukera, Manuel Fraga Informazio eta Turismo ministerioak emandako Elkarteen Lege berriarekin heldu zitzaison. "Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango"⁴ elkartearren sortzaileen arteko topalekua Durangoko Udaletxeko bulegoak izan ziren. Haritzaren inguruan zeuden hamabi harrien irudia aukeratu zuten sinbolo moduan.



Gerediagako Batzar Nagusia, Astolan 1970.

³ Lan hau egin aurretik izandako elkarritzeta batean (Durango, 2014/12/07), Munduko Bankuak Espainiako Garapenari buruz emandako txostenean Francoren erregimenari zabaltzeko emandako aginduan, Eisenhowerrek Madrilera egindako bisitan eta Garapen Planek izenekoetan kokatu zuen Zugazak Gerediagaren sorreraren testuingurua.

⁴ Aurreko oharraren adierazitako elkarritzeta berean, Astola ahizapetik izandako lehenengo harremana Jesus Astigarraga adiskidearekin bitartez egin zela azaldu zuen Zugazak, guztiek ere Durangoko Udalean egiten zutelako lan. Jose Luis Lizundia talde horretan sartzea ahizpen bitartez egin zen, euskal gaien inguruan zuen interesa ezagutzen zutelako.



Gerediaga Elkartearen aurkezpenerako baimena Durangoko Udalean 1965.

ASTOLAKO KIXOTEAK



Gerediaga Elkartearen
lehen ikurra.

Errotak ikusi zitzuten erraldoiak zeudela zirudien lekuak. Duela berrogeita hamar urte, Francoren diktaduraren garaian, gizon eta emakume talde bat Abadiñoko Astola auzoan elkartu zen, erregimenak bultzatzen zuen homogeneotasunetik desberdina zen nortasun berezia defendatzeko. Euren burua Durangoko Merinalde zaharraren ondorengo moduan ikusten zuten⁵. Bizkaiko Jaurerriaren garaietan jada nortasun propioa izatea era-kutsi zuen Iurrealdea. Bandera horren babespean, Astolako kixoteek borrokari ekin zioten.

1964ko Elkarteen Lege berriaz baliatu ziren 'Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango' izenekoa martxan jartzeko. Leopoldo Zugazak zirriborratutako estatutuek adierazten zutenez, erakundearen helburua, eskualdearen aztarna historikoak berreskuratzea eta kultur ondarea bultzatzea zen. Baino ez zen hori bere ardura bakarra, eta helburuen artean Durangaldearen bizitza kulturala, soziala eta ekonomikoa indartzea ere bazeuden. Zugazak⁶ esaten duenez, elkarrekin izaerari buruz galdetzen zionari "Alderdi politikoa da" erantzuten zion.

Jose Luis Lizundia baziak sortzaile eta lehenengo urteetako askotan elkarteko idazkari izandakoak gogoratzen duenez, nahita hartu zen berreskuratu eta bultzatu gura zen kultura hari "euskal" izena ez jartzeko erabakia. Baino, aldi berean, "españiar" hitza ere baztertu zuten, 70eko hamarkadara arte lerro arteko tarte zabalki utziz. Markak erregimenaren iragazkiak gainditu zituen⁷. Izan ere, araudi berrian oinarrituz "Bizkaian erregistratu zen lehenengo elkartea izan zen", Lizundiak azpimarratu duenez.

5 Hori horrela, Elkarteko lehenengo presidentea, M^a Concepción Astola, Durangoko Merinaldeko azken Teniente Co-regidorearen biloba, izan zen.

6 2014ko abenduan Leopoldo Zugazarekin izandako elkarriketatik ateratako aipamena.

7 Leopoldo Zugazak esaten duenez, lehenengo estatutuak, inguru honetara heldu ziren lehenengo errotuladoreetako batekin idatzi zituen. Urdina zen, eta Iurretan erosí zuen. Dokumentu hura makinaz pasatu ondoren Gobernu Zibilera bidali zen, onartzeko. Handik denbora gutxira deitu egin zioten, zalantza bat argitzeko. Ez zutela onartuko uste izan zuen, baina xehetasun bat falta zela adierazi zioten: ez zen aipatzeko elkartea zein ondarerekin sortzen zen. Ez zegoen ondarerik. Horrela adierazi zen, eta Gerediagak erakundeen onesprena jaso zuen.

Gerediagako San Salbatore eta San Klemente baseliza sinbolikoaren zaharberritzeak eta Astolako auditorio etxearen historia defendatzeak mahai baten inguruan elkartu zituen idealista hieiek. 1965eko urtarrilaren 22an, barikuan, Astolako baselizako santu titular zen San Bizente egunean, legea argitaratu eta hilabetera, eta guardia zibilen eta bes-telakoen susmoak ez altzatzeko santutegia erabiliz, "Astolako Etxe Berriko" lehenengo solairuko eskumako etxebitztan elkartu ziren, Guadalupe Lizundiaren etxearen. Haren semeak, Jose Luis Lizundia Askondok, usteazk afaria prestatu zuen, eskualdeko kultur ekimenak bideratzeko talde bat sortu beharrari buruz berba egiteko. Etxekoandrearen haserrerako, uste baino gonbidatu gehiago etorri ziren, eta kideetako batek Matienako Taberna Zaharra jatetxera joan behar izan zuen, txuleta gehiagoren bila.

Gaueko bilera hori, 1965eko ekainaren 7ra arte egindako bilera ugarietako lehena izan zen. Egun horretan, Abadiñoko Soloa jatetxeko mahaieren inguruan bilduta, "Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango" izenekoa modu formalean eratu zuten. Laneko afaria izan zen, eta bertan estatutuak onartu eta lehenengo batzarra egin zen, emakume bat buru zela: María Concepción Astola Sertucha. Berarekin batera, Vicente Capanaga Totoricaguena eta María Arrate Salazar Sarasua idazkari eta kontu hartzaile aukeratu zituzten, hurrenez hurren. Gainerakoak, joatea ezinezkoa izan zitzzion Jesus Mari Astola Sertucha bazkide sortzailearekin batera, zuzendaritza taldeko mahaikide izan ziren. >



Gerediagako baseliza, 1974.



Gerediagako baseliza, 90eko hamarkadan.



ELKARTEAREN ELBURUAK (Anexiones 2-garren Atala)	FINES DE LA ASOCIACION (Del art. 2 de los Estatutos)
1º Gure etxaldekoen dagoenak koadatzeko lehorrak gordinetzan, ta galdu dimesun bilbotarrak.	1º La conservación de todos los vestigios arqueológicos de la antigua Merindad y homenaje a los desaparecidos, con recolección de documentos y datos.
2º Gure etxaldekoen pago ta kultura endemikoa zaintzea te agertzen.	2º La conservación y elevación del acervo cultural y espiritual de la comarca.
3º Gure etxaldekoen oia ta sal-ekintza saileko gizarteari laguntzen.	3º El favorecimiento del desarrollo industrial y comercial de la comarca.
4º Herri-lan alkartaritxoek sortzea, etxaldekoen batasun giro bat harrengo soila-zintzetsu.	4º El favorecimiento de la convivencia de unidad en intereses comunes con la creación de servicios comunes.
5º Gure etxaldekoen gizarte eguneroki-ebetzea.	5º La mejora de las condiciones sociales (espirituales, culturales y económicas) de la comarca.

Bazkide agiria, 1978.
Irazabal artxiboa.

Ehun pezetako gutxieneko kuota ezarri zuten, eta elkarrean ehun bazkide lortzen zituenean Ez Ohiko Asanblada Nagusia deitza erabaki zuten, Gobernu Batzarra aukeratzeko. Bitartean, Durangaldeko Merinalde zaharraren antolakuntzaren ereduari jarraituz, pertsona haietako bakoitzak, eskualdea osatzen zuten hamabi elizate bakotzko ordezkarri izendatu zuten, modu sinboliokoan. Lau hiribilduak, Durango, Elorrio, Ermua eta Otxandio, batzar osoak defendantuko zituen:

Abadiño

Luís Mª Alcibar Arrinda

Berriz

Maria Rosario Astola Sertucha

Etxebarriako San Agustín

Jesús María Astola Sertucha

Mallabia

Mª Arrate Salazar Sarasua

Iurreta

Vicente Capanaga Totoricaguena

Mañaria

Jesús Astigarraga Eizaguirre

Garai

Julian Berriozabalgoitia Bilbao

Zaldibar

Maria Concepción Astola Sertucha

Arrazola

Salvador Solaegui Ispizua

Axpe

José Luis Lizundia Askondo

Apatamonasterio

Leopoldo Zugaza Fernandez

Izurtza

Carmen Miranda Zubieta

Hasierako bidea ez zen bat ere erraza izan. Gauza bat, lege berriarekin Fragak elkarteei atea ireki izana zen, eta beste bat, erregimena, oposizioko edozein taldetxo lege barruan antolatzea onartzeko prest egotea. Bizkaiko Gobernari Zibil gisa aritzen zen Guillermo Candón Calatayud Guardia Zibileko brigadako jeneralak elkartea lege barruan onartzeari jarritako oztopoak berehala etorri ziren. Eta, une batuetan, adore falta ere ikusi ahal izan zen Astolako kixoteengen.



Gerediagako foru gunea 40.eko hamarkadan. B. Lasuen.

HARITZAREN SUSTRAIAK

Denbora asko igaro aurretik heldu zitzzion Gerediagari lehenengo asanblada nagusia deitzeko ordua (1966ko urtarrilaren 2an). Asmo handiko helburua izatetik urrun, sortzaileek lortu gura zuten ehun baziideen kopurua lehenengo hilabeteetan lortu zen, eta lehenengo bi urteetan kopuru hori biderkatu eta mila baziide lortu ziren.

Horrela adierazten zen 1965eko Gabonetan izandako bigarren Batzar Nagusian. Garai hartako kronikek⁸ hau esaten dute, hitzez hitz: "Guerediaga funciona. Ha nacido en el calor del pueblo y recibe el apoyo desinteresado de todos. Crece rápidamente, como algo necesario y vivo que es y se extiende por toda la Merindad... [Llegan] suscripciones diarias, desde la más escondida aldea de la Merindad o desde lejanas tierras de Ultramar [...]. Sin embargo, somos pocos. El espíritu de Guerediaga debe llegar a todos, ya que es para todos". Eta honela jarraitzen dute: "El hombre-isla es una antigua retórica. El hombre, ser social, necesita apoyo y, a su vez, lo da él".

Bere izena ematen lehenengoetakoa Balendin Lasuen izan zen. Gerediagaren sorkuntzari buruzko albistea prentsan irakurri zenean, Lasuenek ez zuen zalantzarik izan. Gutun bat idatzi zuen elkartea berrira, eta baziide gisa onartua izatea eskatu zuen. "Bilatzen ari nintzena hori zela sentitu nuen", gogoratzan du. ➤

8 Batzar Nagusiaren akta, 1965eko abendua.



Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka.



I. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako zigilua, 1965.

Sartutako kide berri haietako asko berehala jabetu ziren euren nortasun helburuak indartzeko aukeraz, Merinaldeko mugetatik haraindi oihartzuna izango zuten ekimenak martxan jartzeko aitorpen ofizialaren zain egon ez zen elkarrekin bitartez.

Lehenengo Euskal Liburu eta Disko Azoka, Zubiaurretarrei egindako omenaldia... Gerediagako haritzak, elkartearren eta antzinako askatasunen sinboloak, mota guztietako jarduerak bere babespean jasoko zituen adaburu zabala eta hostotsua zabaldu zuen laster. Sustraiak, hainbat urtez eskualdeko parte handian ondo prestatuta zegoen oinarrian zeuden lurperatuta.

Bakarka edo taldeka, bazeuden Durangaldean euskal kultura berreskuratu gura zuten eta zelanbait estalitako aktibismo sozial eta politikoa aurrera eramatzen zuten zenbait pertsona. Otxandion Bittor Kapanaga edo Eibarren Juan San Martin, adibidez, Gerediagako kide azpimarragarriak izan ziren.

Iurretan, lehenengo urte haietako beste bazkide talde aktiboa batek Gerediagara heltzeako egindako bidea bestelakoa izan zen. Justo Alberdik gogoratzan duenez, bere kasuan lurrazen prestaketa Julen Kaltzadaren esku egon zen. Derioko apaiztegiko kide eta Herri Gaztediko sortzaile hark heltzean zegoen hazirako "lurra prestatuta zeukan". 1964an Iurretako jaia batzorde moduan antolatu ahal izan ostean "pozez gainezka" zegoen talde hura izpiritua abertzale hartatik bideratu zen Gerediagara, "gure herrien beharren alde lan egiteko, bakoitzaz bere herriaren alde".

ENDORRA ETA ADARRAK

Miguel Angel Astizek, bere kroniketan "Los Gueridiaga", Gerediagatarak, esaten zien. Gerediagatarrek antolakuntza konplexua hartu zuten. Antolakuntza horrek bere anagraman agertzen zen haritzaren eta euren arbaso izpiritualia zen Merinaldearen antza zuen. Ehunka pertsona biltzen zituen administrazio paralelo hark antolakuntza bat behar zuen, bere esku hartutako lan handia aurrera eroan ahal izateko.

Gerediaga modu ofizialean eratu eta urtebetea eta erdira egindako lehenengo asanbladak, M^a Concepción Astola presidente, Leopoldo Zugaza idazkari eta Jose Luis Lizundia diruzain zituen Gobernu Bazaarra izendatu zuen. Izen horiekin batera, mahaikideek hamabi izaten jarraitu zuten, foru zelaian zegoen eserleku kopuru bera.

Lehenengo asanblada

1966ko urtarrilaren 2an Gerediagaren lehenengo asanblada nagusia egin zen. San Sabatore eta San Klemente baselizan ospatutako mezaren ondoren, bilera Matienan egin zen. Bertan, herri bakoitzeko bazkideek Gobernu Batzar berrirako euren ordezkarriak aukeratu zituzten. Honela geratu zen eratuta:

Abadiño: José Luís Lizundia Askondo

Garai: Julian Berriozabalgoitia Bilbao

Zaldibar: Balendin Lasuen

Atxondo: Jesús García Ariño

Izurtza: Rafael Ajuria Trazaola

Iurreta: Vicente Capanaga Totoricaguena⁹

Durango: M^a Concepción Astola Sertucha, M^a Rosario Astola Sertucha, M^a Arrate Salazar Sarasua, Leopoldo Zugaza Fernández, Salvador Solaegui Ispizua, Jesús Astigarraga Eizaguirre

Gerediaga eginbehar eta eskubide berberak zituzten bazkidez osatuta zegoen arren, herrien arabera zeuden antolatuta, elizate edo hiribildu jakin bateko biztanle moduan. Elkarte bat, baina, aldi berean, hamabi elkarteren federazio izateko helburua zela eta, azpiegitura berezia behar izan zen. Horrela, 1966ko asanblada hartan, Balendin Lasuen Zaldibarko ordezkarriaren proposamena onartu zen, ordezkaritzak sortzea, herri bakoitzeko mahaikide-ordezkarria buru zela eta herri horretako bazkideek lagunduta, soilik horri zegozkion jardueren alde lan egin zezaten. Ordezkaritza bakoitzak bazkide bi izan behar zituen gutxienez, eta mahaikide laguntzaile edo ordezko moduan aritzen ziren. ➤



VIII. Merinalde Eguna,
Zaldibarren 1972.
M.A. Astiz.



Gerediagako Batzar
Nagusia, Astolan 1970.

⁹ Lehenengo asanblada hartan eztabaida egon zen lurretako ordezkarriaren aukeraketa zela eta. Udalerrria Durangorekin bat eginda zegoen arren, bere ezagarrí propioak zituen. Gerediaga Elkartea berezitasun hori errespetatu zuen, eli-zaterako ordezkaritzaz errespetatuz, Merinaldeko antzinako Batzarretan egiten zen bezala. Bilera hartan lurretako kide bi egon ziren, Mikel Sopelana eta Vicente Capanaga. Azken hori elizatetik baino hiribildutik gertuago zegoela esaten zen, eta, ondorioz, lehenengoak dispentsa bat esku zuen ordezkarria aukeratzeko, eta astebeteko epean hautagai bat aurkezteko konpromisoa hartu zuen, lurretak garai hartzan zituen hogei kide inguruaren artean aukeratutakoa. Elkartearen sustatzaleek ez zuten proposamena onartu, eta Vicente Capanaga bere botoarekin izan zen aukeratua.



Durango Merinaldeko haur marrazkien txapelketa, finala Izurtzan 1966.

Ordezkaritzen jarduna oso desberdina izan zen herri batzuen eta besteetan artean. Horietako batzuk herri bakoitzeko kultura eta gizarte alorreko motore nagusiak izan ziren, euren inguruan jende eta jarduera ugari bildu zituztelako. Kasu gehienetan, gaur egun jarduera hori ez da ezagutzen edo garrantzi gutxi ematen zaio.

1967an, Jose Luis Lizundiaren proposamena ri jarraituz, ordezkariak bi barrutitan banatu ziren. Horien hauteskundeak txandakatutako urteetan egingo ziren. Horrela, Gobernu Batzarra ez zen osorik aldatu behar izango kasu bakoitzean, horrek zekarren esperientzia eta egiten ari ziren jardueren eta lanen galera saihestuz. Barrutietako batek Oiz izena hartu zuen, eta lurretako, Garaiko, Berriko, Zaldibarko, Mallabiko, Ermuko eta Durangoko hiru ordezkari jaso zituen. Anboto izeneko barrutiak Elorrioko, Atxondoko, Abadiñoko, Otxandioko, Mañariko, Izurtzako eta Durangoko beste hiru ordezkariak bildu zituen.

Ondoren, ordezkaritzak hiru sekziotan banatzea erabaki zen, bitan banatu beharrean. Anbotokoari eta Oizkoari, lau hiribilduak jasotzen zituen hirugarrena gehitu zitzaien.



I Margolari sarketa, Berrizen 1971.



Sukaldaritz txapelketa, Gerediagako baselizan 1966.

Beste egitura

Aldi berean, 1967an, "Gerediagatarrek" adarren arabera antolatzea erabaki zuten, bakoitzaren interesen arabera. Horrela, elkarrean aurrera eroandako lan ildotan sa-kontzuko ardura izango zuten sekzioak eratu ziren:

- "**Garitaonaindia**" antzerki eta zine sekzioa
- "**Iturriza**" historia sekzioa
- "**Zubiaurre**" arte sekzioa
- "**Baserrí**" nekazaritza munduko sekzioa
- "**Kirikiño**" euskara sekzioa
- "**Amezua**" folklore sekzioa
- "**Askondo**" hirigintza sekzioa

Sekzio batzuk arin hasi ziren lanean, Kirikiño eta Garitaonaindia adibidez. Amezua edo Iturriza bezalako beste batzuk, berriz, ez ziren 1973 eta 1974 arte egituratu, erakundea aspalditik ari zen arren folklorearekin edo historiarekin lotutako ekitaldiak antolatzen eta bultzatzen. Ermuko Aranberri baziak industriari eskainitako sekzioa eratzea proposatu zuen. Ideia onartu egin zen, eta haren inguruan jarduera puntualak eroan ziren aurrera, baina ez zein inoiz martxan jarri.

Gerediagak bere lekua, bere egoitza, be behar zuen, elkarrearen sorlekua eta elkarteko diruzainaren bizileku partikularra izan zena, Astola auzokoa, txiki geratzen ari zelako gero eta handiagoa zen elkarrearentzat. Merinaldearen "ondorengoen" begiak, bertatik metro gutxitara altzatzen zen "auditorio etxearen" zeuden jarrita, eta Bizkaiko Aldundiari eraikin hori konpontzeko eta egoitza moduan lagatzeko eskatu zioten. 1965eko urriaren 2an, Aldundiak eraikina konpontzea erabaki zuen, eta 1.191.269,69 pezeta bideratu zituen helburu horretara. Hainbat arrazoi zirela eta, akordioa indar barik geratu zen. Obra txiki batzuk egin ziren, baina Astolak aurri egoeran jarraitu zuen laurogeiko hamarkadara arte¹⁰.

1966an, Gerediagak behin behineko administrazio egoitza egokitzen zuten Durangon, Komentu kaleko 11 zenbakiko beheko solairuan, ezkerraldean. Bulegoak eguzzenetan eta zapatauetan¹¹ eskaintzen zien arreta baziak, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Zuzendaritza taldea be egoitza hartan biltzen zen, baina ez zen arraroa izaten bilera haiiek Juego de Bolos jatetxeko jantokian egitea.



Altuna musikariari omenaldiaren kartela, Durango 1968.



II. Euskal Herriko
Artzain Txakur
Txapelketako kartela,
Iurretan 1968.



III. Merinalde Eguna, San Agustín Etxebarrin 1967.

¹⁰ Astolako auditorio etxea berriztatzeko lanak 1982 eta 1986 artean luzatu ziren (lkusi Astolareن eta Gerediaga Elkartearen arteko harremanari buruzko 63. orrialdea)

¹¹ Bost eguneko lan astea "geroagoko asmakizuna" izan zen, baziak batzuek gogoratzen duten moduan.

TOPAKETA TRENEAN

Jakina da, jauregiko gauzak... astiro joaten direla. Gerediaga elkartearren legeztapena ere bertako kideen hilabeteetako lana eskatu zuen lan gogorra izan zen. Eratu eta urtebetera, 1966ko ekainaren 1ean, Bizkaiko Elkarteen Probintzia Erregistroak bere zerrendan sartu zuen, 96 zenbakiarekin.

Charines Astolak, bere ahizpak, elkartearren lehenengo presidenteak, eta Gerediagako Zuzendaritza Taldeko beste kide batzuek, helburu horrekin egindako lana gogoratzen du. "Lan asko egin zuten". Dena den, lan horrek, izen onak, eta Batzarreko kide batzuen harreman pertsonalek ere, ez zuten elkartea susmopetik libratzerik lortu.

Elkartearren jarduera batzuk susmagarriak ziren erregimeneko agintariantzat, eta hoiak antolatzeko trabak gero eta ugariagoak ziren. Edozein ekimen martxan jartzeko beharrezkoa zen aurretik baimen zehatzak idatziz eskatzea, eta are gehiago ekimena euskaraz bazea. Betebehar horren ondorioz, gutunez eta jakinarazpenez, eta modu eta jardunbide onen eskuliburua osatzeko moduko eskuz eta makinaz idatzitako bestelako idazkiz, bete ziren Gerediagako artxibategiak.

Baina, batzuetan, zortea ere heltzen da. Garai hartako tren azkarrenean bada ere. 1966ko urriaren 16an, Bilbo eta Madril arteko bidaia batean, TALGO trenaren tabernan bat egin zuten Manuel Fraga Iribarnek eta Iñaki Aizpuruak. Jada hilda dagoen Gerediagako bazkideak ez zuen zalantzak izan, eta garai hartan Informazio eta Turismo Ministerioa zenari erakundearen helburuak, asmoak eta nahiak, eta bere jarduerak aurrera eroateko aurkitzen ari ziren zaitasunak jakinarazi zizkion¹².

Aizpuruak, azaroaren baterako antolatzen ari zen Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren II. edizioaren inaugurazio ekitaldira gonbidatu zuen Manuel Fraga. Franco-ren gobernuko ministroa ez zen hitzordura etorri, baina 1967ko urtarilaren hasieran gonbidapenari erantzun zion, Gerediagari bide instituzionala errazteko konpromisoa adierazten zuen laguntha gutunaren bitartez: "Quiero que al menos quede bien patente mi deseo de colaborar...", esaten zuen, hitzez hitz, bere sinaduraren gainean.

ALDIZKARIAK ETA MULTIKOPISTAK

Gerediagak hasiera-hasieratik aurrera eroandako jarduera eta elkartea osatzen zuen pertsona kopuru handiaren ondorioz, beharrezkoa izan zen komunikaziorako tresna bat eratzea. Astizek, "Basarrik", Lizundiak eta beste batzuek garai hartako prentsan idatzitako oharrak ez ziren nahikoak talde barruko jarduerak, eztabaideak eta ideiak bideratzeko. Eta "Gerediagatarrek" euren inguruko gizartearekin komunikatu gura zuten.

Pauso naturala, egindako lanei eta Durangaldeko herrien egunerokotasunari buruzko informazioa emango zuen komunikabide berria martxan jartzea zen. 1966ko maiatzean *Guerediaga* aldizkaria argitaratu zen. Mantxetak, Euskal letra izenez ezagutzen zen tipografia erabiltzen zuen, eta izara formatuko orri handi baten goialdea hartzen zuen. Horrela, testu asko sartzeko aukera zegoen, orrialde larregi hartu barik.

¹² Leopoldo Zugazak adierazten duenez, elkarritzak zerikusi handiagoa izan zuen Durangoko ikastolaren sorrerarekin Gerediaga Elkartearrekin baino.

Informazio orriak 1.000 ale kaleratzen zituen, eta 18 zenbaki egin ziren, horietako batzuk bikoitzak, aldizkakotasun irregularrarekin. 1968an argitaratzeari utzi zitzaion, dirua galtzen zelako. Dena den, *Guerediaga* aldizkariak Durangoko Lurrazen ateak zabaldu zizkion herriko kazetaritzari, askoz ere bokazio zabalagoa zuen elkartea baten baliabidea zela ahaztu barik. Miguel Angel Astiz¹³ zuzendariak¹⁴ lehenengo zenbakian esaten zuen bezala, aldizkariak lantzen zituen gaien helburua “nazioartekoak”, modan zeudene-takoak, ez izatea zen, ‘unibertsalak’ baizik; zenbat eta euskaldunago, sustraituago, orduan eta unibertsalago”.

“Guerediaga” aldizkariko erredakzio kontseilua (1967)

Zuzendaria: Balendin Lasuen

Erredakzio-zuzendaria: Miguel Angel Astiz

Erredakzio-burua: José Luís Lizundia

Administratzalea: Julian Zelaieta

Euskara sekzioa: Bittor Kapanaga

Laguntzaileen sekzioa: Jesús M^a Agirre

Ikasleen bizitzako sekzioa: Juan M^a Zubia

Ume eta irakaskuntza sekzioa: Arrate Salazar

Jarduera sekzioa: Gurutze Arregi

Bere bizitza laburrean, *Guerediaga* aldizkariaren orriek elkarteari, proiektu ofizialei, Durangaldeko herrien beharrei, buruzko informazioa, historiari, idazleei, pertsonaiei, baselizei, arteari... buruzko artikuluak eskaini zituzten. Garaia, baliabideak eta “ingu-runea” kontuan izanda, bere betebeharra duintasun handiz bete zuela esan behar da.

Argitalpena ixtean barne buletina¹⁵ egin zen, beharrezkoa zelako 1972an 450 baziak zituen Gerediaga Elkartearen oinarri sozial zabala-rekin harremana izatea. Horretarako multikopista bat eroslea erabaki zen. Buletinaren lehenengo zenbakia 1969ko apirilean argitaratu zen, eta nolabaiteko erregularitasunez argitaratzen jarraitu zen 1976ko abuztuko 37. zenbakira arte.

Gerediaga Elkartearen jardueren berri eman aurretik, aldizkariak egiten zuen moduan, buletina, baziak Gerediaga barruan lantzen ziren eztabaiden berri helarazteko bidea izan zen: feminismoa, ekologia, amnistia... Euskal Herriko egunerokotasun politikoa, soziala eta ekonomikoa bertako orriean islatu zen, elkartearen bidean islatu zen bezala.

Trantsizioa heltzean, buletina argitaratzeari utzi zitzaion, eta multikopista, klitxeak, etab. Berrizko mojen komentuko gela batean geratu ziren. Handik denbora batera, Batzarrak material horri buruz galdezu zuenean, inork ez zekien non zegoen. Garai hartan multikopista benetako altxorra zen sindikatu, alderdi politiko, gizarte alorreko talde... askorentzat, eta baten bat, makina hura geldik egotea ez zela bidezkoa iruditu eta “desagertu” egin zen.



“Guerediaga” urtekariaren lehen alea, 1966.

¹³ Berak esaten zuen bezala “bilbotarra, jaiotzez Iruñekoa eta, hori dela eta, bi aldiz euskalduna” zen kazetari horrek elkartearen helburuei eta jarduerei publizitatea eman zien hasieratik, eta harreman eta konpromiso estua izan zuen elkarteariek bere bizitza osan.

¹⁴ Astiz 1967tik aurrera izan zen Guerediaga aldizkariaren zuzendaria. Ordura arte, modu formalean, M^a Concepción Astola Sertucha elkarteko presidentea izan zen zuzendaria.

¹⁵ Denbora batez, eta beste batzuen artean, Josemi Oscozek zuzendu zuen

2

EZTANDA SORTZAILEA. GEREDIAGAREN LEHENENGO URTEAK

- 21** Hamarkada emankorra eta gorabeheratsua
- 24** Artistak ganbaran
- 27** Euskal antzerkiaren berpizkundea
- 29** Ezpatak eta txilinak
- 31** Aire berriak baserrian
- 34** Liburu artean
- 37** Harrobia zabaltzeko ahalegina
- 38** Kirikiñoren laguntza
- 42** Ikastola bat Durangalderako
- 44** Hizkuntza komuna
- 46** Ikerriñak Urkiolan
- 48** Eskualde kontzientzia
- 51** Muga kontua
- 54** Politikan arituz
- 56** Pikotxaren mehatxua
- 58** Presidente bat TOP-aren aurrean



«Eta egiteko gehienak egiteke ditugu»

Hnuy Illa nyha majah yahoo, 1995
Joseba Sarrionandia

HAMARKADA EMANKORRA ETA GORABEHERATSUA


Gerediaga Elkarteaaren bizitzako lehenengo hamarkada bere mende erdiko historiako emankorrenetakoa izan zen. Hamarkada horretan batu ziren hasierako helburu guztiak eta kulturaren aurrean interesa zuten eta bizi zuten errealitatea aldatu gura zuten gero eta pertsona gehiagoren ilusioak eta energiak. Erakunde ofizialei hainbat alorretan jarduteko bultzada eman zien administrazio paraleloa izatera heldu zen elkartea. Aldi berean, elkartea bizia zen, bere jarduera aurrera eroaten zuen testuinguruari zabalik zegoena. Eta bertan aritu ziren une hartan gure herrialdearen historia mugitzen zuten indarrek.

“Gerediagatarrek”, bakoitzak bere nortasunarekin, forma eta izaera eman diote 1965eko urtarrilaren 23 hartan sortu zen elkarteari. Talde sortzaileak, elkartea bultzatutakoenean oihartzun gehien lortuko zuten jardueretako batzuen oinarriak jarri zituen, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokarenak, adibidez.

Jarduera horiek prestatzeko bileretako batzuk, ondoren Ehiza eta Arrantza Elkarteaaren egoitza izango zen Durangoko Goin kaleko etxebizitzan egin ziren. Garai hartan etxebizitza Arrate Salazarrena zen. “Zein jarduera aurrera eroan behar zen pentsatu beharra zegoen. Oso zerrenda luzea eroan nuela gogoratzen dut, baina bagenekien arrazoizko gauzak egin behar genituela”, adierazten du Leopoldo Zugazak. ➤



“Txapela ta burua” jaialdia, Otxandion 1970.



Lehenengo jardueretako bat 1965eko abendutik 1966ko urtarrilera bitartean izan zen, "Industria Zinearen 1. Aipamena" egin zenean. Jarduera horretan, lantegietako eta tailerretako produktibitateari eta lan metodoen hobekuntzari buruzko Berrizko, Durangoko, Elorrioko, Ermuko eta Otxandioko filmak eman ziren.¹ Emanaldi haietan Gerediaga aldzikaria banatzen zen bertara hurbildutakoen artean, eta horrek iskanbila bat sortu zuen agintariekin. Baten batek Gora Euzkadi Askatuta jartzen zuten pegatinak itsatsi zituen liburuxketan. Berehala joan ziren Conchita Astolarengana, garai hartan elkarteko presidente zenarengana, azalpen eske. Sortzaile batzuek "paper horia" esaten zioten horri, Zugazak adierazten duenez. Arazoa, elkarreka zeukan idazteko makina bakarrak, Zugaza berarenak, pegatina haietan agertzen ziren letra tipoak ez zituela erakutsi zenean konpondu zen.

Industria Zinema
emanaldia,
Durangaldean 1965.

Beharbada, gertakari hori, elkartean gertatzean zegoen hausturaren aurrerapena baino ez zen izan. Bazkide kopuruak gora egitearekin batera, aldaketa gertatu zen, baita ere, Gerediaga Elkarteko kide askoren interesetan. 1967an Balendin Lasuen zaldibartarrak Gerediaga elkarteko presidentzia bere gain hartu zuenean, Durangoko

hiribildutik, elkarrea sortu zen lekutik, urrunago zegoen sektorea indarra hartzen hasi zen.

Gerediaga Elkartea ia federazio moduan zegoen egituratuta, Merinalde zaharraien antzera. Eta Durangoko hiribilduko ordezkarien pisua nabarmena zen, beste arrazoi batzuen artean, talde horren ardurapean zegoelako elkartea bultzatutako ekitaldi garrantzitsuenaren eta konplexuenaren antolakuntza, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokarena².

Azokak elkarreka osoaren partaidetza eskatzen zuen, eta hasieratik, "Gerediagaren erantzukizun" moduan hartu zen,

elkartea osoarena. Leopoldo Zugazaren proposamenez jarri zen martxan. Azoka haren jarraipena bertan behera geratu zen 1936ko gerra zibilaren ondorioz. Liburuari eskainitako azoka antolatzeko hasierako ideiari diskoa gehitu zitzaison bigarren mailako elementu gisa, lehenengo ediziotik. "Donutsa" (horrela esaten zion Zugazak) azokan egotea, pare bat urte lehenagotik Arrate Irratiarekin loturak zituen Jose Luis Lizundiari



Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka, 70.eko hamarkadaren hasieran.
Foto: Fotosol.

1 Industria sektorearekin egindako lana, elkartea, Balendin Lasuenek bultzatuta, Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberarekin izandako lankidetza indartsuan gauzatu zen batez ere, Durangoko Merinaldeko mundu ekonomikori buruzko inesta egiteko eta datuak jasotzeko. Informazio horri esker, 1973an, Ganberak, erreferente moduan Durangaldea zuen liburukia argitaratu zuen "Estudios socio económicos" bildumaren barruan. Lan horrek, gure eskualdeari buruzko edozein ikerlan oinarritzko erreferentziala lana izaten jarraitzen du.

2 Euskal Liburu eta Disko azoka 1965eko urriaren 30etik azaroaren 1era egin zen lehen aldiz Durangoko Andra Mariko arkipeetan. Azoka horrek garrantzi eta eragin handia ditu Gerediagarentzat eta, ondorioz, bere historia modu independentean landuko da Durangoko Azokaren 50. urteurrena dela eta argitaratuko den liburuan.

zor zaio. Musika ere bultzatu beharreko kultur baliabidea zela ikusten zuen Lizundiak.

Editoreen, idazleen eta, orokorrean, euskal hizkuntzaren aurrean interesa zuten pertsonen topaleku bilakatu zen azokak, Gerediagan gero eta nabarmenagoa zen izaera abertzalea sortzen lagundu zuen. Izaera, bazkide berrietak askok, argitaletxeen erakusmhaietan zegoena ikusita izan zuten lehenengo harremana euskarazko kulturarekin. Garai hartako testuinguruarekin bat etorriz, era-kundearren barruan tentsioak sortzen hasi ziren.

Haustura puntu auzia 60ko hamarkadaren amaieran gertatu zen. Gerediagako zuzendaritzak, kontuak garbi ez aurkeztea, Zugazaren laguntzarekin Azoka eurena bakarrik izango balitz moduan kontrolatu gura izatea, leporatu zien Durangoko ordezkarie, eta azalpenak eskatu zizkien. 1970eko azaroan Gerediagara bidalitako gurtunean, Durangoko ordezkaritzako hiru mahaikideek euren kargua uteko erabakia adierazi zuten. Euren erabakia "arrazoi ideologikoak direla eta sorkuntzaren helburuak gero eta baztertuago" egotean oinarritu zuten³. Gatazka, Zuzendaritza Taldeak kide horiek kanporatzeko hartutako erabakiarekin amaitu zen. Erabaki hori gauzatzearen arduraduna Jose Luis Alberdi izan zen, 1972an presidente aukeratutakoa, Balendin Lasuenek kargua utzi ostean. Elkartearen une larrienetakoa izan zen. Hamar urte geroago erabaki hori atzera bota zen, ibilbide luzea egin ostean.

Alberdiren buruzagaitza 70eko hamarkadaren amaierara arte luzatu zen. Epaiketak, gatazkak Gobernadore zibilekin... Berak aitortzen duenez, "sosial politiko baxua" izateagatik aukeratu zuten presidente, baina historiaren gorabehererek laster aldatu zioten izaera hori. Gerediagarentzat, trantsizio demokratikoa, barne krisira eraman zuen garai gorabeheratsua izan zen.



Gerediagako Batzar Nagusia, Astolan 1970.



VI. Durangoko Euskal Liburua eta Disko Azoka, 1971.



VI. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako kartela, 1971.

³ 1970/11/02an Gerediagara bidalitako eta Gurutzi Arregik, Jon Berganzak eta Basilio Aranak sinatutako oharra.

ARTISTAK GANBARAN



Zubiaurre margolariei omenaldiko katalogoa, Garain 1966.

Gerediagak modernotasunaren goi mailan sartu zuen Durangaldea... hitzez hitz, gainera. Sortu eta urtebetera, Gerediagak Euskal Herriko arte ederren alorreko goi maila bildu zuen Garain.

Bertan dago, XIX. mendearren amaierako euskal pinturaren erreferente izan ziren Zubiaurre anaien familia etxea. Abiapuntu horrekin, 1966ko uztailaren azken astean elkar-teek omenaldi bat antolatu zien artistei. Ekitaldiko harribitxi nagusia, 'Landabarrenan', Zubiaurretarren etxearen, antolatutako erakusketa bikaina izan zen. Erakusketa horrek, Ramonen eta Valentinen sorkuntza lanak ezagutzeko aukera eman zuen, egin zituzten leku berean.

Baina ekitaldia baliagarria izan zen, baita ere, garai hartan Euskal Herrian lan egiten zuen lau artista taldeak biltzeko: Gipuzkoako 'Gaur', Bizkaiko 'Emen', Arabako 'Orain' eta azkenean ibilbiderik egitea lortu ez zuen Nafarroako 'Danok'. Lau taldeek arte alorreko "Euskal Eskolaren" aldeko aldarrikapena kaleratu zuten.

"Lehenengo egunean inaugurazio ofiziala egin zen, erakundeetako ordezkariekin, baina hurrengo egunean, Santa Ana egunean, artisten omenaldia egin zen. Bazka-



Pilar de Zubiaurre bere nebei egindako omenaldian, Garain 1966.




Margo erakusketa, Durangon 1965.

riaren ostean asanblada erabakigarria antolatu zen, eta bertan hego Euskal Herriko lau probintzietako ordezkariak egon ziren", gogoratu du Lizundiak. Bi-lera harten ere bera aritu zen idazkari gisa eta berak hartu zituen hartu beharreko oharra. Oteiza, Basterretxea, Ibarrola, Larrea... 1966ko uztailaren 26an, euskal arteen izen handietako asko Garaiko liburutegiko ganbaran elkartu ziren, denontzako leku askorik ez zegoen arren, eta euren aldarrikapena prestatu zuten.

Agiri hura *Guerediaga*⁴ aldizkariaren hurrengo zenbakian argitaratu zen, Emen taldeak sinatuta, eta sorkuntzarako askatasuna aldarrikatzen zuen, Nazio Batuen Gutuna eta Bakea Lurrean Entzikliko erreferentzia moduan hartuz, Francoren erregimenaren muga estuak zabalduz. Honela zioen, hitzez hitz:

"Sin el ejercicio de estos derechos y libertades en las particularidades de nuestra expresión humanista, atentariamos a la esencia misma de la noción cultural del arte, y no podríamos exigir con dignidad el puesto que nos corresponde en la sociedad. El grupo EMEN, desde un entendimiento profundo de la solidaridad, pide que se le ayude para adquirir una fuerza capaz de anular las presiones que puedan ejercerse a la libertad de expresión, en obras que versan sobre los derechos del hombre". ➤



Margo erakusketaren kartela, 1965.



Margo erakusketaren gunea, Durangoko Montevideo etorbidean 1965.

⁴ Guereidiaga. 4-5 zk. 1966ko abuztua-iraila. Aldarrikapena maila handiagoan zabaldu zen lurrealdeko prentsaren bitartezi, handik denbora gutxira Bilbon egindako talde-erakusketaren ostean.



Ezkurdiko
udal kultur gelen
inaugurazioa,
Durangon 1971.
Fotosol.

Urtebete lehenago, Gerediaga artearen munduan nabarmendu zen, Durangon eta Elorriion erakusketa berritzailea antolatu baitzuen, Bilboko Grises galeriarekin lankideztan. Bi astetan⁵, sei mila pertsona hurbildu ziren garai hartako abangoardiako artelanak ikustera. Bertan lanak zituzten artisten artean hauek zeuden: Manolo Millares, Juan Vilacasas, José Guinovart, Alfonso Fraile, Joan Brotat, Eduardo Sanz, Carmen Laffón, Federico de Echevarria, Enrique Ortiz Alonso, Alfonso Gómez, Dionisio Blanco eta Juan José Tharrats. Inaugurazio ekitaldian, Dionisio Pérezek eta José Luis Merinok azken arte mugimenduei buruzko hitzaldia eman zuten.

1967an, Bilboko Mikeldi galeriarekin batera, Durangoko arteari buruzko beste erakusketa bat antolatu zen.

Esperientzia horien ostean, 1967ko maiatzaren 28an Etxebarriako San Agustinen egindako Mendekosteko Batzar Nagusian, Leopoldo Zugazak hitzaldi eta erakusketa aretoa egitea proposatu zuen, horrelako ekimenak bideratu ahal izateko. Gerediagako presidenteak eta Durangoko mahaikideek osatutako batzordea izendatu zen, ekimen hori bultatzeko. Durangoko Udalak, proposamena bereganatu, eta Erakusketa Udal Aretoak eraiki zituen Ezkurdiko plaza berrian.

Arte Ederrak ondo babestuta zeudela ikusita, Gerediagak alor horretan aurrera zera man lana murriztu egin zuen. Lehen hamarkadako gainerako urteetan artearen mundua gazteen artean sustatzeari ekin zion, hainbat lehiaketa antolatuz, umeentzako marrazki, modelatu edo argazki lehiaketak⁶.

5 Erakusketa Durangoko Montevideo Etorbideko Ionja batean ikusi ahal izan zen abuztuaren 6tik 21era, eta Elorriion abuztuaren 28tik irailaren 5era.

6 1966an, Zaldibarren, Durangon eta Mendiolan (Abadiño) aurre-lehiaketak egin ostean, marrazketa lehiaketaren finala Izurtzan egin zen, eta txapelduna Elorrioko Fidel Javier Azcoaga izan zen. 1967an, plastilina eta buztina erabiliz modelatu artistiko lehiaketa antolatu zen Durangon. Argazkiek be izan zuten euren lekuoa Gerediagan, denbora labur batetik iban basen ere. 1967an lehenengo argazki eta diapositiba lehiaketa antolatu zen Apata monasterioan, eta bertako lanak Durangon, Elorriion, Otxandion, Ermuan eta Zaldibarren erakutsi ziren gero. Arlo horretan, herrietako hainbat ordezkaritzaratu animatu eta argazki lehiaketak antolatzen jarritu zuten, Izurtzan 1971n, Berrizten 1972an eta 1974an eta lurretan 1973an, besteak beste.

A. Cossío idazle perutarrak Garain artisten arteko topalekua antolatzeko proposamena egin zuen, eta Zubiaurrearen omenaldia ideia horren bozgorailu bilakatu zen, baina ideia ez zen gauzatu. "Garain artisten egoitza moduko bat eta museo bat egiteko asmoa zegoen, Cuencako arte garaikide zentroaren antzekoa", adierazi zuen Leopoldo Zugazak. Hala ere, erakundeek eta margolarien familiak ez zuten adostasunik lortu. Beharbada, Gaiako margolariek hainbeste aldiz irudikatu zituzten sagarrak ez zeuden oraindik behar bezala helduta.

"EUSKAL ANTZERKIAREN BERPIZKUNDEA"

Garai hartako prentsak "euskal antzerkiaren berpizkundeaz"⁷ eta "garai berri baten" inaugurazioaz hitz egin zuen. 1967ko uztailaren 16tik 18ra, hiru egunez, Gerediaga Elkartea antolatutako lehenengo antzerki jardunaldiak jaso zituen Zaldibarrek. Topaketa hartako protagonista nagusia Ricard Salvat izan zen, Bartzelonako arte dramatiko eskolako zuzendarria eta nazioartean ospe handikoa. Baino, horrez gain, beste 76 pertsona joan ziren, Hegoaldeko 32 talde eta iparraldeko beste 16 ordezkatuz.

Garai harten Gerediagako idazkaria zen José Luis Lizundiak adierazten duenez, ekimena Iñaki Beobide baziideaarena izan zen: "Zeozer egin gura zuen Gipuzkoan, baina ezin zuen, eta Balendin Lasuen presidentek Zaldibarren egiteko proposatu zion". Urte batzuk geroago udalerri horretako alkate izango zen Lasuenek bazeukan ordurako eszenatokietarako joera⁸ eta herriko abesbatzarekin zenbait antzezpen eta emanaldi antolatzen zituen.

Saio haietan Euskal Herriko antzerkiaren iraganari buruz hitz egin zen, baina, beste ezer baino gehiago, antzerkiaren egoera landu eta aztertu zen. Joera berriak eta beste leku batzuetan egiten ari ziren lanak ere aztertu ziren. "De las reuniones de Zaldibar se va a derivar una nueva era en el teatro vasco. Porque en estas jornadas se ha actuado con sinceridad, haciendo un profundo examen de la labor realizada hasta el presente por los grupos teatrales y, sobre todo, se ha sabido escuchar a los maestros", idatzi zuen Javier de Aranburuk⁹.

Beobidez eta Salvat beraz gain, jardunaldi horietan euskal antzerkiaren munduarekin erlazionatutako hizlariak hartu zuten parte, Pierre Larzabalek edo Antonio María Labayenek, adibidez, eta baita Estatuko beste leku batzuetatik etorritakoek ere, José Forcada edo I.M. Barriola. Jorge Oteiza bertan egongo zela ere iragarri zen, "Hacia un teatro vasco" izeneko hitzaldia emateko, baina azkenean ez zen etorri. Garai harten, baliabide ekonomikorik ez zegoenez, horren lekua militantziak betetzen zuen. Bertaratutako askok Gerediagako baziideen eta haien senideen etxeetan hartu zuten ostatu. ➤



Geroa antzerki-taldeak eskaintako eskolen kartela.



Geroaren antzeziana, 1978.

⁷ Amillaitzen artikula Zeruko Argian (67/07/30).

⁸ Balendin Lasuen izan zen, jatorriz zaldibartarra zen Bittor Garitaonandia antzerki egilea omentzeko bustoa jartzearren bultzatzalea, Zaldua plazan bere herriko elizaren ondoan; eta 1945ean Zaldibarko Abesbatza Sozietatea sortu zuen. Abesbatzak antzerki taldea be bazuen. Talde horrek Garitaonandiaren 'Iziartxo'eta 'Aiton eta billoba' lanen hainbat emanaldi eskaini zituen Abadiñon, Berrizen, Durangon, Markinan, Zaldibarren eta bestelako herrietan 1966 eta 1975 urte tartean. Balendin Lasuenek abesbatza, 40 urtez zuzendu zuen, 60 ahotsetako abesbatza mistora helduz. Iturriak: JAKIN. 167 zk. 2008ko uztaila-abuztua. *Elkarriketa Balendin Lasueni*. Miel A. Elustondo; eta lan hau egiteko Balendin Lasuenekin izandako elkarrizketa.

⁹ La Voz de España egunkarian argitaratutako artikula.



Antzerki ikastaroa, Zaldibarren 1967.

Egun horietan, *Gerediaga* aldizkariaren 14. zenbakia, elkarteko Garitaonandia Zine eta Antzerki sekzioaren barruan Geroa antzerki taldea sortu zela iragarri zuen. Bere lehenengo emanaldia Durangoko San Antonio jaietan eman zuen, Antonio Buero Vallejoren *Las palabras en la Arena* eta Bertold Brechten *El soplón* antzezlak eskainiz. Geroak, Gerediaga barruan hasieran eta bere kontura ondoren, arrakastaz betetako ibilbidea egin zuen antzerkiaren munduan.

Taldearen sortzaletakoa, eta Gerediagako lehenengo zuzendaritzat taldeko kide izan zen Jesús Mari Agirrek esaten du taldea elkartean sartu


aurretik sortu zela. "Arazoa lege barruan egotea eta baimenak lortzea zen, eta Gerediagari eskatu zitzaion laguntza", zehaztu du. "Irakurritako antzerkiarekin, kamerako antzerkiarekin... hasi ginen. Taldearen burua Paco Obregón zen, eta Roberto Andueza, Villanueva... ere bertan zeuden", gogoratzen du.



Geroaren "Kaixo Agirre" antzezlaren kartela.

Edozelan be, Gerediagak talde horri eskaini zion aterkia, hamar urte baino gehiagoz egon zen zabalik, 1978an taldea profesional egin zen arte. Horretarako hamar urte falta ziren Geroak Ionescoren 'El cuadro' antzezlana Durangoko eszenatokira eroan zuenean. 1970eko udaberrian taldea Tagoreren 'El cartero del rey' antzezlarenak ausartu zen, eta emanaldiak eskaini zituen Durangon, Eibarren eta Ermuan; eta urtebeteko geroago Bertolt Brechten 'La excepción y la regla' antzeztu zuen, Durangoko San Fausto jaietan.

70eko hamarkadan antzerki jardunaldien bi edizio berri antolatu ziren. 1974koa Durangon¹⁰ izan zen, desagertuta dagoen Astarloa zine aretoan. "Nahiko talde majoak ekarri zituzten. Sevillako Esperpento taldea gogoratzan dut¹¹, eta bertan Alfonso Guerra aritzen zen! Politikari baino lehen titiritero izan baitzen... eta ez zuen txarto egiten", dio garai hartan Gerediagako presidente zen Jose Ignacio Alberdik. "Geroa nahiko modu autonomoan antolatzen zen; baina ekitaldi horrek, zikloa zenez, beste estaldura bat, baimenak... behar zituen", adierazten du Alberdik. Aurreikusitako programak ez zuen Gobernadorearen on ikusirik, baina Amorrorturen, Durangoko alkatearen, laguntza zuen, eta horrek konpromisoko konponbidea ekarri zuen. "Astarloa zine aretoaren sotoan ekitaldi areto bat zegoen, geroago supermerkatu bilakatu zena"... Gainera, zikloak harrera beroa jaso zuen prentsan, gauza berri eta fresko moduan aurkeztuz. Azkanean, baimen ofiziala zuten antzezlak eszenatoki nagusian eskaini ziren. Gainerakoak, sotoan.



"Aitora ta Billoba" antzezlaren kartela, 1966.

¹⁰ 1975ean, ekainaren 21ean eta 22an, bigarren antzerki zikloa egin zen, oraingo honetan lurretan, hori be Geroak antolatua. Taldeak Gerediaga Elkarrearekin lankidetzan egindako azken emanaldia izan zen, bakarkako ibilbidea hasi aurretik.

¹¹ 'Esperpento' izan zen Sevillako Unibertsitatean 60ko hamarkadaren amaieran sortutako abangoardiako antzerki taldearen izena. Denbora batez zuzendaria Alfonso Guerra, urte batzuk geroago Espainiako gobernuaren presidente izango zena, izan zen.

EZPATAK ETA TXILINAK

Folklorea da Durangoko luraren nortasun zeinuetako bat. Duen berezitasuna dela eta, azpimarragarria da Dantza Dantza izeneko, Gerediaga Elkartea sortu zenean bere unerik hoberenean ez zegoen bederatziz¹² dantzaz osatutako multzoa. Inguruko dantza taldeetako askok ez zituzten dantzen multzoa osatzen duten bederatziz dantzak, eta, aditu ustez, koreografia asko akatsez beteta zeuden.

Iurretako dantzariek, horietako asko Gerediagako baskideak, beharrezko ikusten zuten tradizioa berreskuratzea. Mendiola, Iurreta-ko mahaikideak, elkartearren lagunza eskatu zuen, ‘ezpatadantzari’ omenaldia eskaintze-ko. “Guk antolatu eta ospatu gura genuen. Durangaldeko taldeen ordezkariekin harremanak izan genituen. Gerediagaren aldetik, Lizundiak eman zigun lagunza, eta horrela egin zen”, kontatu du Mikel Sopelanak.

Lehenengo “Ezpatadantzari eguna” 1967an ospatu zen Iurretan. “Ez zuen talde batek osorik dantzatu, bakoitzak zati bat dantzatu zuen. Orain guztiek batera egiten dute dantza, ezpatadantzira osoa batera”, gogoratzen du Sopelanak. Dantza gazte haien, dagoeneko erretiratuta zeuden dantza nagusiak ere omendu zituzten: “hasieran ‘helduek’ eta gero ‘zaharrak’ izena zuen taldeari, eta berrogeita hamar eta hirurogei urtetik gorako jende guztiari. Oso polita izan zen. Bigarren urtean Berrizten egin zen, eta eurek bejende nagusia atera zuten”, azpimarratu du. Detaille hura ohitura bilakatuz joan zen, eta ‘Ezpatadantzari Egunaren’ hurrengo edizioetan errepikatu egin zen, Garain 1969an, Abadiñon 1970ean, Zaldibarren, etab.

1967ko lehenengo ospakizun hark 2.500 pezetako diru-laguntza jaso zuen Durangoko Udaletik. Udal horrek, uste gabeko “galerak” be bere gain hartu behar izan zituen. Lehenengo Dantza Eguna ospatu berria zen eta Iurretako dantza taldeak bere tresnak berreskuratu gura izan zituen: “Iurretako dantza taldearen tresnak lapurtu genituen Durangoko Udaletxetik: bandera, makilak, ezpatak, txilinak...”, aitortzen du gaur egun Justo Alberdik. ▶



I. Ezpatadantzari Eguna, Iurretan 1967.



I. Ezpatadantzari
Eguneko kartela, 1967.

¹² Agintariena, zortzinangoa, ezpata joku txikia, banangoa, binangoa, ezpata joku nagusia, launangoa, makil dantza eta txotxongiloa.

Elementu haien Durangoko Udaletxeen gordetzen ziren. "Dantzari nagusiek dantza taldea utzi zutenean jai batzordea be utzi zuten. Gu batzorde berri moduan sartu ginen, eta elementu haien eskatu genituen..." esaten digu Alberdik. Durangoko Udalaren aldetik ez zuten erantzun garbirik jasotzen eta, unea heldu zenean, ez zuten birritan pentsatu. "Zaindariarengana joan eta horrela esan genion: aizu, tresnen bila gatoz. Bai, bai, ganbaran egongo dira. Atea zabalik dago", erantzun zigun. Hiru ginen, atzeko eskaileretatik igo genuen... eta ordutik tresnak lurretan dagoz gordeta".



Txanbolitarrei
oroigarria, Berriz 1974.

Horrelako anekdotak alde batera utzita, Gerediaga Elkarteak, 'aurreskuaren' erakustaldi hutsa izatera mugatuta zegoen eta 'atzeskua' eta dantzaren gainerako elementuak baztertuta zituen 'soka dantza' berreskuratzeko lana bultzatu zuen. Dantza horren inguruko ikerketarako lehiaketa deitu zen. "1967. urtean lurretako 'Erregelak' berreskuratu genituen, ia azkeneko hamar urteetan lurretan dantzatzen zen hiribilduko aurreskuaren desberdina zen elizateko aurreskuarekin", esan du Sopelanak. "Nagusiengandik ikasi genuen, eta gainerako gazteei erakutsi genion", azpimarratu du.

1974an, Berrizen ospatutako VIII. Ezpatadantzari eguna zela eta, omenaldia eskaini zitzaison "Txanbolin" ezizenez ezagutzen zen Amezua familiari. Belaunaldiz belaunaldi Durangaldeko parte handiko danbolin jotzaileak izan ziren, eta euren ohoretan monolito bat jarri zen Ereñan, familiaren jaiotetxearen ondoan. Eskualdeko folkloreari eskainitako Gerediagako sezkioak familia horren izena zeraman.

Amezua sezkioa melodiak berreskuratzen eta banderak eta Durangaldeko folkloreko beste alderdi batzuk berreskuratzeko aholkularitza ematen aritu zen. Lan horrek ez zuen beti merezi izandako oihartzunik jaso, baina kasu askotan bere fruituak gaur egunera be heldu dira.



IV. Ezpatadantzari Eguna, Abadiñon 1970.

AIRE DERRIAK BASERRIAN

XIX. mendeak aurrera egin arte, Durangaldea gehien bat nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen zen eskualdea zen, merkataritzara bideratutako hiribildu señorialekin. Lurra-rekin eta baserriarekin zegoen harremana folkloreatan, tradizioetan eta jaietan islatzen zen. Hori dela eta, hasieratik, Gerediaga Elkartea lehen sektoreko jardueretarako leku gorde zuen, 'Baserri' izeneko sekzioaren bitartez.

Sekzioaren helburua ez zen izan baserriko bizimodu denboran izotzta uztea. Alderantzik, baserritarren bizimodu eta ekoizpenerako gaitasunak hobetzea bilatzen zuen. Bere lan nagusia, beste erakunde eta eragile batzuekin batera 1967an Abadiñoko San Blas feria berriztatzea izan zen, nekazaritza azoka baserriari buruzko merkatu orokor bilakatu, nekazaritza eta nekazaritzarako makineria gehituz.

Urte hartan inauguratu zen Zelaietako probalekua, idi -probetarako gunea, eta prentsak, txapeletan apainketak jartzeko lehiaketaren, aurresku lehiaketaren... berri jaso zuen, eta "Merinaldeko nekazaritza aurrerakoienentzako sarien" berri be eman zuen. Sari horiek urte luzez jarraitu zuten. "Lo que le falta al agro es eso, mentalidad de grupo, nivel, sentido industrial, modernización, que es lo que se quiere que cada año sea la feria de San Blas", adierazi zion José Luis Lizundiak, Gerediagako bozeroale moduan, La Gaceta del Norte egunkariari.

Oñatin egiten zen artzaintxakurren nazioarteko lehiaketan oinarritura¹³, Euskal Herriko lurrarde guztietako txakurrak elkarren artean lehiatzeko aukera emango zuen txapelketa bat antolatzeko interesa ikusi zen. Azpimarratzeko da horrelako lehiaketek beste esanahi bat be bazutela ➤

¹³ Zuzendaritza taldea utzi ostean urteetan jarduera horrekin erlazionatuta jarraitu zuen José Ignacio Alberdi gogoratzen duenez, Gerediaga, Oñatin nazioarteko lehiaketa antolatzuen batzorde iraunkorean sartu zen. "Ez dakit nork izan zuen eragina, baina gauza folklorikoa izatetik, landa guneetako ekonomiaren azken aztarna zen Artzain Eguneko txakurrak zein politik ziren esatetik, zeozer garrantzitsu gisa hartzera pasatu zen. Txakurra ezinbesteko laguntzailea da artidekin aritzeko, baina azpimarratzaren dena, txakurra lan horretarako heztekero artzainak duen trebezia da. Lehiaketa antolatzeko orduan, arietako bat artzain guztiekin bazkaria, askaria edo afaria antolatzea zen. Helburua guztiek mahai baten inguruaren elkartzea zen, euren artean komunikazioa zegoen, eta lan egiteko teknikak trukatzen zituzten, sortzen ziren harremanen ondorioz. Artzainaren bizimoduari proiekzioa bilatu gura zitzaien".



San Blas, Abadiñon 1967.



Baserri lehiaketa San Fauston, Durangon 1972. Fotosol.



VI. Euskal Herriko
Artzain Txakur
Txapelketa,
Elorrión 1972.

garai hartan, Euskal Herriko lurralte guztiak elkartzen zituzten ekitaldiak zirelako. Juan Antonio Azkorbebeitia ‘Azkorbek’, sekzio horretan denbora gehiagoz aritu den baziideetako batek, lehiaketari izen hori jartzearen ausardia gogoratzen du. “Euskal Herriko Txapelketa izena jarri zitzaiion, eta inolako lotsa barik aurrera horrekin [pentsatu zen]”, azpimarratzen du. Azkorbek esaten duenez, partaideak bat zetozen izen haren atzean zegoen sentimenduarekin. “Horrela esan zidan Urepeleko batek: ‘ni ez naiz Iparraldekoa, Euskal Herriko herri batekoa naiz’”.

Gaur egun ere oraindik antolatzen den Euskal Herriko artzain txakurren Txapelketak Mañarian eman zituen lehenengo pau soak 1967an. Durangaldeko herriean egiten zen proba urtero, Araian (Araba) egin zen 1977an izan ezik. Bertan Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Iparraldeko txapeldunek eta azpi-txapeldunek eta aurreko edizioko txapeldunak hartzen zuten parte.

Esanguratsua da aipatutako jarduera biek, San Blas feriak eta artzain txakurren txapelketak, indarrean jarraitu izana Gerediaga Elkartearren ia bizi osoan. Bere lau “habietako” bi izan ziren, Azkorbek esaten duen moduan. Baseria sekzioak, bere simbolismoarekin eta beste ekimen batzuk baino modu isilagoan, elkartearren bizitzan jarraitu zuen, lehen hamarkadako euforia pasatu ostean.



VI. Euskal Herriko
Artzain Txakur
Txapelketaren kartela,
1972.



II. Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa, Iurretan 1968.



"Zuhaitz, zuhaizka eta sastraka basati"-en lehen erakusketa – lehiaketa, Garain 1968.

1968ko eta 1970eko uztailean Garain ospatu ziren baso lehiaketak¹⁴ be nekazaritza munduarekin eta mundu horren ezagutzak hedatzeko interesarekin egon ziren erlazionatuta. Lehiaketa horiek egiteko ideia Miguel Villar O. de Urbinak, Bizkaiko Baso Barrutiko 1. sekioko ingeniarriak izan zuen. Lehiaketok jende guztirengana hurbildu zitzuten inguruko lantaretzaren izen zientifikoak eta izen herrikoiak, euskarazkoak eta gaztelaniazkoak.

Euskal Herriko nekazaritzan aire freskoa sartzea bultzatzeko helburuarekin, Gerediaga Elkartea Eskualdeko Nekazaritza Kooperatibaren eraketa bultzatu zuen. Ondoren, kooperatiba hori D.I.B.A. [Durango Inguruko Baserritarren Alkartea] bilakatu zen.

Elkartea ideia berriak ekartzeko lanean murgildu zen, bere argitalpenen bidez edo hitzaldien eta ibilaldien antolakuntzaren bitartez. Horrela, *Guerediaga aldizkariak*, silo bat eraikitzeari buruzko informazio praktikoak eman zituen eta, horrez gain, elkartetik autobusak antolatu ziren, Orozkoko "belar artifizialeko lantegia" ezagutzen 1966an edo "Señorio de Sarrià" 1969an. 1973an, San Trokaz jaien inguruan, nekazaritza munduko arazoak lantzen zitzuten jardunaldiak antolatu ziren Abadiñon. Luís Gorroño Bilbao berriztarra izan zen Gerediaga Elkarteko baserri munduaren "akuilaria", Berrizten eta Abadiñon egiten ziren idi-proba entzutetsuei zegokienez.



"Zuhaitz, zuhaizka eta sastraka basati"-en lehen erakusketa – lehiaketen kartela, 1968.

¹⁴ Merinaldeko herrietako jaietan be hainbat nekazaritza azoka egin zen, eskualdeko nekazaritza bulegoaren laguntzarekin. Horrez gain, lehen sektorearekin erlazionatutako beste ekitaldi ludiko batzuk be antolatu ziren. 1966an, adibidez, Euskal Herriko motosegalarien txapelketa antolatu zen Mallabian.

LIBURU ARTEAN

"Gerediagatarrek" liburuekin zuten harreman estua nabarmena da elkartea sortu zen une beretik, eta modu posible guztiak hartzen ditu, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren bitartez liburuen salmenta sustatzetik, elkarteko kide askok irakurtzeko eta liburuak biltzeko zuten zaletasuneraino¹⁵. Baina, argitaletxeek egindako produktu izatetik haraindi, paper gainean inprimatuta dagoen tintak, liburuak, hizkuntza, historia, tradizioak, ideiak... hau da, kultura finkatzeko eta transmititzeko gaitasuna du. Idazketa eta irakurketa bultzatzea ezinbesteko jarduerak ziren hori guztia berreskuratu eta bultzatu gura zuen elkarrearentzat¹⁶.



San Blas jaietan euskal musika saltzen, Abadiñon 1970.

1969an, Otxandioko ordezkaritzaren idazki batean, Gerediaga Elkarteak "herriaren unibertsitate" izendatu zituen liburutegiak, eta udalerrri hartako Udalari, liburutegi bat zabaltzeko beharrezkoak ziren gestioak egiteko edo, gutxienez, liburuak maileguan emateko zerbitzua martxan jartzeko eskaria egin zion.

Herri guztiak euren liburutegia izatea izan zen Gerediaga Elkartearen borroka nagusietakoa. Balentin Lasuenen, Elkarteko ohorezko lehenengo presidentearen, "helburu nagusietako bat" ere izan zen. Bere jaioterrian, Zaldibarren, lehenengo liburutegia zabaltzea lortu zuen

1972an, Liburutegien Zentro Koordinatzailearekin eta Carlos González de Echegaray erakunde horretako zuzendariarekin egindako gestio lan ugarien ondoren. Otxandiok ere lortu zuen bere tele-kluba, mailegu zerbitzuarekin, hiru urte lehenago egindako eskariaren ondorioz.

Lan horretan sakonduz, 1972ko urtarrilaren 27an Euskal Herriko liburuzainen bilera -solasaldia antolatu zen Durangoko Udaletxean. Bizkaiko eta Arabako Aldundietako, Nafarroako, Bilboko eta Deustuko Unibertsitateetako eta Antso Jakituna Erakundeko eta Euskaltzaindiako liburuzainek hartu zuten parte. Bilera hartan erakundeen arteko koordinazioari, informazio bibliografikoari... buruzko hainbat gai landu ziren.

¹⁵ Historian zehar Gerediagako kide izan diren emakumeen eta gizonen liburutegi pribatuak azterketa berezia mereziko lukete. Lan honen helburua ez den arren, aipagarria da "Gerediagatarrek" liburueta hurbiltzeko orduan duten konpromisoa eta gozotasuna. Milaka eta milaka liburu biltzen dira elkarteko kideen apaletan.

¹⁶ 1966an Gerediagak Abadiñon antolatu zuen idazlan lehiaketa izan zen, ziurrenez, urte gehien irau zuen presidenteak, Anton Mari Aldekoa-Otalorak, elkartearrekin izan zuen lehenengo harremana. "19 urte inguru izango nituen. Gerediagako jaietako domeka arratsaldea zen. Nik idazlan bat idatzi nuen euskara, eta saria mila pezeta eta JM Barandiaranen lan osoak izan ziren. Urte batzuk geroago Patxi Zubikaraik gogoratu zidan bera izan zela saria eman zidana", adierazi du. Urte horretan bertan, Mañariak euskara idatzitako umorezko ipuin lehiaketa jaso zuen, Kirikiñori egindako omenaldi ekitaldien barruan.

Topaketa hartan, liburuzainek, Durangon zentratutako eta Gerediagari agindutako idazkaritza koordinatzalea sortzeko nahia adierazi zuten. Hurrengo urtean Euskal Herriko liburuzainen bigarren bilera egin zen Astolan, eta bertan Gerediagak babestutako urteroko topaketa egitea erabaki zen, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokarekin bat etorri. Hala ere, 1973an Leopoldo Zugazak elkartea utzi zuenean, bilera horiek ere amaitu egin ziren, bera izan baitzen halen sustatzaile nagusia.

Gerediaga oso gertu egon zen beti argitaletxeen mundutik, eta elkarteak berak ere ahalegin bat baino gehiago egin zuen arlo horretan. Joan Mari Torrealda Jakineko zuzendari emerituaren iritziz, euskal letron munduari egindako ekarpen nagusia, urtero liburu azokara ekartzen ziren lan berrien katalogoak izan zen. "Informazio falta handia zegoen horren inguruan, filologoek ezagutzen zituzten argitalpen horiek, baina kaleko jendeak ez", azpimarratzen du. "Ez zegoen oraindik euskal bibliografiarik", esaten du amaitzeko. Lehenengo urteetan Gurutzi Arregik egiten zituen katalogoak Azokaren edizio bakoitzaren amaieran. Katalogoak euskaraz argitaratzen zenaren erregistro eguneratu gisa geratzen ziren.

Baina, Euskal Herriko txoko bakoitzean argitaratzen zenari buruzko oharrak hartzear gain, elkarteak 'Abestiak' lana be argitaratu zuen 1967an, lurretako baziideek bultzatu zuten eta euskal abestiez osatuta zegoen liburutxoa. "Durangon bazegoen tradizio herrikoia, tabernetan abestu egiten zen, eta euskaraz abesten zen batez ere, debekatu zuten arte", laburbiltzen du Justo Alberdik. Koadernoak errepertorio hura berreskurtu gura izan zuen. Liburu Azokako katalogoaz gain, liburutxo hori izan zen Gerediaga Elkartearren lehenengo argitalpena.

Urte horretan bertan, Leopoldo Zugazak eta Jesús Astigarragak, Beitiaren eta Echezarreta "Noticias históricas de la Villa de Tabira de Durango" lanaren berrargitalpena bultzatu zuten. Urte luzez ezer argitaratu barik igaro ostean, elkarteak arlo horri ekin zion berriro laurogeiko hamarkadan. ➤



I. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako katalogoa, 1965.



Liburutegi zaharra,
Durangon 1964. *Fotosol*.



Durangoko heretikoen erreketaren oroimeneko folklore muntaia,
Durangon 1967. *Foto Merino.*



Sorgin dantza Ezkurdin, Durangon 1967.

Historia liburuetatik haraindi

Gerediaga Elkartearen sorrerako dokumentuan adierazten zenez, helburu nagusietakoa Durangoko Merinaldearen iragan historikoa berreskuratzea zen eta, lehen argitalpen haitetik haraindi, elkarrekin helburu hori zuten hainbat jarduketa gauzatu zituen lehenengo urteetan.

Laburpen moduan, 1967an, Durangoko herejeak erretzearen 525. urteurrena, Julio Urquijo Ybarra jakintsu eta baskologoaren jaiotzaren mendeurrenaren zela eta 1971n deitu zen ikerketa historiko sarirako deialdia¹⁷, edo 1973ko Aste Santuan Durangon egin zen erlijio-arte erakusketa aipatu daitezke.

Urteurrenen historikoak beti agertu dira Gerediagaren jarduera programan. 1972ko abuztuaren 26an, Real Sociedad Vascongada de Amigos del País erakundearekin batera, Antso IV.ak, Nafarroako erregeak, Iurreta Amatza baseliza Cogollako Donemiliagari eman izanaren IX. mendeurrenaren gogoratu zen. 1976an, uztailaren 21eko foru abolizioaren mendeurrenaren zela eta, hainbat hitzaldi ziklo antolatu ziren Durangaldean. Urte horretan bertan¹⁸, ekainaren 17an egindako Mendekosteko Batzar Nagusiaren barruan, Gregorio Monreal Zlak "Merinaldeko Batzar Nagusiak Foru garaian" gaiari buruz hitz egin zuen.

Horrez gain, 1972an, Gerediagak Merinaldeko Museo bat eratzea gura izan zuen, eskualdearen historia berreskuratzeko eta ezagutarazteko. Helburu horrekin, bazkideek eta Gerediaga Elkartearekin erlazionatutako beste pertsona batzuek utzitako objektuak bildu zituen. Astolako etxea berriztatzen lanetan behin eta berriro izandako atzerapenek eta objektu horien zainketaren baldintza eskasak zirela eta, bilduma eta museoa bertan behera geratu ziren.

17 Hiru urte geroago, 1974an, lehiaketara aurkeztutako gaia Durangaldeko baselizak izan zen. Irabazlea, Ángel M^a Unzueta Iurreta Amatzako San Martin baselizari buruz aurkeztutako lana izan zen.

18 1976.

HARROBIA ZABALTEKO AHALEGINA

Gazteria ez zen ahaztuta geratu Gerediaga Elkartaren lanean. Elkarteak, prestatuta eta eskualdearen garapenaren aurrean arduratuta egongo litzatekeen harrobia sortzeko aukera ikusi zuen gazteen artean, eta 1967an unibertsitateko ikasleen lehenengo topaketak antolatu zituen Mallabiko Gerea auzoan. Ez zegoen ikasle larregi, baina horietako hainbatek deialdiarekin bat egin zuten.

Gereako parroki etxearen babesean bildutako gazteek "ikasleen artean ia erabateko gizarte kontzientzia falta zegoela" aitoru zuten, alde batetik, eta "ikasteak dituen gastu handiei aurre egiteko" lagunza falta zegoela, bestetik. Lehenengo arazoari aurre egiteko, herri bakoitzean gizarteari eta kulturari buruzko zenbait hitzaldi eskaintza erabaki zen. Kulturarekin eta hizkuntzarekin erlazionatutako arazoak aztertu ziren, euskararen ikasketa eta alfabetatzea sustatzeko beharrean sakonduz, itzultzaiile eskola bat, ikastola sarea... "Beharrezko da benetako kultura herrikoia sortzea, baina ez mugatua, beste kultura batzuetara zabaldua baizik", esan zuten.

Gerediagan ikasleen idazkaritza sortu zen, eta horren bitartez bideratu ziren sektore horren arazo bereziak. Lehenengo pausoetan hainbat inuesta egin ziren Durangaldeko hezkuntza panoramaren irudia lortzeko, lehen hezkuntzatik hasita, eta baita inmigrazioak eskualdean betetzen zuen lekuaren eta euskararen egoerari buruzko irudia lortzeko be.

Hurrengo urteko apirilean jardunaldiak Elorrioko San Agustingo eskolan egin ziren. Oraingo honetan inguruko lanbide heziketako ikasleei be zabaldu zitzazkien, eta, beste gai batzuen artean, euskal hizkuntzaren egoera eta "Merinaldearen orainaldia eta etorkizun sozio-ekonomikoa" landu ziren, beste gai batzuen artean. Urte horretan bertan, gazteei zuzendutako hainbat hitzaldi antolatu ziren, Jesús Peñak "Gazteriaren prestakuntza eta orientazioa, horiek familian eta gizartean dituzten eraginak" gaiari buruz emandakoa, besteak beste. 1969an, ikasleek "gazteriaren aste" bat antolatu zuten Durangon, baina ez zuten lortu bilatzen zuten arrakasta.

Azken ekitaldi horren ondoren ikasleen idazkaritza ahuldu egin zen. Ez zen erreleburik egon gazteen artean, eta horietako batzuk Gerediaga Elkarteko gizarte taldearen barruan sartu ziren.



San Agustin Etxebarriako abade etxea.



I."Gazteen Astea"-ren kartela, Durango 1969.

KIRIKIÑOREN LAGUNTZA

"60ko hamarkadan aldats behera gindoazen euskarari zegokionez. Familia batzuek eutsi zioten, ondoren ikusi ahal izan denez, baina... ez zen euskararik entzuten. Base-rikoak ginen gehienon artean ere, kalera jaistean, gaztelania erabiltzeko joera nagusitzen zen. Industriak ukitutako auzoetan, Arriandin, adibidez, gaztelaniak presentzia handia zuen, auzokide berriak Munitibartik edo antzoko herrietatik etorriak izan arren".



Kirikiño, Indalecio Ojanguren eta Carlos Elguezua, Mañarin 1929.
I. Ojanguren.

Kristina Mardaras bertsolariak deskribatzen duen testuingurua ez zen Durangoaldera mugatzen, eta euskal hizkuntzaren defentsaren aldeko erreakzioa eragin zuen. Horren isla nagusietakoa zenbait jardueraren eta mugimenduren sorkunza edo berrindartzea izan zen, alfabetizazio kanpainak eta ikastolen sorrera, adibidez. Gerediaga Elkartea buru belarri inplikatu zen zeregin horretan, gai horren inguruan eskualdean aurrera eroaten ziren ekimenak babestuz eta bultzatzuz.

Durango karlista zen tradizioz, eta euskalaren erabilera nahiko urria zen aurreko garaietan. Hori dela eta, lan hori zailagoa ikusten zen. Andra Mariko arkupeetan horrela azpimarratu zuen beste bertsolari batek, Abel Muniategik, 1966ko urriaren 30ean, Bizkaiko Bertsolari txapelketaren finalean¹⁹:

*Euskera zaharrak baserrietan
hartu zun bere gorputza
ta jakitunen aldetik berriz
amai gabeko zaputza.*

*Caur estudioz ari geranok
goruntz nahi diogu bultza
baina galdua dago Durangon
gure aitonen hizkunta
herri honentzat premizkoa da
Kirikiñoren laguntza.*

¹⁹ Gerediaga Elkartek txapelketaren antolakuntzan lagundu zuen. Irabazlea Jon Lopategi izan zen.




Kirikiñoren oroimen-eskultura Mañarian.

Bigarren Euskal Liburu eta Disko Azokako standen artean elkartutako jendeari kantatutako bertso horiek²⁰, Mañariko Evaristo Bustinza poeta gogoratzen zuten. Gerediaga elkartek omenaldia eskainia zion haren jaiotzaren mendeurrenean, ia astebete lehenago. Ospakizun hartan bertsolariek hartu zuten parte, antzerki emanaldiak eskaini ziren eta Euskaltzaindiak be bilera egin zuen. Euskaraz idatzitako ipuin barregarriren lehiaketa be antolatu zen, eta irabazlea Juan A. Letamendia Angiozarko apaiza izan zen, 'D. Joxe Proletario' lanarekin.

Gerediaga Elkartek 'Kirikiño' izena jarri zion euskaran defentsara eta sustapenera bilduraturako sekzioari, baina, horrez gain, gaur egun herriko plazan ikus daitekeen eta mendeurrenra ospatu ostean jarri zen eskultura bat²¹ egiteko agindua eman zion Vicente Larreali. Monumentu hori Larrearen lehenengo lan abstraktuetakoa da. Ordura arte, bere lan artistikoa santugile moduan egindakoa zen, familiaren enpresan. Pieza epeka ordaindu zen, herritarren harpidetza bitarte, eta Hipólito eta Peru Gerediaga harginek –azken hori Izurtzakoa– jarri zuten hilerriko atearen ondoan. Julio Capanaga ➤

20 AMURIZA, XABIER. (2006): *Bizkaiko Bertsogintza IV. XX Mendea*. Bizkaiko Bertsozale Elkartea.

21 2002ko Ezpatadantzari Egunean, Gerediaga Elkartek Mañariko Udalerri laga zion eskultura hori. Lagapena, elkarteko presidente zen Anton Mari Aldekoa-Otalorak, emale gisa, Javier Arteaga Mahariko alkateak hartzalea gisa eta Vicente Larreal eta José Luis Lizundiak lekuko gisa sinatu zuten.



Kirikiño sailaren akta,
 1972. K. Mardaras.

ikastaroak antolatu ziren lurretan (Oromion, Arriandin eta lurretan), Durangon, Abadiñon (Matienan, Zelaietan eta Mendiolan), Zaldibarren, Otxandion eta Elorrian, leku bakoitzeko ordezkaritzek kudeatutakoak. "Metodoa balioztatzeko modua izan zen. Alfabetizatu ziren lehenengoak gero irakasle bilakatu ziren: Maribe, Basabe, Arano... horiek guztiak", adierazten du Aromak.

Kristina Mardaras bazkideak lehenengo garai haietako zailtasunak aztertu ditu. "Arazoren bat bazegoen baimena eskatzen genuen, Gerediaga Elkartearen izenean. Elkarteak kultur jarduerak antolatzen zituen batez ere, eta elizak eta politikoek begi onez ikusten zuten. Horrela, haren izena erabiltzen genuen. Gero, euskarazko klaseak emateko, Euskaltzaindiaren estaldura geneukan", zehaztu du Mardarasek. "Euskarazko klaseak antolatzeko, 1966tik 1968ra bitartean, lurretan lau alfabetizazio talde jarri genituen martxan. Horiek legeztatzeko arazoak izan genituen, ez ginelako filologian lizentziatuak eta baimenak ez genituelako inondik ateratzen. Klaseak gure artean prestatzen genituen. Esaten genuen: 'Hurrengo klasean hau eman behar dugu'... eta, jakina, bakoitzak ahal zuen moduan egiten zuen, bakoitzak geure prestakuntza genuelako", adierazten du.

Bere aldetik, Marisa Barrenak (bera ere bazkide eta irakaslea) uste du jarduera horren arrakasta, mugimendu haren parte zirenen ahaleginean oinarritu zela. "Denbora gu-

buru zuen Udal frankistak ez zuen plazan jartzeko baimenik eman, eta lurzoru publikoa hartzeagatik 500 pezeta ordaintza exijitu zuen.

Euskara, haren defentsa, hedapena, era-bileraren bultzada eta ikasketa izan dira hasiera-hasieratik Gerediaga Elkarteak landutako eremu nagusietakoa. Hala ere, bat ere muga argiak izan ez dituen arloa be izan da, ez da erraza jakitea non amaitzen den Gerediaga eta non hasten diren euskal hizkuntza biziberritzeko ahaleginen lankidetzan aritzen ziren beste era-kunde edo mugimendu batzuk.

1967ko gobernu aktek Euskaltzaindia-rekin lortutako akordioa islatzen dute. Akordio horren bitartez, eskualdeko elkartek bere Iurrarde barruko alfabetizazio kanpainaren erantzukizuna bere gain hartu zuen, Juan Antonio Aromaren koordinazioean. Lan horri hasiera emateko lehenengo irakaslek prestatu behar izan ziren. Prestakuntzaz Xabier Amuriza arduratu zen, alfabetizazio

txian jende asko euskalduntza lortu genuen, gabezia profesionalak eta metodolo-gikoak energiarekin eta motibazioarekin konpentsatu genituen. Klaseen ostean ikas-leekin berbetan geratzen ginen edo poteoan joaten ginen, asteburuetan mendira, oporretan...”.

Alfabetatze eta euskalduntze jarduerek, Durangaldeko udalerriean eta auzoetan lan horretan aritu ziren emakume eta gizon asko bildu zituzten. Lehenengo euskarazko klaseak Jesuiten babespean egin ziren, ehun urte baino gehiago dituen Kurutziagako ikastetxean.

Justo Alberdi, 1970etik Gerediagako Kirikiño sekcioaren arduradun izan zena, Iurreta-ko klaseen bultatzalea be izan zen, eta Durangaldekoak koordinatu zituen; Rosario Madinabeitiak eta Alejandro Mendizabalek ematen zituzten Elorriokoak 1972an; Bittor Kapanaga arduratzen zen 1970ean Otxandion funtzionatzen zuten bi taldeetako bat-ez... eta abar luzea.

Pertsona horien lana ez zen euskaren irakaskuntzara mugatu. Hitzaldiak eta presta-kuntza ikastaroak be egituratu ziren. Garai hartako kulturaren biziberritzean oinarritzko elementu moduan planteatu ziren hitzaldi haietako hizlariak, euskara bateratuaren beharrari, dialektologiari eta beste gai batzuei buruz egin zuten berba. Eta hori guztia, elkartearren eguneroko lana euskarak izan behar barik. “Ez zen beti elkartea euskalduna izan, euskal kultura bultatzen zuen eta lan handia egiten zuen elkartea bai, hizkuntza baten alde egiteko ez delako beharrezkoa hizkuntza hori ezagutzea”, aitorzen du Mardarasek.

1976an, alfabetatze egitura hori guztia AEK koordinakundean [Alfabetatze Euskal-duntze Koordinakundea] sartu zen, eta prozesu independentearekin jarraitu zuen, Justo Alberdiren koordinazioean.



Euskaldunen
alfabetatzearen aldeko
kartela, 1974. J.A. Aroma
eta M. Barrena.



II. Ikastola Umeen Egunaren egitaraua, Elorrión 1971.



Kurutziaga ikastolako
lehen ikasleak,
Durangon 1968.
Ikastola Kurutziaga.

Eskualdeko lehenengo ikastolek, 1967-68 ikasturtean klaseak ematen hasi ziren, Elorriokoak, Iurretaoak eta Durangokoak, maila gutxi batzuk baino ezin zituzten eman, eta, gainera, bertako ikasketek ez zuten aitorpen ofizialik oraindik.

Gregorio Arrienek, Bizkaiko ikastolei buruzko azterketa historikoan²², Gerediagako sortzaileetako batek Durangoko ikastolaren bultzadan izan zuen garrantzia azpimarratzen du: "1967-68 ikasturtean sortu zen, baina prestakuntza lanak aurreko ikasturtetik ari ziren egiten. Erakundearen benetako sustatzaileak Leopoldo Zugaza²³ eta Jesús Atxa izan ziren. Garai hartako hezkuntza mugimenduaz jabetuta eta beste ikastetxe eta leku batzuetan jada sortuta zeuden erakundeen eraginei adi, hamar bat guraso konbentzitu zituzten ikastola baten sorkuntza bultzza zezaten, euren seme-alabei euskaraz irakatsiz". Ikastetxea Kurutziaga kaleko lokal batean jarri zen martxan,

IKASTOLA BAT DURANGALDERAKO

Euskal hizkuntza berreskuratzea eta kaleetara itzultzea bultzatzen ari ziren gizon eta emakume haiek, "saltza guztietako perrexilak", Jon Irazabalek bere kroniketan esaten duen moduan, eskualdeko lehenengo ikastolak jarri zituzten martxan. Kirikiño sekzioaren bitartez, Gerediagak Durangoko, Otxandioko, Iurretao eta Abadiñoko ikastetxeak sortzeko prozesuan hartu zuen parte, haien koordinatuz eta bultzatuz, bai irakaskuntza kooperatiba moduan egitura-tea aukeratu zutenak eta baita katekesi forma hartu zutenak be. "Gipuzkoan ikastolek Elizaren babesia zuten arren, Bizkaian ez zen horrelakorik gertatzen", gogoratzen du Jose Luis Lizundiak. Hori dela eta, Gerediagak bete zuen leku hori Durangaldean.

"Guretzat Gerediagaren izena estaldura zen gauza askotarako, eta ikastolak sortzeko orduan babesleku fisikoa ere izan zen. Ez izena zeukalako bakarrik, baita eskualde mailako koordinazio bilera asko Astolan egiten zirelako be. Hor Justo Alberdi idazkari moduan egon zen urte luzez", adierazten du Kristina Mardarasek.

²² ARRIEN, Gregorio. Bizkaiko ikastolak, 1957-1972. Beren hasiera eta antolaketa. Revista internacional de estudios vascos. Eusko Ikaskuntza, 1994.

²³ Leopoldo Zugazaren kasuan, Kurutziaga ikastolaren sorkuntzan emanako aurrerapausoak Gerediagatik irteeta era-gin zuen: "ikastolak ukita nazionalista argia zuen, eta ez genituen gauzak nahastu gura, kontuz ibili gura genuen. Beraz, nire kargua utzi nuen", kontatzen du, Jesus Mari Arrubarenarekin, Durangoko Azokaren 50 urteko historia jasotzen duen liburuaren egileetako batekin izandako elkarritzetan.

eta hortik hartu zuen izena. Hogeい bat umek hasi zituzten klaseak bertan, Miren Artxe andereñoaren babespean.


Denbora gutxira lokal txiki geratu zen, eta familiek Bruno Mauricio Zabala kaleko txalet bat eskuratu zuten. Bertan, zaharberritze lan batzuk egin ostean, beste hainbat ikasgela egokitzen ziren. "1971ra arte Kurutziaga kaleko etxearen egon zen, eta urte horretan bertan joan zen aipatutako txalettera. Hasieran, umeek hiru eta bost urte artean zituzten; sei urte egin zituztenean, jada ezagunak diren arazoak hasi ziren eskolaritate kartillekin. Gauza bera gertatzen zen gainerako erakunde guztietan be", adierazten du Arrieneak.

Denbora gutxira, eskualdeko ikastolen sustatzaileek "mailaz igotzeko" eta derrigorrezko hezkuntza guztia hartuko zuen ikastetxea lortzeko beharra ikusi zuten. Justo Alberdi gogoratzentzuan duenez, zeuden ikastolak ikastola bakarrean kontzentratzea planteatu zen Gerediaga Elkartetik, ikasle guztiak, ordukoak eta etorkizunekoak, leku berean elkartzen. "Durangalderako ikastola bat zen", azpimarratzen du. Helburua ikasleak eta baliabideak elkartzea zen, derrigorrezko hezkuntza osoa eskaini ahal izateko.

Hortik sortu zen Kurutziaga Ikastola, gaur egun ezagutzen den moduan. Horretarako beharrezko zen eraikin berria egitea. Higiezina, behar zen kapitala biltzeko kooperatiba bat eratuz eta bono sistema erabiliz eraiki ahal izan zen.

Gerediagak, bere aldetik aurrera jarraitu zuen ikastorduetatik kanpoko irakaskuntzari laguntza emateko lanarekin²⁴. 1970ean, Axpe ospatu zen "Ikastolen Umeen Eguna" ospakizuna jarri zuen martxan. Hurrengo edizioak Elorriion (1971) eta Abadiñon (1973) egin ziren. Gainera, 1967an eta 1971n, pedagogia eta soziologia ebolutiboari buruzko hitzaldiak antolatu zituen gurasoentzat Durangon, Elorriion, Matienan, Iurretan, Ermuan, Berrizzen eta Zaldibarren.

Euskararen defentsaren eta hedapeneren aldeko esfortzuek, hizkuntzaren erabilierari eta ikasketari emandako bultzadak, pertsona asko Gerediaga Elkartearen sartzea eta parte hartza eragin zuen. José Luis Lizundiak gogoratzentzuan duenez, elkarteko presidenteetako bat izan zena, José Ignacio Alberdi, adibidez, ikastolen mugimenduan izandako partaidetzaren bitartez sartu zen elkartean. "Gerediagatarrek" euskal hizkuntzaren inguruaren egindako lanaren indarrak hasierako lehenengo hamarkada hori guztia eta 80ko hamarkadako lehen urteetako transizio garaiaren parte bat hartu zuen.



I. "Durangaldeko Ikastola Umeen Eguna", Axpe - Atxondon 1970.




Goiuria haurtzaindegiko lehen ikasleak, Iurretan. K. Mardaras.

²⁴ Umeen arloari dagokionez, lehenengo hamarkadan Gerediagak hainbat jardueren antolakuntzan hartu zuen parte, beti euskarra edo euskal tradizioak ardatz nagusi izanda. Horrela, 1971n, Goiuran egin zen Merinaldeko Umeen Jaialdia, Durangoko 1966ko Gabonetako umeentzako parkea, 1975eko abenduan antolatu zen umeentzako lehenengo aisia-kultura astea, bultzatzituen, eta 1970ean Otxandion Olentzero berreskuratzeko-sartzeko ekitaldiaren buru izan zen eta udalekuaren antolakuntzan hartu zuen parte.



A. Luis Villasante euskaltzainburua eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko idazkariordea, erakunde ofizialki aitorту eta osteko lehen agerraldia prentsan, Abadiñon 1976.



Euskal Idazleen lehen jardunaldiak garrantzi handia izan zuen, Ermuan 1968.

Durangaldean eta herrialdeko gainerako lekuetan euskararen ezagutza eta erabilera indartzea eta zabaltzea bilatzen zen bitartean, Euskaltzaindia hizkuntzaren estandarizazioan ari zen lanean, ikasketetarako hizkuntza kultu moduan errazago erabili ahal izateko. 1968an, Juan San Martin Euskaltzaindiako kidea leku bat bilatzen ari zen urte hartako kongresua prestatzeko bilera egiteko. Gipuzkoa Salbuespen Egoeran zegoen. Abagune haiek kontuan izanda, Gerediagara jo zuen.

Balandin Lasuen buru zen elkartea bi aukera eskaini zitzakeen, Lizundiak gogoratzentzutako duenez: "Aukerak Izurtza edo Ermua ziren, aitorruta genuen gure jarduera eremura mugatu behar ginen". Gipuzkoatik gertuen zegoena aukeratu zuten, eta 1968ko ekainaren 28tik 30era bertan elkartu ziren, Euskal Idazleen Lehen Jardunaldietan²⁵. "Sarritan, indarrean zegoen legetasunaren mugan ibiltzen ginen, eta bagenekien Ermuko agin-

25 Saioak Koldo Mitxelenak zabaldu zituen "Euskararen batasunari" buruzko hitzaldiarekin. Beste partaide batzuk, bat-eratzeko hori gauzatzeko metodoari buruz berba egin zuen Fernandez de Mendizabal; euskaraz idazten zuten idazleen arteko koordinazioari eta harremanei buruz jardun zen Juan San Martin edo euskararen batasunari buruz, baita ere, berba egin zuen Juan Antonio Letamendia, izan ziren.

HIZKUNTZA KOMUNA

Gerediaga Elkarteak eta Euskaltzaindiak harreman estua izan dute lehenengoa sortu zenetik. Durangaldeko elkartean euskaltzale asko zegoen, horietako batzuk akademiarekin erlazio zuena zutenak, eta horrek lehenengo fruituak eman zituen denbora asko igaro baino lehen. José Luis Lizundiaren, urte luzez Euskaltzaindiako eta Gerediaga Elkarteko idazkari izan zenaren, kasua, erakunde biak lotzen zituzten harremanen adibide da.

tariak, adibidez, zain genituela. Hitzaldian erbes-terutako jendea zegoen, Aresti edo Laffite...”, azpimarratzen du Lizundiak.

Gerediagak bere gain hartu zituen topaketa hura antolatzeak zituen arriskuak. Bilera hura oinarrizkoia izan zen euskararen bateratze prozesurako. Ez dirudi oker dabilenik Joan Mari Torrealdai²⁶ era-baki horri buruzko gogoeta egitean: “Gerediaga Elkartea izan zen deialdia egin zuena, baina uste dut Juan San Martin eta inguruko Euskaltzaindia-ko beste kide batzuek mugitu zituztela hariak, Euskaltzaindiaren barruko egitura zelangoa zen kontuan izanda. Akademia hotzegi eta zuhurregi ikusiko zuten hain gai polemikoari aurre egiteko. Ermuko jardunaldiak baliagarriak izan zitezkeen giroa berotzeko eta presioa egiteko”.

Bilera horren ondoren Arantzazun egin zen kon-gresuan hartutako erabakiak, 1968ko Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan egindako bileran berretsi zituen Euskaltzaindiak²⁷.

Horrez gain, Ermuko jardunaldi haietan Euskal Idazleen Elkartearen abiapuntua ere izan ziren. Topaketaren ondorioetan, partaideek “euskal idazleen elkartea bat sortzeko” konpromisoa har-tu zuten, Juan San Martinek bere hitzaldian egindako proposamenari jarraituz. Lan hori egiteko batzorde bat be eratu zen, idazle hauek osatua: San Martin bera, José Luis Lizundia, Iñaki Beobide, Joan M. Torrealdai, Xabier Gereño eta Manex Pagola. Hor-til sortutako elkartearak ibilbide laburra izan zuen bere lehenengo etapan, etapa hori 1970eko maiatzean amaitu baitzen²⁸.

Horrelako jarduerek euskal letretako oso izen garrantzitsuak ekarri zituzten Geredia-gara. Aipatutako Juan San Martin abadiñarrak, Rikardo Arregik eta beste batzuek bat egin zuten elkartearen esfortzuarekin. “Ez zegoen erreferentzia geografikorik, erregi-menak hiriburuak oso zainduta zituelako. Ondorioz, Durango bilakatu zen kulturaren erdigune. Hori dela eta, kulturaren munduko jende asko agertzen da Gerediagaren historian”, azpimarratzen du Lizundiak, Gerediagako lehenengo baziodeen artean eus-kal kulturako ordezkari garrantzitsuen izenak aipatuz, horietako askok eskualdearekin loturak ez zuten arren.



Juan San Martin
Argizaiola omen saria
jasotzen, Durango
2001.

²⁶ TORREALDAI, J.M. (2014) *Txillardegi. Batasunaren bidea. Txillardegiren eragintza praktikoa*. JAKIN. 2014ko iraila-urria.

²⁷ Hasiera batean ekitaldi akademiko hori Ohatiko Unibertsitatean egitea aurreikusita zegoen, baina Durangora eroan zen, oraingoan ere, Gipuzkoak bizi zuen salbuespen egoera zela eta.

²⁸ 1982an, Euskal Idazleen Elkartea berriro sortu eta gaur egunera arte luzatzen den lanarekin jarraitu zuen.

IKURRIÑAK URKIOLAN


Euskaltzaindia izan zen, baita ere, 1976ko ekainaren amaieran Urkiolan egin ziren Euskal Jaien irabaziak jaso zituena. Benetako gertakari garrantzitsua izan zen garai gorabeheratsu haietako Durangaldeko kultur arloko bizitzan. “Franco hilda zegoen, baina dena ez zegoen lurperatuta”, esaten du garai haietan Gerediaga Elkarteko presidente zen Jose Ignacio Alberdik. “Ekainaren 29a, San Pedro eguna, jaieguna zen. Beraz, 26an hasi eta 29an amaitu genuen, kontzertu batekin”, esaten du.



Euskal Jai horiek, Anton Abadiak Durangon 90 urte lehenago, 1886an, antolatutakoak ospatzten zituzten. Estanis Barrenetxea baziide gazte durangarraren ekimenez antolatu ziren Euskal jaiak. Zoritzarrez, baziide gaztea, jaiak ospatu baino hilabete batzuk lehenago, urtarrilean, hil zen, 19 urte baino ez zituela.

“Ordukoa be oso une gogorra izan zen”, esaten du Alberdik. Gerediagak programa folklorikorako eta bere azken uneetan zegoen erregimenaren kontrako musikariek eskainiko zuten kontzerturako behar ziren baimenak zituen. Benito Lertxundi, Xabier Lete, Gontzal Mendibil... erakargarria benetan.

Denbora gutxi lehenago musikari berbereok oso kontzertu jendetsua eman zuten Lemona futbol zelaian. Kontzertu hartan “guardia zibilak egurra eman zuen, eta tiroak be egon ziren”, Gerediagako presidenteordeak azaltzen duenez. “Gobernadore Zibillarengana joan ginen eta konbentzitu egin genuen. Esan genion Lemoan gatazkak guardia zibila joan zelako sortu zirela”. Argi eta garbi adierazi genion: “Zuk ez duzuela parte hartuko hitz ematen baduzu, ez da ezer gertatuko”, esaten du Alberdik.



Urkiolako Euskal Jaien kartela eta egitaraua, 1976.

Ez zela ezer gertatuko agindu arren, jaien lehenengo egunean ikurriña bat agertu zen zuhaitz batetik eskegita. Ikurriña ez zegoen oraindik legeztatuta, eta ekitaldiak egiten ziren lekuaren erdian ez zegoen arren, handik oso gertu zegoen. “Guardia zibilek dena erregistratu zuten” eta ikurriña eroan zuten, baina jaiak ez ziren eten. Hurrengo eguna beste ikurriña batekin argitu zen. Oraingo honetan santutegiko dorretik zintzilik. Santutegian bizi ziren erlijio-gizonak Euskal Jaien antolakuntzaren alde agertu ziren, baina ez zuten arriskatu gura izan eta ikurriña desagertzen ez bazen hurrengo eguneko egitaraua bertan behera geratu zitekeela esan zuten. “Hango guztia ondo iruditzen zitzaien, baina ez elizan”, adierazten du Alberdik.

Azkenean, Gerediagako kide bik ikurriña kentza onartu zuten, aurrekusitako ekitaldiekin jarraitzeko. Kontzertua zen ekitaldi garrantzitsuena, eta Bizkarra jatetxearen atzealdeko zelaian egin zen, Saibigainerako bidearen ondoan. “Eszenatokiaren aurrean anfiteatro moduko bat prestatu zen” ... eta Urkiolako zelaia jendez bete ziren.

Ekaineko gaua zen, bero egiten zuen. Jai gogoa zegoen. “Orduan beldur asko pasatu nuen...” aitortzen du Alberdik. Kargatzeko eta jendea atxilotzeko erraztasun handia zuen Hidalgo kapitainaren esanetara zeuden guardia zibilak bi tanketarekin igo ziren eta kontzertua egiten ari zen lekua inguratuz zuten. Batzuek ezin izan zioten presioari eutsi eta alde egin zuten... “Gobernadoreak ez zirela sartuko agindu zuen, baina hasieran

batzuk sartu egin ziren, eta euren armekin jendea apuntatu ere egin zuten. Ondoren, irten eta zer gertatu zain geratu ziren”, kontatzen digu Alberdik.

Hala ere, artistak eszenatokira igo ziren, aurkezle moduan aritu zen Gerediagako bazkide baten ostean. Antolatzaleek txosnak ixtea erabaki zuten, amaitzean jendea zuzean etxera joan zedin, eta mikrofonotik, animoak larregi ez berotzeko moduan bideratu zen gaua. “Irteeran laurogei edo ehun guardia zibil zeuden”, Alberdik adierazten duenez. Musika amaitu zenean, bertaratuiek guardia zibilen begiradapean desfilatu zuten. Horrela amaitu zen guztia.

Jende guztia joan ostean, Buenos Aireseko jabeak antolatzaleak deitu zituen. “Mokautxo” bat prestatu zien, animuak lasitzeko. Jaiak jatetxe barruan jarraitu zuen, eta “artistek berriro atera zitzutzen euren musika tresnak”, gogoratzan du Alberdik.

Gerediagak beste baliabide batzuk ere erabili zituen euskara bultzatzeko. Horrela, 1968an, Concurso de Canciones Modernas en Vascuence izenekoa antolatu zuen Elorriion, Xabier Gereñoren Cinsarekin batera. Bertan, euskal musikako pertsonaia garantzitsuak aritu ziren, Natxo de Felipe, Estitxu Robles Arangiz, Anaiak hirukotea, Gazte Berri otxotea eta Enrique Zelaia akordeoi jotzailea, besteak beste. 1969an eta 1970ean Otxandi Jaialdia eta Lehiaketa ere bultzatu ziren Otxandion.

Ekitaldi handiekin eta txikiiekin batera, hizkuntzaren defentsara eta hedapenera bultzatutako jarduera puntualak be ugaritu egin ziren. Gerediagako kideek sarritan lagundu zieten jai batzordeei, euren egitarauak eta kartelak euskarara itzultzen. Udalei be eskariak egin zitzazkien, industrigune berriak izendatzeko orduan euskara erabili zezaten –Berrizko Eitua, adibidez–, leku bakotzeko toponimoak erabiliz, eta ez erre-gimen frankistako pertsonaien izenak jarriz, ordura arte egiten zuten moduan. Eta hori guztia... garai hartako agintarien debekuak zirela eta gauzatu ezin izan ziren jarduketak ahaztu barik.



Urkiolako Euskal
Jaien peginak, 1976.
Irazabal artxiboa.



Euskal kantu moderno
txapelketa, Elorriion
1968. M. A. Astiz.



Durangaldeko mapa.

ESKUALDE KONTZIENTZIA

Merinalde zaharraren berezitasun historikoak zerikusi handia izan zuen Gerediaga Elkartearen sorrean, eta haren ondorengo zenez, elkartea lanean hasi zen berehala, garai batean merinaldea osatu zuten udalerrien arteko topalekua berriro martxan jartzeko. 1966ko abuztuaren 6an, eta "sukaldoko lan" handiaren ostean, taldeak Merinaldeko alkateak elkartu zituen Gerediagako San Salbatore baselizan, bertako jaiak zirela eta.

"Gai hori asko eztabaidatu zen Gerediagan. Udalerien arteko elkartea moduko baten bila lan egitea interesgarria zen ala ez eztabaidatzen zen, Gerediaga hau ala hori ote zen, gauza bat edo bestea egin behar zen", zehazten du garai hartan zuendaritzat taldeko kide zen Jesus Mari Agirrek. Saio haren puntu garrantzitsuenetakoak zaborren ku-deaketa zen, oso arazo garrantzitsua garai hartako udal politikan. Bulego tekniko orokorra sortzea be proposatu zen, Durangok bazuelako zerbitzu hori,

baina beste udalerriek ez. "Hasiera batean denei interesatu zitzainen, baina gero batzuk kanpoan geratu ziren", baloratzen du Agirrek.

"Nik uste dut alkate batzuek ez zutela gura, eta baziñtza erkarri genituen. Eta baziñtza, badakizu, lasai berbetan hasten zara eta, apurka-apurka...". Balendin Lasuenek gogoratzen duen baziñtza hura baselizan egindako bileraren ostean egin zen, Soloa jatetxeko mahaiaren inguruan. "la denak etorri ziren. Bertan zeuden, adibidez, asko lagundu zigun Valentín Eguidazu Durangoko alkatea eta baita Txomin Arregi be", azpimarratzen du Jose Luis Lizundiak.

Lehenengo bilera haren ostean, eskualdeko alkateek urtero elkartzeko eta herri askotan eragina zuten eta besteekin bat egin barik konpontzea ezinezkoak ziren arazoak lantzeko ohitura hartu zuten. Euskadiko udalerrien lehenengo mankomunitatea izango zenaren hazia landatuta zegoen. Ordezkariek bileretan parte hartzen zuten arren, Mallabia, Ermua eta Otxandio kanpoan geratu ziren, euren kokapen geografikoa zela eta. Dena den, atea zabalik utzi zuten, etorkizunean Mankomunitatearekin bat egiteko.

1968an estatutuak idatzeko batzordea eratu zen. Bertan parte hartu zutenak hauek izan ziren: Francisco Amorrortu Durangotik, Julio Oararteta Abadiñotik, Luis Beraza Elorriotik, Pedro Mari Azpiri Berriztik, Juan Unzueta Zaldibartik, Sebastián Urizar Atxondotik, José Luis Lizundia Garaitik, José G. Ercilla Mañaritik eta José I. Gorrochategui Izurtzatik. Aholkulari teknikoa Juan Méndez Barrena Durangoko Udaleko idazkaria izan

zen. 1969ko martxoan Mankomunitateko estatutuak idatzi ziren, eta 1971ko otsailaren 13an eratu zen Durangoko udaltxean, Francisco Amorrosti buru zela.

Egun horretan errealtitate bilakatu zen Gerediaga Elkarteko kide askoren ametsetako bat. Durangoko Merinaldeko Batzar zaharrarekin lotura ezartzen zuen eta jatorriz berau osatzen zuten herrietako asko biltzen zituen erakunde berria sortu zen. "La conciencia comarcalista... creemos que en pocos sitios se dará como en nuestra Merindad y en ello Gerediaga ha tenido parte decisiva, por su enfoque comarcal, por sus actividades repartidas a lo largo de todas nuestras anteiglesias y villas", esaten zuen presidenteak 1970eko barne buletinaren azken zenbakien orrialdeetatik.

Erakunde berriak ez zuen onarpen maila bera jaso leku guztietan, udalerrien gaitasunen eta udalerri horietan agintzen zuteren arabera. Interes gehien zutenak herri txikienak ziren, "zerbitzuen arazoa konpontzen zuelako", Jesus Mari Agirrek gogoratzentzuenez. 1976tik aurrera, Gerediagako hainbat kide Mankomunitateko gobernuko kide ere izango ziren, bakoitzaz bere alderdi politikoaren ordezkari moduan, dagoeneko.

Merinalde eguna

Alkateen lehenengo bilera egin eta aste gutxira, Gerediaga Elkartea lehenengo Merinalde Eguna ospatu zuen Berrizen. Merinaldearen espazioa jende guztiaren aurrean berreskuratzea zen helburua, nortasun zeinu gisa hartzea. Lurraldearekin batera, "elkarri laguntzeko" kontzeptua ere azpimarratzen zen, antzina merinaldea osatzen ➤



IV. Merinalde
Eguneko kartela,
Mallabian 1968.



Astolako auzitegi etxea 60eko hamarkadan. *Fotosol*.



**III. Merinalde Eguna
San Agustin Etxebarrin
1967.**


Durangaldeari buruzko gai orokorrak eztabaideatzen ziren. Horren ostean dantzak, musika eta bestelako ekitaldi ludikoak etortzen ziren.

Merinalde Eguna txandaka ospatzen zen eskualdeko udalerri batzuetan. Hirugarren edizioan, 1967an, jaia Etxebarriako San Agustinen izan zen. Hurrengo urteetan, jaia Mallabian (1968), Mañarian (1969), Iurretan (1970)... egin zen, eta horrela jarraitu zuen ondorengo urteetan be. Denborarekin, "Merinaldearen anaitasuna eta batasun kontzientzia bultzatzeko" sortutako egun hori Batzar Nagusira mugatuz joan zen, eta ekitaldi ludikoak desagertu egin ziren.

1977an, jardunaldia irailaren 11n izan zen, Izurtzako pilotalekuaren. Urte horretan, Gere-diagak, Durangaldean presentzia zuten alderdi politiko berriak gonbidatu zituen, Udal-en autonomia politiko administratiboari buruz berba egiteko. Hitzordura P.C. [Partido Comunista], HASI [Herriko Alderdi Sozialista Iraultzaleal], ESB [Euskal Sozialista Biltzarra], MCE [Movimiento Comunista de Español], ORT [Organización Revolucionaria de Trabajadores] eta ASK [Abertzale Sozialista Komiteak] joan ziren.

Etapa horretako azkeneko Merinalde Eguna 1979an izan zen, Urkiolako Buenos Aires Hoteleko jatetxeen. Ekitaldira gonbidatuta zeuden Durangaldeko alkateen aurrean, Aranzadi Elkarteko Antton Aranburuk Urkiolako balio naturalak defendatu beharrari buruz egin zuen berba, eta horretarako Parke Natural izendatu behar zela defendatu zuen. Gerediagak bat egin zuen proposamenarekin, adierazpenaren horren aldeko gestioak bultzatzu eta patronatuan parte hartuz.

Merinalde Egunaren ospakizunari²⁹, 1991ean ekin zitzaison berriro Astolako kartzelara zepo eta girgiluen itzulerarekin eta Aingeru Zabala eta Gregorio Montreal Ziaren hitzaldiarekin.



**XV. Merinalde
Eguneko kartela,
Urkiolan 1979.**

zuten udalerrien artean. 'Basarri' kronistak 1965ean azpimarratu zuen moduan, "la ayuda mutua era una de las características de la Merindad, incluso cuando una anteiglesia no podía por sí realizar una obra o solventar un pleito"²⁹.

"Gerediagatarrek", elkartea eratu zen eguna Merinaldearen Lehen egun gisa jartzea erabaki zuten. Hala ere, jardunaldia 1966ko ekainaren 29an ospatu zen lehen aldiz, Berrizen, elkartearren Mendekosteko Bazaar Nagusiarekin bat etorriz. Gehienetan, barne funtzionamenduari buruzko gaia landu ostean,

²⁹ 1965/10/24an La Voz de España egunkariak argitaratutako eta 'Basarrik' sinatutako artikulua.

³⁰ Une horretatik aurrera kokalekua lehenengo Astolan eta geroago Gerediagako baselizan finkatu zen, eta ekitaldi batzuk instituzionalizatu egin ziren, Teilarren, elkarrekin ematen duen ohorezko sariaren, banaketa, adibidez.



Otxandioko basabisita 2010an. *Txelu Angoitia, Astola urtekaria 2010.*

MUGA KONTUA

Udalerryen kokaleku geografikoak gatazkak sortu zituen Durangaldearen lurraldetasunari zegokionez. Bizkaiko Aldundiak, iragan historikoari kasurik egin barik, funtzionaltasun administratiboarekin erlazionatutako irizpideetan oinarrituz ezarri zituen eskualdearen mugak. 1970ean Otxandion animuak berotu egin ziren. Alde batetik, Arabako Aldundiak "Provincia de Álava" jartzen zuen kartela jarri zuen Arrabaleko zubian, eta hiribilduko bazkideek euren protesta adierazi zuten, probintziaren muga ez zegoelako leku horretan. Badirudi Arabaren iritziz, mendeetan Aramaio eta Otxandio artean gatazkak eragin zituen Limitado izenekoa Arabako probintzia barruan zegoela. Hiribilduko biztanleak ez zeuden ados iritzi horrekin. Kartel hori kendu egin zen.

Beste alde batetik, Bizkaiko Aldundiak Otxandio Arratiako Bailara barruan sartu zuen, eta erabaki horrek be otxandiotorren protesta handiak eragin zituen. 1969an, Gerediagak Goi Nerbio-Arratia eskualdearen Hiri Antolamendurako Foru Planaren inguruko eztabaidan parte hartu zuen, hiribildua Durangoko Merinaldearen barruan egoteari eta Durangaldeko gainerako udalerriekin gizarte, kultura, ekonomia eta hizkuntza aldetik zituen erlazioei buruzko txosten zabala aurkeztuz. "Otxandiotorrak ez dute euren burua arratiar sentitzen, eta besteek be ez dituzte horrela ikusten", laburbiltzen zuen azterlan horrek.

1970eko urtarrilaren 19an idazki bat aurkeztu zuten Otxandioko Udalean, Aldundian izapidetu zean. Bertan "argi eta garbi, eta arrazoi sakonekin, adierazten zen ➤



Otxandioko
basabisiako akta
liburua eta tresnak.
*Txelu Angotia, Astola
urtekaria 2010.*

tean sartu zuen. Elizatea herri haien artean zegoen, eta hasiera-hasieratik ordezkariak izan zituen elkarteararen barruan.

Formari dagokion gai horrez gain, Gerediaga lurretako kofradien alde agertu zen, Durangoko Udalaren aurrean 40ko hamarkadatik elizateko mendi komunalen gestioak emandako etekinak zirela eta zuten gatazkan. Kofradiak 1858an birsortu ziren, mendi horien administratziorako. Mendien jabea udala zen, eta Durangoko Udalak beretzat eskatzen zuen, lurreta hiribilduaren parte gisa sartu ostean.

“Mendiak bertan behera utzita daude”, esan zuen Mikel Sopelanak, lurretako mahaikide³¹ eta Kofradietako Batzarreko idazkariak. Sopelanak gogoratzen duenez, Bernardo Mesanza Ruiz de Salas baziideak, Gerediagak gatazkan bitartekari lanak egitea proposatu zuen 1967an, Etxebarriako San Agustinen egindako Merinalde Egunean. Arabako Aldundiko ingeniai agronomoa eta basoiei buruzko gaien idazle emankorra zen Mesanzak “erabakia lortu ahal izateko lan egiteko eskaria egin zuen, basoak oso egoera txarrean zeudelako”.

Otxandio Durangoko Merinaldean zegoeila, eta bertan jarraitu behar zuela”. Badirudi bigarren protesta horrek ez zuela eragin handirik izan.

Gaur egun ere, Bizkaiko Aldundi sail askok, historiari eta kultur ondareari lotutakoek be, Otxandio Arratia barruan dagoela ulertzen dute. Gai horren inguruau hitzaldi bi antolatu ziren Otxandion 1971ko martxoan. 18an José Luis Lizundiak “Otxandio Merinaldeko uria” gaiari buruz egin zuen berba, eta 19an José Manuel Estonba Urkiolako Santutegiko errektoreak, “Euskal Herriko kondairari” buruzko hitzaldia eman zuen.

Otxandioren kasuan zalantzan jartzen zena eskualde batekoa edo bestekoa izatea bazen, Iurretan, udalerri independente moduan existitzea zen eztabaidentzten zena, izan ere, 1926an izaera independente hori galdu zuen. Urte hartan Durango barruan geratu bazen ere, Gerediagak hasiera-hasieratik onartu zuen Iurretan nortasuna, eta Durangoko Merinaldea osatzen zuten udalerrien ar-

31 Mikel Sopelana Gerediagako Batzarreko lurretako ordezkari aukeratu zuten 1970ean.

Asanbladak, kofradien alde agertzea eta bere ordezkariei eta kideei inplikatzeko eta gatazkan bitartekaritza lanak egiteko baimena ematea erabaki zuen. Iurretaiko ordezkaritzak, Kofradi egunaren urteko ospakizuna hasi zuen 1969an, garai hartan Kofradien Batzarrak ez zuelako izaera juridikorik. "Gazteak indartsu sartu ginenei, aurreko batzarkideei gidaritza lanak egi-teko eskatu genien, mendiak zelan zeuden ikusteko...", azaltzen du Sopelanak.

Egoera berri horrek tentsioak eragin zituen Durangoko Udalarekin. "Kofradiek 170.000 pezeta kobrato zitzuzten Iberdue-rotik, Iurretan jarri ziren zutabeak zirela eta", esaten du Sopelanak. Aldi berean, jai batzordeak baba jana antolatu zuen Oromiñon, jaietan ateratako diruarekin, eta albistea, garai hartan Durangoko alkate zen Amorrorturengana heldu zen. "Idazki bat bidali zien sei batzarkideei, dirua itzultzeko eskatuz, diru hori bazkari handietan gastatzen ari ginela entzuna zuelako. Horraino heldu zen kontua, bakak guk ordaindu genituen arren", azpi-marratzen du.

Gatazka 1973an amaitu zen, Durangoko Udalak kofradien ordenantzak onartu zituenean. 1976an, Gerediaga Elkarteko Iurretaiko ordezkaritzak liburuxka batean argitaratu zituen ordenantza horiek, 1926ko anexioaren aktekintzaren batera.

Urte batzuk geroago Iurretaiko kofradiek izan ziren udalerriaren "desanexioa bultzatu zutenak". Desanexioa 1990eko urtarrilaren 10ean sinatu zen. Iurretaiko Gerediaga elkartean zuen ordezkaritzak, lehenengo gestio haien estaldura moduan aritu zen kasu horretan be. "Iurretan edozer gauza egiteko Gerediagaren izena erabiltzen genuen. Beharbada beste ordezkaritza batzuek ez zuten horren beste erabili", esaten du Sopelanak.



Iurretaiko Montoi zubia, 1972. Justo Alberdi.



Iurretaiko desanexio ekitaldia, herriko elizpean 1990. Fotosol.



Ekitaldi politikoa trantsizio garaian. *Fotosol*.



Ganekoetxe jatetxeak
jasotako erasoaren
kontrako manifestazioa,
Berrizten 1981.
Ibaizabal aldizkaria.

aukera ikusi zuen, izpiritua jatorrarekin. Gerediagaren estatutuan dagoena egiru genuen, baina barrutik, herriko politika”, esaten du Justo Alberdik, Durango-lurretarako hautagaietako batek.

Abadiñoko kasuan, hautagaiak Agustín Salterain Askorbebeitia, Eugenio Azpitarte Olaño eta Cándido Lupiola Larrinaga izan ziren. Berrizten hirukotea José Ignacio Alberdi Olabeoia, Matias Oregui Arreguiak eta Pedro Azpitarte Usaolak osatzen zuten. Eta Durangon Carmelo Aguirre Barruetabeña, Justo Alberdi Artetxe eta José Javier Abasolo Uribe aurkeztu ziren hautagai gisa.

Batek ere ez zituen sistema frankistaren mugak gainditu. “Garai hartan oso fitxatuta geunden”, azaltzen du Alberdik, eta pertsona batzuk zelan zaintzen zituzten erakusten duen anekdota bat kontatzen du: “Antzinako nortasun agirian letra larria edo xehea, maiuskula edo minuskula, jartzen zen, identifikatzera joaten ziren poliziek agirian agertzen zen pertsonari buruz gehiago jakin zezaten”.

POLITIKAN SARTUZ

Gerediaga Elkarteak, sortu zenean bere inguruan zegoen errealitatea aldatzeko zuen helburua, agerian geratu zen lehenengo urteetan, izaera kulturala zuten jarduera ugarien eta garai hartako administrazioekin egindako sukaldetko lan handiaren bitarbez, bere ekitaldiak antolatzeko eta inguruko udalen arteko lankidetza bultzatzeko.

Baina garaia aldatzen ari ziren, eta baita elkarteko zuzendaritza taldeko organoak ere. Denbora asko igaro aurretik, lan politikoagoa egiteko unea ikusi zuten. 1970ean, Elkarteak erakunde ekonomikoen, kulturalen eta profesionalen tertzia izenekoan eman zuen izena. Bere helburua Abadiñoko, Berrizko eta Durango-lurretarako udalettarako zinegotzi izateko hautagaiak aurkeztea zen, errejimen frankistak antolatutako udal hauteskundeetan.

“Francoren azken garaia zen, partaideitzari bidea zertxobait zabaldu gura zioten, Europari begira, nire iritziz. Gerediagak infiltrazioan oinarrituz lan egiteko



Amnistia Eguna, Durangon 1977. *Fotosol.*

Erakundeetan zuzenean parte hartzeko bidea itxita zegoela ikusita, Gerediagak bere jarduera paraleloekin jarraitu zuen. Garai hartako barne buletinek gero eta politizazio handiagoa erakusten zuten, bizitzen ari zen trantsizio politikoko tentsioekin bat etorri. Autodeterminazioa, amnistia, feminismoa, euskara... bezalako gaiak gero eta gehiago agertzen ziren bertako testuetan. 1975ean, hau aitzortzen zuten: "Buletin hau eraldatu gura dugu, jarrera kritikoaren bitartez, informazio mailatik iritzira igaroz".

Gero eta jarrera hartzeko handiagoaren erakusgarri, 1975eko abenduaren 27an Elkartaren asanblada nagusiak, hainbat taldek egindako amnistia eskariarekin bat egiteko eta akordio horren berri agintariei helarazteko hartu zuen akordioa izan daiteke.

Merinalde Egunei buruz hitz egitean esan dugunez, alderdi politikoak gonbidatuak izan ziren 1977an Izurtzan egindakora, udalen autonomia politiko-administratiboari buruz berba egiteko. 1979ko martxoaren 15ean, 16an eta 18an, apirilaren 3rako deitutako udal hauteskundeak baino egun batzuk lehenago, Gerediagak eztabaide zikloa antolatu zuen Durangoko Tabira zinean. Ziklo horretan zenbait alderdi politikok³² udal politikari buruz hitz egin zuten, elebitasuna, herritarren partaidetza, eskualdeko politika, anexionioak, ogasuna... bezalako gaietan sakonduz.



Alderdi politikoen
eztabaida publikoaren
kartela, 1979ko
hauteskundeak.

³² EE, EMK-OIC, ORT, PCE-EPK, LKI, HB, PSOE eta EKA.



Zabale baseria, Durangon 80ko hamarkadan. *Fotosol*.



Madalenosteko ola bota baino lehen, Durangon 80.eko hamarkadan.

Fotosol.

PIKOTXAREN MEHATXUA

50eko hamarkadaren amaieratik 70eko lehen urteetara bitartean Durangaldeak hazkunde demografiko handia ezagutu zuen, gero eta indar gehiago zuen industriaren eskulan eskaria zela eta. Biztanleria ia bikoitzu egin zen. Hazkunde hori

Bizkaiko gainerako lekuetan baino pixka bat beranduago eman zen, eta 1966-1975 epealdian kontzentratu zen³³. Horrela, ia guztiz bat etorri zen Gerediaga elkartearen lehenengo hamarkada emankorrarekin.

Denbora tarte labur horretan goitik behera aldatu zen eskualdeko gizartearren osaketa. Bat-batean, bailaretan eta herrietan herrikide berri asko gehitu zitzazkien betidaniko biztanleei. Biztanleria berri hori, industriaren deiarri erantzunez landa ingurueta guneetatik jaitsitako baserritarrek eta industria eta lantegi horietan lan egitera etorritako Euskal Herriko eta penintsulako gainerako beharginek osatzen zuten.

Normala denez, jende berri hori guztia ardura bilakatu zen Gerediagarentzat. Durangaldea erabateko desarrollismoaren urteetan sartuta zegoen, eta horrela, Matienako, Iurretako eta Ermuko "des-urbanizazioak" sortu ziren, adibide batzuk jartzearren. Eskualdeko kultur ondarea desagertzen ari zen pikotxaren bitartez, eraikin berriei lekua egiteko.

³³ MUJICA, N. (2005): *El pasado reciente de Durango y su comarca (1960-1991)*, Deustuko Unibertsitatea.



Etxebarribein baserria botatzen, San Agustin Etxebarrin 2005.

Hasiera-hasieratik arkitekturaren eta kultur ondarearen kontserbazioarengatik arduratuta, Gerediagak, Centro de Iniciativas Turísticas de Elorrio izenekoak antolatutako "Lurralte Arkitekturako I. Kongresuan" hartu zuen parte 1965ean³⁴.

Gerediagaren helburua eskualdearen berezitasunak kontserbatzearen eta berreskurtzearen alde lan egitea zen. Esfortzu horren barruan, ahaleginak egin zituen erakundeak konbentzitzeko, eraikin eta elementu interesgarriei behar zuten babesea eman ziezaien. Horrela, 1967an premiazko esku-hartza eskatu zen, Etxebarriako San Agustinen zegoen Durangoko Kondeen kapera galdu ez zedin.

1973an, Gerediagaren iritziz, gordetzeko eta kontserbatzeko babesea behar zuten Durangoko Merinaldeko eraikinen eta multzoen katalogazioa bidali zitzaison "Comisión Provincial de Monumentos de Vizcaya" izenekoari, urte haietan hain erasokorrak izaaten ari ziren hirigintza planek elementu interesgarri horiek desagerrarazi ez zitzaten.

Eskualdeko elementu berezien inguruan interesa pizteko borroka horretan, Gerediaga eraikin batzuen erakarpena azpimarratzen ahalegindu zen. Horrela, Muntsaratz inguruan, Durangaldearen historiaren berri emango lukeen argi eta soinu muntaketa instalatzea proposatu zuen, Nafarroako Xabierreko gazteluan antolatutakoaren antzekoa.

Batzuetan, besteetan baino zorte handiagoa izan zuen ondarearen kontserbazioa lortzeko orduan. Baino, kasu guztietan ere, gestio horiek eraispen posibleen arriskua atzeratu egin zuten. Hurrengo hamarkadetan gizartean eta politikan izandako aldaketek, elementu interesagarriak kontserbatzeko eta haien berreskuratzeko eta berritzatzeko aukera eman zuten.



Goiuriko Andra Mari baselizaren leihatila, Iurretan 2010.
Txelu Angotia.

³⁴ Jesús Astigarraga eta Leopoldo Zugaza Gerediagaren ordezkari gisa joan ziren. Horren ostean, gonbidapena luzatu zitzaison elkarteari, bere batzordeko ordezkari batekin parte har zezan zentroan.

PRESIDENTE BAT TOP-AREN AURREAN

"Gerediagak, gauzei buruz jakin gura izateko ausardia izan zuen", esaten du 1972tik 1979ra elkartearren presidente izan zen José Ignacio Alberdik. Ausardia horrek, oinarri handirik gabeko akusazioarekin batera, Ordena Publikoko Epaitegiaren aurrera eraman zuen elkarteko ordezkarria, elkartearren ibilbideko une zailenetako batean.

Historia, "Gerediagatarrek" eskualdeko herrietako eta hiribilduetako hiri garapenaren inguruari zuten ardurarekin hasi zen, lehen be aipatu dugun moduan. Goi mailako agintarieki, Bilbo Handiak berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran bizi zuen industria eta demografia arloko presioa arintzeko Goi Ibaizabaleko lurralte lauak oso egokiak zirela erabaki zuten.

"Plan de Ordenación Territorial Urbana de la Comarca del Duranguesado" izenekoa izan zen lehenengo borroka. Eskualdearen etorkizunaren parte handia plan horretan zegoela jabetuta, 1967an Gerediagak informazio bulego bat prestatu zuen hilabetez Ezkurdin, 'Comida Arrinda'-ren beheko solairuetan, eta Eleni Bilbao bazkideak eskaintzen zuen arreta bertan. Oso prozesu luzea izan zen, baina alegazioak aurkezteko epea luzatzea lortu zen. Prozesu hartan jasotako desadostasunak Durangoko Tabira zine aretoan aurkeztu ziren jende guztien aurrean 1969ko apirilaren 27an.

"Horren ostean, hainbat udalerriren hiri antolamendu planak eta plan batzuen aldaketak etorri ziren: Berriz, Zaldibar, Ermua...", gogoratzen du Alberdik. Askotan eskualdetik kanpoko teknikariek egindakoak ziren plan horiek, iragarkien oholean eta egunkari batean iragartzen ziren gehienetan. Oso gutxi ziren albista garaiz jasotzen zutenak, eta gutxiago oraindik horren eraginak ulertzten zituztenak. "Jendeak gauza baten berri izan dezan, ulertzea ezinbesteko da", azaltzen du Alberdik.



Gerediagako lehendakariak: Jose Ignacio Alberdi (1972-1978), Balendin Lasuen (1966-1972) eta Sabin Goikolea (1978-1983). B. Lasuen.

Gerediaga, "Unibertsitatetik irten berriak ziren eta gogoz beteta zeuden arkitekto gaztez osatutako talde batekin" jarri zen harremanetan, eta arau haien aztertzeko proposamena egin zien. "Basañez, Aretxabaleta, de Felipe, Agirregoitia... Ideia era-kargaria iruditu zitzainen. Planak aztertu, eta bertan prestatzen ari ziren gehiegikeria ugariak ikusi zituzten, masifikazioa, espekulazioa... benetako txapuzak ziren. Herri batzuetan benetako astakeriak egin gura zituzten. Adibidez, ikusi zuten planaren idazleek, euren ikasketa kideek, hain zuen ere, leku horietako batzuk zapaldu be ez zitztela egin. Eurekin harremanetan jarri ziren, kontu handiz zaindu beharreko hiribildua zen Elorriion zenbait gauza zelan egin zituzten jakiteko... Lan guztia plano gainean egin zutela ikusi zuten", kontatzen du Alberdik.

Elkartea arkitekto talde haren txostena zabaltzeko ahalegintan hasi zen. "Beharrezko zen baimenak eskatzea, eta baimen horiei ezetz erantzuten hasi ziren... Landu beharreko gaia adieraztea ezinbestekoa zenez, gobernadoreak atzera bota zituen kasu guztietan".

1972an, "Ermuaren txanda heldu zenean, parrokiaren lokal bat eskatu zen. Parrokoak, Matienako Zuazuak, ekitaldia baimendu zuen, baina Gobernu Zibilaren debekua heldu zen. Astelehenerako aurreikusita zegoen bilera ez zen egin", azpimarratzen du Gerediagako presidente ohiak. Han elkartu zirenak Ermuko futbol taldeko zuzendaritzako kideak izan ziren, partidua zegoen asteburu guztien osteko astelehen guztietan egiten zuten moduan. Baten batek mugimendua ikusi zuen parrokiako aretoan, eta "alkatea arineketan joan zen Cobernadero Zibilarengana, debekuaren ostean bilera egin zela zekiela esanez, eta gobernadoreak prozesua zabaldu zuen".

Horren ondorioz, Alberdiri 10.000 pezetako isuna ezarri eta prozesua zabaldu zitzaison. "la urtebetetze epaitegian aurkeztu behar izan nintzen hamabost egunez behin", gogoratzen du. "Eskualdeko hainbat alkate, Gerediagako bazkide ere bazirenak, gure aldeko testigantza emateko prest agertu ziren... Amorrortu... Eta uste dut baita Mallabiko Arregi be... Alkateek, gu arriskutsuak ginela esan zuten, baina ez horrenbeste. Erantzuna hau izan zen: eurak izan ez badira, azkenean egia nagusituko da".

Aipatutako Gerediagako presidente, José Ignacio Alberdi, Madrilen epaitu zuten, 1973ko ekainaren 14an, TOP ezagunaren, Ordena Publikoko Epaitegiaren, aurrean, legez kanpo elkartzeagatik. Bilbon abokatu defendatzailea José Antonio Etxebarria izan zen eta Madrilen Joaquín Ruiz Jiménez, urte batzuk geroago Legebiltzarreko presidente izango zen Gregorio Peces Barbarekin batera.

Alberdik gogoratzen duenez, "TOP epaitegi politikoa zen, bi urte inguru eskatzen zituen, eta hori asko zen, baina eskatzen zuten isuna ikusita... ia hobea zen kartzelan denbora gehiago egitea eta isuna murriztea. Gaur egunetik ikusita barrea eragiten du, baina orduan...". Azkenean, "akusazioak ez zuen inor aurkeztu, gu ikusi girtuela esan zuen guardia zibila be ez, eta fiskalak, egoeraz lotsatu eta libre uztea eskatu zuen". Abentura hark 55.000 pezeta inguruko gastuak eragin zizkion Gerediaga elkarteari.



Ministerio de
Gobernacion-en agiria
ekintza bat debekatzen,
1974 .

3

TRANSIZIOA ETA BIDE BERRIAREN BILAKETA

- 61** Presaz emandako errelebua
- 63** Astola, amestutako etxea
- 68** Profesionalizaziora saltoa
- 70** Pisutxoa
- 72** Iraganean induskatzuz
- 75** Urkiolako Parke Naturalaren eraketa prozesua
- 77** Berriro hasi
- 80** Euskal Jaiak
- 82** Burua moztutako kondesa
- 84** Kontatu ahal izateko ikertu

«Lagunak galtzeko dira zuhaitzen hostoak bezala»

Beste zenbait poema. Bingo Poemak, 2005.
Xabier Montoia



Zakilixuten umorea Egunkarian.

PRESAZ EMANDAKO ERRELEBUA

Trantsizio demokratikoa heldu zenean, Gerediaga Elkartearen lehen hamarkadako jardun gorabeheratsua albo guztietatik ihes egiten hasi zen. 1975eko azaroan Franco hil ostean, mugimendu politiko, sindikal eta sozial indartsua azaleratu zen gizartean. Klandestinitatean beste jarduera batzuk aurrera eroandako Gerediaga Elkarteko kide aktiboenetako asko guztien aurrera agertu ziren. Bat-batean, sortu berri ziren era-kunde horietako agintea hartzeko emakumeak eta gizonak behar ziren, eta baita sortzean zegoen instituzionalitate berria aurrera eroango zuten gizon-emakumeak be.

“Beno, garai batean ez ziren Gerediagako Batzar Nagusiak egin. Franco hil eta gero jende kopuruak behera egin zuen, askok uste izan zutelako jada ez zela beharrekoa, lege eremurako tresna izateari utzi zion”, aitortzen du Jose Ignacio Alberdi garai hartako presidenteak.

Denbora tarte laburrean, 70eko azken urteetan, Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango izenez sortutako elkartea garai berrietara egokitzten ahalgindu zen. 1977ko batzar nagusian hainbat bazkide gazte sartu ziren¹, eta elkartearen jarduerak berriztatzeako agindua zuen batzordea izendatu zen², hori bai, ➤

¹ Kide berrietako asko lurretatik zetozen, baina baita eskualdeko beste leku batuetatik be. Asanblada hartan Elkartean sartu zen Lazaro Milikuak partaidetzatza “oso zabala” izan zela gogoratzzen du. Adierazten duenez, elkarteko presidente moduan urte gehien eman dituen Antton Mari Aldekoa-Otalorak eraman zuen bera Elkartera. Milikuak esaten dueñezi, Gerediaga Elkarteko kide batzuek benetako “proseltismo lana” egin zuten 1977ko bilera haren aurretik.

² Beste batzuen artean hauiek zeuden: Jose Antonio Azkorbebeitia, Justo Alberdi, Mikel Kapanaga, Jose Luis Lizundia, Luis Gorroño eta Jesus M^a Aguirre.



Mendizabal lantegiko langileekin elkartasun agerraldia, Durangon 70.eko hamarkada. *Fotosol.*



XIII. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako kartela, 1978.



XII. Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketaren kartela, Durangon 1978.

elkarrearen betidaniko nortasun zeinuak baztertu barik. Berrikuspen hartatik sortu zen ponentzia 1978ko martxoaren 19ko asanblada nagusian onetsi zen. "Garai bateko beltxarga-kanta" izan zen, elkartean izan duen ibilbide luzea garai hartan hasi zuen Jon Irazabalek esaten duenez.

Trantsizio garai hartan elkartea "u"-a be galdu zuen, 1978ko asanbladan, sor-kuntzako izen luzea aldatu eta bere ordez Gerediaga Elkartea jartza erabaki baitzen. Jarduerak asko murriztu ziren, eta elkartean oso sustraituta zeudenek

baino ez zuten jarraitu. Horrela, 1978ko urte hartan, egitaraua Abadiñoko San Blas Azokara, Durangoko Ezpatadantzari Egunera, Axpe-Martzaako Artzain Txakurren lehiaketara eta Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara mugatu zen.

Gerediagako Zuzendaritza Talde berriko kideek ez zuten kargu aldaketa ordenaturik izan. 1979an lehenengo udal hauteskundeak egitear zeuden, eta presak sortu ziren leku guztietatik. "Nahasketako soziopolitiko uneak egon ziren... ez zen asanbladarik egiten, eta nik uzteko gogoa nuen. Politikan sartu gura nuen, eta ez nuen alderdi batean sartu gura Gerediagan nengoentzat bitartean", esaten du Alberdik.

"Oso abagune politiko bereziak ziren, eta nahiko kargu aldaketa zakarrean sartu ginen", onartzen du elkarteko presidentzian Alberdiren lekua hartu zuen Sabin Goikoleak. Aldaketa, "berez", 1977ko asanblada hartan egin zen, zuzendaritza talde berria urte horretan eta 1978 urtean zehar osatu zen arren. "Esan daiteke, Gerediagara hurbildu ginen gazte talde batir ardurak gure gain hartzera behartu gintzutela", esaten du Goikoleak. Berarekin batera, taldeko zaharrena eta, ziurrenez urte iskanbilatsu haietako "aurpegia neutralena", Jose Luis Lete, eta Lazaro Milikua, Antton Mari Aldekoa-Otalora eta Jesus Mari Salterain geratu ziren elkartearren agintean, eta Jon Irazabal, liburuzain-artxibozain moduan. Beste izen batzuk be egon ziren, baina pixkanaka-pixkanaka, desagertuz joan ziren.

Gerediagaren sorrerako helburuak oraindik indarrean zeudela uste zutenen aurrean, baziide historikoetako batzuek desagerpena proposatu zuten. Frankismoaren garaian legeztatuta zegoen elkartarekin jarraitzea be aztertu zen, bizi zen une politikoan atzera-pausoak gertatuz gero haren izena erabili ahal izateko, baina horretara esfortzurik bideratu barik. Eztabaidak bizirik jarraitu zuen, Gerediagako kide batzuek "basamortuko zeharkaldi" gisa definitu duten epealdi horretan. Horren emaitza Gerediaga Elkartaren birkondazioa izan zen. Elkartea, zortzi urte geroago, 1986ko maiatzaren 18an egin zen hurrengo Batzar Nagusian berretsi zuen berpizkundea.

ASTOLA, AMESTUTAKO ETXEA


"En la jurisdicción de Abadiano y equidistante de su iglesia de San Torcaz y la villa de Durango, existe un edificio de bella traza, con amplio zaguán limitado por dos correctas arcadas, que recibe la denominación de caserío de Astola. Es una reliquia que puede considerarse como símbolo de lo que fue la Merindad en el siglo XVII. Allí estaba instalado el Auditorio o Audiencia, allí, la cárcel destinada a la reclusión de los delincuentes; allí residía el Teniente del Corregidor y el Merino de la organización, y allí, en fin, celebraban sus juntas ordinarias los apoderados de Abadiano, Berriz, San Agustín de Echevarría, Mallavia, Yurreta, Mañaria, Zaldua, Garay, Axpe, Arrazola, Apatamonasterio e Izurza.³"

Hitz horien egilearentzat, joan den mendeko 20ko hamarkadan Gerrikako Batzar Etxeko artxibozaina izan zen Amador Carrandirentzat, Astola Durangoko Merinalde zaharraren sinboloa zen. Gerediaga El-kartearentzat, Astola, urte luzez, bete gabeko ametsa izan zen. Sortu zen une beretik, "Gerediagatarrek", egun batean Merinaldeko ohiko egoitza izan zen etxe handi hartan zituzten begiak jarrita.

Astolako Auditorio Etxea galduztako bizilekua zen, euren burua Merinalde zaharraren ondorengo moduan ikusten zutenek itzuli gura zuten lekua. Hori dela eta, elkartearren fundazioa ahalik eta gertuen zegoen etxearen egin zen⁴. Hori izan zen, baita, urte horretan bertan Bizkaiko Foru Aldundiari haren berriztapena eskatzenko arrazoia be, eta, gainera, horretarako jarraibide batzuk be eman ziren. 1965eko Gabonetako Bazarrean, Concepcion Astola Gerediaga Elkarteko lehenengo presidentek, Aldundiak, Gerediagaren aholkuak jarraitzen zituen zaharberritze proiektua idatzi zuela jakinarazi zuen.

Bizkaiko Foru Aldundia etxeaz jabetu zen 1919. urtearen inguruan bere izenean jarri ostean, Durangoko Merinaldeko elizateen kaltetan. Benetako izena Zubiaurre duen etxea oso egoera txarrean zegoen 60ko hamarkadan, eta paradore bilatzeko asmoa zegoela entzuten zen. Une harten plan hori eta zaharberritzeko plana ezin ziren gauzatu. Probintziako diputatu ere bazen Francisco Amorrortu Durangoko alkateak parte hartutako gestio askoren ondoren, 1967an, Fernando de Ybarra presidente zuen Aldundiak etxe lagatzea lortu zuen Gerediagak, bere egoitza bertan ezartzeko.

Bertan egin zen 1967ko Gerediagaren Gabonetako Bazarra. Bilera hartan Foru Aldundiari egindako eskariaren berri eman zen, teilitua konpon zezan eta hainbat horma bota zitzan, etxearen barrualdean dagoen eta kartzelaren ziegak jasotzen dituen dorrea bakartuta uzteko. 1969an Aldundiak etxeak konpontzeko 250.000 pezeta bideratuko zituela adierazi zuen. Hala ere, oinarritzko konponketa lan gutxi batzuk egin ostean, obrak gelditu egin ziren. >



Florencio Amador
Carrandire
liburuaren azala,
Bilbon 1922.
Irazabal artxiboa.

³ AMADOR CARRANDI, Florencio. 1922. (Op. Cit.)

⁴ Ikusi 1. kapitulua: *Astolako kixoteak*.



Astolako etxe berrikuntza lanetan, Abadiñon 1982.

1972an, Auditorio-Etxea zaharberritzeko lanak berriro bultzatzeko xedez, Gerediagak kontserbazio eta erreforma proiektua eskatu zion Jesus Astigarraga bazkide sortzaileari. Aldundiak 1973an onartu zuen proposamena, obra 1974an gauzatzeko beharrezko zen aurrekontu partida ezarri zuen ez ohiko bileran. Hamar urteko gestioen ostean azkenean lanak martxan jarri zirela zirudienean, akats baten ondorioz diru haren parte bat alboko lur batzuk erostera bideratu zen.

Franco hil ostean, Aldundia une politiko gorabeheratsuan sartu zen. 1979ko apirilaren 3an, Bizkaiko Batzar Nagusiak berriro martxan jarri ostean, foru hauteskundeak egin ziren, eta Jose Maria Makua presidente zuen Aldundi berria izendatu zen. Hauteskunde haietan Durangoko Merinaldeko Mankomunitate berriko lehenengo ordezkariak be izendatu ziren. Mankomunitatea osatu ostean, eskaria egin zioten Aldundiari, bere egoitza Durangoko Udaletxetik Astolako Auditorio Etxera eroateko. Bere egoitza etxe hartan zuen eta Mankomunitatearen sustatzaile izan zen Gerediaga Elkarteari horri buruzko galdera egin zitzzion, eta erakunde biek etxea erabiltzearen alde agertu zen.

1981ean, Abadiñoko Udalak, Luis Irazola alkate zela, bat egin zuen Gerediagaren asmoekin, auditorio zaharra berreskuratzeko. Gerediaga Elkarteari eraikinaren erabilera rako plan bat eskatu zion, eta obra proiektu bat idazteko eskatu eta Aldundiari bidali zion 1982an. Aldundiak onartu egin zuen Aurea Perez eta Carlos San Miguel arkitektoek sinatutako proiektua, eta Gerediagak etxea libre utzi zuen, lau urtez lizatu ziren lanak hasi ahal izateko.

Gerediagak idatzitako erabilerarako planak, eraikinaren beheko solairuan, estalpe izandakoan, zerbitzu erabat kultura-lak izango zituen gune publikoa sortzea proposatzen zuen. Bertan egongo ziren liburutegia eta elkartea zituen funts dokumentalak. Gune publikoak lehen solai-ruko harrera gunea be hartuko zuen. Bertan, Astolak izandako historiari eta esanahiari eta Durangoko Merinaldearen antolakuntza ezaugarriei buruzko erakusketa egonkorra jartzea aurreikus-ten zen. Horrez gain, museo bat egitea be aurreikusten zen lehen eta bigarren solairuan zeuden kartzela zaharreko bi ziegatan. Beste alde batetik, eraikinak lanerako bi gune izango zituen, Durango-ko Merinaldeko Mankomunitatearentzat eta Gerediaga Elkartarentzat.

Baina, berriro ere, Gerediaga elkartea errebeskada bat jasan zuen. 1985ean, lanak amaitzean zeudela, obra zuzenda-ritzak aldaketa bat aurkeztu zion aurreko erabilera planari, dagoeneko eginda zeuden lanetara egokituz. Baino, prentsan irakurri zenez, planak beste batzuk ziren. Prentsan irakur zitekeenez, Asto-la, denbora gutxi lehenago sortu ziren Euskal Pilotako Euskal Federazioaren eta Euskal Jokoien eta Kirolen Federazioaren egoitza izango zen, 1986an Gasteizen egin beharreko Euskal Pilota Munduko Txapelketari begira.

Informazio hauetik ikusita, Gerediaga Elkartea bilera bat⁵ eskatu zuen Abadiñoko Udal-leko, Mankomunitateko eta Aldundiko Kirol Zuzendaritzako arduradunekin. Bilera harten, Juanjo Ziarrustak albistea baiez-tatu baino ez zuen egin. Gerediaga Elkartea egoitza eta proiektu barik geratu zen. Gerediagako ordezkariek ez zuten ulertzen etxearen erabilera berria, Gernikako eta Abellanedako beste egoitza historiko biekin gertatzen zena kontuan izanda, eta bilera utzi egin zuten.

Zorionez, Gerediagak bere eskuetan zeukan Makuk 80ko hamarkadaren hasieran sinatutako dokumentua, Astolako etxea egoitza gisa uzten ziona. Abal hori eskue-tan, Gerediaga Elkartea Aldundira zuzendu zen, bere ustez bidegabekeria eta ➤



Astolako etxea gaur egun, Abadiñon 2007. *Txelu Angoitia, Astola urtekaria 2007.*



Astolako San Bizente ermita, Abadiñon 2007. *Txelu Angoitia, Astola urtekaria 2007.*

⁵ Bilera harten hauetan hartu zuten parte: Juan Jose Ziarrusta Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zuzendaria, Carmelo Larrauri Abadiñoko alkateak, Jesus Maria Agirre Durangoko Merinaldeko Mankomunitateko presidenteak eta Euskal Pilotako Euskal Federazioko eta Euskal Jokoien eta Kirolen Euskal Federazioko presidenteek. Gerediaga Elkartaren izenean Antton Mari Aldekoa-Otalora presidente, Jesus Mari Salterain, Lazaro Milikua eta Jon Irazabal joan ziren.

gehiegikera zena azaltzeko. Tomas Uribeetxebarria Kultura Diputatuak adierazi zue-nez, ez zuen Gerediaga etxearekin eta etxearen zaharberritze lanekin lotzen zituen aurrekarien berri. Hala ere, handik denbora gutxira, Aldundiak bere planak aztertu eta etxearen beheko solairuaren erabilera elkarteari laga zion. "Dokumentu hori oso garrantzitsua izan zen", esaten du Lazaro Milikuak.

Hala ere, Astolarako kultur projektua mugatuta geratu zen. Lehen solairuan aurrekusita zeuden erakusketa guneak federazioen beharretara bideratu ziren. Bigarren solairuko ziega, kontserbatzen zen gune historiko gutxienetako, Mankomunitate-rako biltegi bilakatu zen.



Merinaldeko zigilua.
Txelu Angoitia,
Astola urtekaria 2007.

Gerediagak ahaleginak egin zituen, erabilgarri zegoen lekuaren eraikin haren esanahia eta garrantzia azaltzeko. Lehen solairuko ziegan erakusketa bat antolatu zuen, Merinaldeko erakunde zaharren objektu historikoekin, eta beheko solairuan, bere administracio beharrekin batera, Merinaldeari buruzko Zentro Dokumental bat. Proiektua mugatuta zegoen eta ez zuen finantzaketarik eta, ondorioz, ez zituen bere helburuak bete. Hala ere, Gerediagan gaur egun be indarrean jarraitzen du oraindik hori berres-kratzeko interesak eta ahaleginak.

1986ko irailaren 13an, Gasteizko Munduko Pilota Txapelketa hasi zen egun berean, Astolako etxe zaharberritua inauguratu zen, altzariak jarrita eta kirol erakundeek eta Mankomunitateak erabiltzeko prest. Gerediaga Elkartea 1987an instalatu zen.



Astolako kartzela, Abadiñon 2007. *Txelu Angoitia, Astola urtekaria 2007.*



Gerediaga Elkarteko bulego berrien inaugurazioa, Durangon 2009.

Aingeru Zabalaren, Foru artxibozain eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historiko Zerbitzuaren Buruaren laguntzari esker, elkartea bere betebeharrauk aurrera eraman ahal izateko altzariak eta elementuak jaso ahal izan zituen.

Beheko solairuan prestatu ziren "Nicolas Alzola Gerediaga –Bitaño–" liburutegia eta Gerediagak bildutako funts dokumentalak. Beheko solairuko ekitaldi aretoa hitzaldiak, ikastaroak, bilerak... egiteko gune gisa funtzionatzen hasi zen. 1988an, mende horretako 20ko hamarkadako lehen urteetan Astolako artxiboa eta objektuak biltzeaz eta leku segurura eroateaz arduratu zen Florencio Amador Carrandiri omenaldia eskaini zitzzion. Gernikako Batzar Etxean eta Bilboko Euskal Historia Museoan gordetzen ziren objektu horiek Astolako lehen solairuko ziegan egin zen erakusketan instalatu ziren, behin behineko soluzio gisa. Baino badakigu behin behinekoa betiko bilakatzen dela... eta erakusketa leku horretan dago oraindik.

Urte luzez Zubiaurre etxea Gerediaga Elkartearen etxea eta bere jarduera askoren egoitza izan zen. Hala ere, 2009an, elkartea Durangora eroan zituen bere bulegoak. Alde batetik, administrazio beharrak zeuden, eta bestetik, herri horretan administracio egoitza bat izatea ezinbestekoa zen, eraiki zenetik Durangoko Azoka jasotzen duen Landako Erakustokia hobeto erabili eta kudeatu ahal izateko. Durangoko Udalak, Larrasoloeta 3an dagoen txaletaren erabilera laga zion Gerediaga Elkarteari.

Edozelan be, 1967an ezarri zen moduan, Gerediaga Elkartearen egoitza ofizialak Abadiñon dagoen Astolako Zubiaurre Etxean jarraitzen du, kartzela, auditorioa, batzar etxea eta Durangoko Merinaldeko teniente korregidorearen etxebizitzaz izandakoan.



XIV. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka, 1979.



XIV. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren kartela, 1979.

PROFESIONALIZAZIORAKO SALTOA

Errelebua martxan zegoela, zuzendaritza talde berria Gerediaga Elkartearen egutegiko jarduera finkoei aurre egiteko prestatu zen, urtero gero eta jende gehiago elkartzen zuen Durangoko Liburu eta Disko Azokari begira, batez ere. "Lazaro zen gehien mugitzen zena. Ni aurpegi publikoa nintzen, baina benetan lan egiten zuena Lazaro Milikuak zen⁶. 'Salte', Lete eta Antton Mari be bai, eta, zorionez, beteranoek asko lagundu gintuzten, Alberdik, Lasuenek...?" esaten du Sabin Goikolea presidente ohiak.

Horrela da. Garai haitetan elkarteko idazkari zen Lazaro Milikuak baiezatzen duenez, ezkondu barik zegoenez, Gerediagaren administrazio lanetako asko bere gain hartu behar izan zituen. Lehenengo Garain, eta gero Berrizen. Udalerrri horietako idazkari izan zen, "Udaletxea Gerediagaren egoitza ibiltaria bilakatu zen", onartzen du. Lan horiek egiteko Elsa Etxebarriaren eta Nati Landaren, Berrizko Udaleko langileen, laguntza eta konplizitatea izan zuen. "Egunean 24 ordu egiten genuenez lan, posible zen denetara heltzea", esaten digu.

Hala ere, egoera hark ezin zuen denbora asko iraun. Eskuak falta ziren eta eginbeharreko larregi zegoen. "Denok boluntarioak ginan, eta zoratuta ibiltzen ginan leku guztietara heldu ezinik. Beraz, baten bat kontratatzea erabaki genuen", esaten du Sabin Goikoleak. Ordurako, Jon Irazabal Gerediagako bazi kide aktiboa zen, eta baten bat bilatzeko ordua heldu zenean, bere izena etorri zitzaigun. "Egun batean, Antton Marirekin⁸ baten bat behar izateari buruz berba egiten ari ginela, bere ustez oso interesgarria izan zitekeen pertsona bat zeukala esan zuen, eta horretarako prest zegoena, gaine-

⁶ Milikuak Juan Luis Isasiren lekua hartua zuen lan horietan.

⁷ 1977. eta 1978. urtean artean aukeratutako zuzendaritza taldeko kideak aipatzen ditu, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Lazaro Milikuak, Jesus Mari Salterain, Jose Luis Lete eta aurreko zuzendaritza taldeetako kideak, horien artean, Jose Ignacio Alberdi eta Balendin Lasuen.

⁸ Antton Mari Aldekoa-Otalora Gerediaga Elkarteko presidenteordea zen garai hartzan.

ra". gogoratzen du Goikoleak. "Gonbidatu egin genuen, eta hasiera batean kontratu eta ezer barik aritu zen, lau txakur handirengatik lanean", gehitu du.

Zuzendaritz Taldeak lurretako gaztea bi hilabetez liberatzea erabaki zuen, Lazaro Milikuari laguntzeko 1980ko Euskal Liburu eta Disko Azokaren antolakuntzan⁹. Esperientzia oso positiboa izan zen, eta 1981ean berriro errepikatu zuten. Horretarako, Irazabalek, Madrilren egiten ari zen soldaduskatik "ihes" egin zuen.

Esperientzia hainbat etorri ziren Gerediaga Elkartearren aurrekontuaren hazkundearekin¹⁰, Eusko Jaurlaritza edo Aldundiak bezalako erakundeak ematen hasi ziren diru-laguntzei esker. 1978tik 1980ra Gerediaga Elkartearren diru-sarrerak bederatzirengatik biderkatu ziren, eta hurrengo urteetan begora egiten jarraitu zuten. Aldi berean, Euskal Liburu eta Disko Azoka gero eta handiagoa bilakatzen ari zen, eta euskal kulturaren elementu garrantzitsu bilakatzeko bidea erakusten zuen. Erronka berriei aurre egiteko aukerak ere ikusten hasi ziren, Urkiolako Parke Naturalaren babes, ondarearen kontserbazioa edo Durangaldeko eskualdeari buruzko ikerketa historikoa, besteak beste.


Aipatutako guztia ikusita, gero eta argiago zegoen Gerediagak bere lan guztia elkarteari eskaniko zioten langile liberatuak behar zituela, elkarteaek hazteko aukera izan zezan, ordura arte izandako lan militantetik haraindi. 1982ko urriaren 1ean, Aingeru Zabala Eusko Jaurlaritzako Ondare Historiko-Artisikoaren zuzendariarekin Lakuan izandako bilera batetik itzultzean, Gerediagako Zuzendaritza Taldeak Jon Irazabali urte osorako kontrataua eskaintza erabaki zuen, elkartearren jarduera guztietan lan egiteko. Irazabalek eskaintza onartu zuen. "Gaurtik ikusita, eskerrak horrela egin genuela; bestela, elkartea desagertu egingo zen", esaten du Antton Mari Aldekoa-Otalorak.



C. Garaikoetxea Lehendakariaren bisita Durangoko Azokan, 1981.



Euskaltzaindiak liburuak aurkezten Durangoko Azokan, 1981.



⁹ Urte hartan, Durangoko Azoka Sortzez Garbiaren Zubian ospatu zen lehen aldiz, ordura arte erreferentiazkoan zen Domu Santu eguna behin betikoz bantzertuz. Hitzordua gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari zenez, arduradunek egun gehiagoko ekitaldia antolatzea pentsatu zuten, eta Madrilgo Gobernuak azaroaren lehen lanegun izendatzek ahoz izan zenerikusia.

¹⁰ Zuzendaritz Taldeko hainbat kide bat datozen funts erabilgarriak gero eta handiagoak izan arren, ordaintzeko eta kobratzeko egunak oso irregularrak zirela.

Josean Artzeren
txalaparta kontzertuaren
kartela, Durango 1982.

PISUTXOA



"Los Lopez" rock taldea Landakon. *Astola urtekaria 2008.*



"Estupidoacientes" rock taldea. *Astola urtekaria 2008.*

80ko hamarkadak euforia ekarri zuen sorkuntza lanetan eta euskal gizarteko beste alor batzuetan. Juan Antonio Hernandez¹¹ kazetariak Astola aldizkariak 2008an argitaratutako erreportaje batean "urte basatiak" zirela esan zuen. Informazioak, Durangaldean hamarkada horretan sortu ziren musika talde kopuru handian sakontzen du, eta garai hartako gazteria ze testuingurutan mugitzen zen deskribatzen du. "Esan daiteke 70eko hamarkada 80ko hamarkadan hasi zela Euskal Herrian [...] Hori guztia, biztanleria aktiboaren %25 langabeziaren zegoen gizarte batean gertatzen zen. Eta ehuneko hori bikotza zen gazteen artean. Eta hori gutxi balitz, heriotzak ere gure kaleak hartu zituen, heroinaren ondorioz, hamarkadaren lehenengo urteetan, batez ere".

"Kalean zer gertatzen zen ikusita, kultura babes-leku bilakatu zen". Esaera hori J. L. Bakedano zine zuzendariaarena da, eta Unai Iturriaga bertsolariak zuzendu zuen Durango 80 Herri Kultura¹² dokumentalean jasotzen da.

Bere gurutze-bidea zeharkatzen ari zen Gerediaga elkartea jakin-min gehieneko ideiei irtenbidea ematen lagundu zuen, ibilbide laburra izan arren Durangaldeko kultur bizitzan eragin handia izan zuten hainbat aldizkari babestuz, 'Ibaizabal', 'Txistu y tamboril' edo 'Mikeldi'. "Gogoratzen dut zapatu arratsaldetan elkartzten ginela Goienkalen zegoen Gerediagako pisuan... kopa batzuk haritu ostean", adierazten du Bakedanok aipatutako dokumentalean. Bilera haietan Ibaizabal aldizkariaren lehenengo zenbakiak prestatzen ziren. Aldizkaria bultzatzen zutenen artean Joseba Sarrionandia idazlea zegoen, eta helburua eskualdean gertatzen zenari buruzko informazioa ematea eta, aldi berean, bere interesetan sakontzeko gune bilakatzea zen.

¹¹ HERNANDEZ, J.A. *Los años salvajes*. Astola, 2 zk. Ikerketa eta Historia. Durangaldeko Urtekaria. (2008) Gerediaga Arg.

¹² *Durango 80 Herri Kultura*. Unai Iturriaga eta Bideografik (2011).



Gerediagako bulegoa Goienkaleko pisuan, Durangon 1986.

Durango erdialdeko kale horretako 12. zenbakian zegoen pisua Durangoko ordezkari-tzak erosi zuen, bazkide batzuen abalarekin, trantsizioaren lehenengo urteetan, elkar-tea hiriko kulturaren abangoardia gisa berrindartu gura zen garaian. Sabin Goikoleak adierazten duenez, jendearengandik Astola baino gertuago egongo zen leku bat bi-latzen zen, bilerak eta eguneroeko lana egiteko. "Diru askorik balio ez zuen zeozer gura genuen", adierazten du Gerediagako presidente ohiak. Hala ere, Gerediagaren egoerak aldaketak izan zituen denbora asko igaro orduko, eta ezin izan zion erronka horri aurre egin. Urte batzuk geroago, Gerediaga Elkartea hipoteka hari aurre egin behar izan zion.

1982 eta 1986 artean, eta Astolako auditorio etxeko egoitza ofizialeko obrak luza-tzen ari zirela ikusita, Goienkaleko pisua izan zen elkartearren egoitza administratiboa. Baino Goienkaleko pisuak ez zituen inoiz bulego bat jasotzeko behar ziren baldintzak izan. "Desastre hutsa zen", aitortzen du Lazaro Milikuak, garai hartan hezetasun han-diak zeudela gogoratuta. Lurreko egurra oso egoera txarrean zegoen, eta "altzari guztiek kaltzauta egon behar ziren". Argiztapen bakarra, bazkideek lan egiten zuten lekuetatik "berreskuratutako" flexo batzuk baino ez ziren.

1986an zorra berriro negoziatu zen Euskadiko Kutxarekin, eta 1,5 milioi pezetako mailegua eskatu zen, ordainketei aurre egiten jarraitu ahal izateko. Azkenean, Asto-lako obrak amaituta, Gerediagak higiezin hura saldu zuen, eskututako maileguaren balioaren truke. Horrela itxi zen Gerediagaren historiako kapitulu hori.



IRAGANEAN INDUSKATUZ

Lurrik bere sekretuak gordetzen ditu, eta Gerediaga Elkarreka, sortu zen une beretik, Durangoko Lur zaharraren misterioak ezagutzeko eta ezagutarazteko helburua adierazi zuen. Horrela, Iñaki Garcia Camino arkeologo gazteak bere begiak Oiz mendiaren hegaletara bideratu zituenean, elkarreka ez zuen zalantzarak izan, eta bere laguntza eskaini zion. "Gerediagak Durangaldearen atea zabaldu zizkigun", laburbiltzen du gaur egun Bilboko Arkeologia Museoaren zuzendaria denak. "Lasaitasunez eta berme osoz lan egiteko aukera eman zigun, ez beste leku batzuetan bezala", eskrten du.

Gerediagak zehazten duenez, Garcia Caminok diru-laguntza txiki bat lortu zuen, Amatzako San Martin baselizan indusketa lanak egiteko. Inguru horretan bi astetan aztarnak bilatzen aritu ostean, ez zen emaitza handirik lortu, eta arkeologoaren begiak, garai hartan "hondakindegia" baino ez zen Momoitioko San Juan auzora bideratu ziren.

Lizentziatu berria zen Garcia Camino bere tesia egiteko material bila ari zen, eta mila urte lehenago eskualdeko lehenengo herrixkak izan zirenen jatorria aztertzen ari zen, "elizatearen jatorria zehazteko eta duela mila urte baino gehiago espazioa okupatze-ko eta antolatzeko moduak, hau da, Bizkairen osaketa historikoa, ezagutzeko xedez".

Horrela adierazten du Garcia Caminok berak 'Momoitio. La formación de una aldea en las laderas del Oiz hace más de mil años'¹³ izeneko artikuluan.



Momoitioko San Juaneko arkeologo taldea aurkitutako hilariarekin, Garain 1984 .

Momoitioko San Joan Bataiatzailearen baselizaren inguruan eta barruan gauzatutako indusketa kanpainak 1982. eta 1985. urteen inguruan egin ziren. Nekropolian, Garcia Caminok zuzendutako taldeak¹⁴ 113 hilobi eta 102 ehorzketa aurkitu zituen, eta horietako batzuetan hainbat pertsonaren gorpuzkiak zeuden. Lurperatze kristauak ziren, baselizaren ingurunean edo barruan, baina hileta errito paganoen aztarnak be bazituzten¹⁵.

Katak, berez, "pixka bat itsu-itsuan" hasi ziren, Lazaro Milikua Gerediaga elkarteko kideak adierazten duenez. Bere fami-

¹³ GARCIA CAMINO, IÑAKI (2007). 'Momoitio. La formación de una aldea en las laderas del Oiz hace más de mil años'. Astola. Ikerketa eta historia. Durangaldeko Urtekaria. Gerediaga.


¹⁴ Talde horretako kide izan ziren irakaskuntzaren eta kulturaren hainbat alorretan gaur egun ospe handia duten pertsonak, Armando Llamosas eta Dona Gil, Alberto Santana, Maite Jimenez, Ana Mugurruza, Josu Etxegibel, Feli Lorenzo edo Amaia Basterretxea. Azken hori izan zen Garcia Camino Gerediagako kideekin harremanetan jarri zuena.

¹⁵ Lauza askok landutako zulo txikiak erakusten zituzten, sua erabiliz hileta errituak egiteko, adibidez.

liaren lurretan, azterzaileek Erdi Aroko laborantzan terrazak eraikitzeari buruzko ikerketa berritzaleak egin zituzten. Udalak lagatako biltegiari eta arkeologo taldearen borondate handiari esker, Euskal Herriko eta Europako Erdi Aroko arkeologian erreferentziazko lan bilakatuko zena gauzatu ahal izan zen¹⁶. Horrela, sarritan, arkeologiarekin zerikusirik ez zuten pertsonek be laguntza handia ematen zuten industketa lanetan, eta hori, ikerketen txostenetan eta historialko liburuetan agertzen ez diren xehetasunetan islatzen da: "Zenbat zopa plater prestatuko ote zuen nire amak Momoitioko arkeologoentzat!", gogoratzen du Itziar Irazabal lurretako baziideak.

"Tajo" hura lan komunalaren eredu bilakatu zen. Industketa lanak hasi aurretik, guztiz bertan behera utzita zeuden baselizaren eta ingurunearen kontserbazio lanak Gerediagako baziideak eta zenbait aditu elkartu zituen, Foru Aldundiko Ondarearen Zuzendaritzako eta Deiker institutuko kide zen Aingeru Zabala, adibidez, Lazaro Miliukak, garai hartan Garaiko udal idazkari eta Gerediagako idazkari zenak. Horregatik, lanak hasi ostean, modu paraleloan, multzoa berreskuratzeko lanak¹⁷ hasi ziren.

Harreman horren ezaugarrietako bat, ikerketa lanak jendearengana zein arin helarazten ziren izan zen. Horrela, 1986an, arrakastaz betetako erakusketa egin zen Kalebarriako liburutegi zaharrean. Bertan Momotiotik ateratako aztarnak eta Durangoko Arte eta Historia Museoak lagatako beste batzuk erakutsi ziren, eta ehorzketa bat berreraiki egin zen¹⁸.



Memaiako inskripzio harria, Elorriion. Astola urtekaria.



Momoitioko San Juaneko hilerra berreraikinaren aurkezpena, Garain 2009. Txelu Angoitia.


¹⁶ Iñaki García Camino doktoreak, industketa lan haien zuzendariak, 'Arqueología y poblamiento en Bizkaia, siglos VI -XII: la configuración de la sociedad feudal' izeneko tesi argitaratu zuen 2002an.

¹⁷ Lehenengo prospekzioen ostean, Garaiko Udalak hamabost bat gazte kontratatu zituen ingurua egokitzeko. "Krisia izugarria zen, eta Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako laguntzak eman zizkigun", gogoratzen du Miliukak. Gaur egun baseliza inguratzen duen atseden leku eta hura inguratzen duen horma lan haren ondorio dira. "Harria Oiztik ateratzen zen, Arriandin apurtzen zen mazoekin eta goraino eramatzen zen, bere lekuan jartzeko. Lan horren ostean, ia gazte guztiek eraikuntzan hasi ziren lanean", gehitzen du Miliukak.

¹⁸ García Caminok uste du gaur egun Bilboko Arkeologia Museoan erakusten den errekreazio bera dela.



Momoitiko San Juaneko baseliza, Garain 2010. *Txelu Angoitia, Astola urtekaria 2010.*



Vicente Zabala S.J. Tabirako kondeen buru-hezurrekin, Durangon 1988.

2009an amaiera eman zitzaien baselizaren eta bere nekropolaren zaharberri-tze lanei. 80ko hamarkadaren hasieran aurkitutako hilarriak eta hileta-inskripzioak erreproduzitu egin ziren. Bernat Vidal harri artisaua, Gerediagako bazkidea, izan zen lan horien egilea.

Ikerketa historikoari emandako laguntza ez zen Momotioko indusketa lanetara mugatu, handik aurrera etengabeko jarduera bilakatu zen. Batzuetan laguntza lana egin zuen, eta beste batzuetan lotta lana, baina Gerediagak oso lan garrantzitsua egin zuen “abadeen arkeologiatik”¹⁹ profesionalen arkeologialara igarotzeko egindako bidean.

Horrela, 90eko hamarkadan Etxebarriako San Agustin elizari eta bertan gordetzen ziren aztarnei²⁰ buruz egin zen azterlana, parte handi batean, Gerediagak, han egin beharrekoak, hasieran aurreikusi zen moduan garbiketa eta hezetasunak kentzeko lanera ez mugatzeko egin zuen eskariari esker egin zen. Geroago, Mendrakan egindako ikerketei be laguntza eman zien. Bertako nekropolian, arkeologoek alde nabarmenak aurkitu zituzten, Momotioko aztarnekin alderatuz gero.

Urteetan zehar, neurri batean edo bestean, Gerediaga Elkartearren laguntza izan dute, Amaia Basterretxeak, Dona Gilek, Armando Llamosasek, Belen Ben-goetxeak, Silvia Cajigasek, Iñaki Peredak eta Durangoko Lurrean lan egiten duten beste profesional batzuek aurrera eroandako ikerketa lanek.

¹⁹ Adierazpen horrekin deskribatzen du Garcia Caminok 80ko hamarkadara arte arkeologia indusketetan Euskadin egiten zen lana. Horren aitzindariak Jose Miguel Barandiaran edo Apellaniz bezalako erlijio-gizonak izan ziren.

²⁰ Ikusi ‘Burua moztutako kondesa’ kapituluoa.



Untzillatx eta Astxiki mendiak.

URKIOLAKO PARKE NATURALAREN ERAKETA PROZESA

Durangaldeko tontor harkaitzuak, haien azpian dauden haranen irudiaren eta nor-tasunaren parte dira. Harkaitz handi horiek baldintzatu egin dituzte bertako jendearen bizitzeko moduak eta bertako natura. 1979an dagoeneko, Merinalde Egunean, Gerediaga Elkartea Urkiolako Parke Naturala sortzeko ideiaren aldeko adierazpena egin zuen denen aurrean, mendikatea eta Urkiola inguruneko arlo zabal bateko balio naturalak babesteko²¹, eta buru belarri jardun zuen ideia hori errealitate bilakatuta ikusteko.

1981eko urtarrilaren 30ean, Gerediaga Elkarteko kideek, Eusko Jaurlaritzak gai horri buruz berba egiteko deitu zuen bileran hartu zuten parte. Hiru urte geroago, administrazioak parkerako zituen planak aurkeztu zituenean, lehenengo desadostasunak sortu ziren. Hainbat talderen iritziz, Gerediaga Elkartearena, besteak beste, ezarritako mugak estuegiak ziren babestutako arlorako. Euren ustez trazatua arbitrarioa zen, eta inguru horretan dauden kare-harrizko harrobien interesei erantzuten zien. Harria ateratzeko jardueraren eragina leuntzeko gune bat be ez zen ezarri, antzeko beste gune batzuetan egiten den moduan, "ez zegoelako horretarako lekurik".

Eusko Jaurlaritzak, Arangio mendiaren tontorrean telekomunikazio antena bat ezar-tea planteatu zuen, Barne Saileko zerbitzuek erabili zezaten. Ideia horrek mendizale eta naturalista talde askoren oposizioa eragin zuen, eta baita Aramaioko, Otxandioko eta inguruko beste herri batzuetako biztanle askorena be. Administrazioak, antena jartzearen abantailen artean, inguruko baserrietako eta etxebizitzetako telebista ➤



Urkiolari buruzko
lehen bilerara gonbitea,
1979.

21 Ikusi 'Eskualde kontzientzia' kapitulua, 48. orrialdea.



"Mañaria Bizirik" mendi festaren kartela, 2004.



Urkiola 1987an.

azaltzen zuen, emandako pausoak, mehatxuak, eta elkartearren iritziz eman behar ziren pausoak.

1986. urtean hasi zen, baita ere, Atxarteko harrobiei buruzko gatazka. Gerediaga Elkartea guztiz implikatu zen, eta horren ondorioz, elkarteko kide bat epaitegien aurrera joan zen²². Abadiñoko udalak Atxarteko eta Atxa Txikiko harrobiei gune publikoan harria ateratzeko emandako emakida amaitzean zegoen. Epe horren berri izanda, hainbat taldek, euren artean Gerediaga Elkartea, emakida ez berriztatzea eta harrobien gunea berreskuratzea eskatu zuten, baina ez zuten arrakastariak lortu²³.

Urkiolari dagokionez, 1989ko abenduaren 29an parke natural izendapena eman zi-tzaion Gerediaga Elkartea gura zuena baino gune txikiagoari.



Harrobien aurka Urkiola
Aldeko Batzordeak
ateratakotxapa, 1991.
Atxarte Bizirik elkartea.

seinalea hobetu egingo zela adierazi zuen eta, gainera, ezinbestekoa zela Bizkaiko eta Arabako inguru horretan larrialdi plan eraginkorra ezarri ahal izateko. Aramaion eztabaida saio bat antolatu zen Eusko Jaurlaritzako teknikarien eta oposizioaren artean. Bileraren moderatzalea Mariano Ferrer kazetaria izan zen. Azkenean, ez zen antenariak jarri tontor horretan.

Urte bi geroago Bizkaiko Foru Aldundia izan zen "Hijos de León Amantegui" harrobien inguruetatik abiatuz, Iñungaineko lepoa tunel baten bitartez zeharkatu eta Dimara helduko zen errepide baten bitartez Mañaria eta Dima lotzeko proiektuaren berri eman zueña. Proiektu horrek be ez zuen aurrera egin, zorionez, Gerediaga Elkartearen iritziz. Bere ustez, errepide horrek arrisku larria sortu zezakeen parkeko animalien artean eta, gainera, kostu handiegia zuen, aurreikusitako trafikoa kontuan izanda.

Urte horretan bertan, Gerediaga Elkartea monografiko bat eskaini zion Urkiolako Parke Naturalari, gizartean gune horren inguruian sortzen ziren arriskuei buruzko sensibilitatea sortzeko asmoz. Argitalpenak, ideiak hasiera-hasieratik izan zuen garapena

²² Gai horretan aurrerago sakonduko da, ikusi 95. orrialdea.

²³ Abadiñoko Udalak hainbat osoko bilkuran landu zituen errentamendu kontratuaren xehetasunak, empresek kontratuaren luzapenerako eskubidea zuten ala 1986an kontrata behin betiko amaitzen zen erabakitzeko. Azkenean, PNV-EAJ alderdiak bere nagusitasuna ezarri zuen Udaleko osoko bilkuran, eta Atxarte eta Atxa Txiki harrobien beste lau urteko luzapena ematea erabaki zuen.



Gerediagako Batzar Nagusia, Gerediagako baselizan 1986.

BERRIRO HASI

Antton Mari Aldekoa-Otalorak 1979ko urtarrilean sinatutako bertso horiek, 1986ko maiatzaren 18an Gerediaga Elkarteko Zuzendaritz Taldeak, Gerediagako San Salbatore baselizan egindako Asanblada Nagusian bere baziideen aurrean aurkeztu zuen txosten zabalaen aurretik doaz. Zazpi urtetan baziide guztiak deitzen ziren lehen aldia zen. Testuak erakusten duen galera sentimendua, asanblada hartan adierazi zenarekin kontrajarrita dago. Bertan “berriro hastea” erabaki zen. Hasiera haren helburua Gerediagatik kanporatutako baziide gutxi haien memoria birgaitzea zen, 70eko hamarkadaren lehenengo urteetan hartutako erabakia balio barik utziz²⁴.

Ez zen erraza izan asanbladan parte hartzera deitutako pertsona guztiak aurkitzea, paperak galdua edo eguneratu barik zeudelako. “Egin behar izan nuen lehenengo lanetako bat baziideak bilatzea izan zen”, esaten du 1979an elkarteko artxibozaina izan zen Jon Irazabalek. Irazabal artxibategian zeuden zerrenda zaharretan eta aurkitu ahal izan zireneng testigantzetan oinarritu zen fitxa berriak egiteko eta aspaldiko baziideak eta sartu berriak elkartu ahal izateko. ➤

**Gerediaga
“Gerija”
lehen
Herria
herriak...
egun
Harriak
sinbolismo trixte
batean
oroitzen digute
arbasoen bizinahi
gorria
eta gaurko
oroit-garri
urria.
Harria**

24 Ikusi 2. kapitulua.



Gerediagako foru gunea gaur egun. *Txelu Angoitia*.



Euskal Jaien kartela,
Durangon 1986.

Asanbladaren gidaria Antton Mari Aldekoia-Otalora izan zen, aukeratutako presidenteak, Sabin Goikoleak, bere kargua urte bi lehenago utzi zuelako. Asanbladak, beste gauza batzuen artean, Gerediaga Elkarteko zuzendaritzaz taldearen²⁵ osaketa berria ofizial egiteko balio izan zuen. Aldekoia-Otalorak berak onartu zuenez, "beharbada zuzenena, aurretik ordezkaritza bakoitzean bilerak egitea izango zen", baina aitoritu behar da aurreko ordezkaritza modua ez zela funtzionala garai hartan. "Elkartearren zuzendaritzan geundenenak nahiko lan izan genuen une batzuetan elkartearren izenari eustearekin be", adierazi zuen.

Esaldi horrekin, Gerediaga Elkarteko presidente moduan urte gehien eman dituen pertsonak, Zuzendaritza Taldeak elkartea desegiteko jaso zituen presioak aipatzen ditu, udal korporazio eta lurraldoko erakunde berrirentzat deserosoa izaten hasia zelako. Zuzendaritza taldea alderdien eta elkartearren gaiak bereizteko kontu handiz ibiltzen zen arren, Gerediaga Elkarrean ezker abertzalearen postulatuarekin²⁶ identifikatzen zuten, eta horrek arazoak ekarri zizkion.

²⁵ Berretsi egin zen Antton Mari Aldekoia-Otalorak, Lazaro Miliukak, Jesus Mari Salterainek, Jose Luis Letek, Mirari Erdoi-zak eta Amaia Eguzkitzak osatutako Zuzendaritza Taldea eta Jon Irazabalekin zegoen lan harremana. 13 kidek osatuko zuten eta lau urteko epealdietan lan egingo zuen Zuzendaritza Taldea osatzea erabaki zen. Gobernu organoetan lotura faltak sahesteko, Zuzendaritza Taldearen erdia bi urtez behin aldaturiko zen. Zuzendaritza Taldeko aldaketa horiek Abenduko Batzarrerako aurreikusten ziren hauteskundeetan izango zuten eragina.

²⁶ Aldekoia-Otalora bera HB-ko zinegotzi izan zen Durango-Iurretako Udalean.

"Behin baino gehiagotan iruditu zitzai-dan Gerediagak traba egiten zuela", baiezatzen du Lazaro Milikuak. Uste hori Gerediagako zuzendaritza osoan zegoen zabalduta, elkartearren susta-tzaileetako batzuen ahotik elkartea jada bere eginbeharra egina zuela eta hobea zela bertan behera uztea entzun zutelako. "Nire kasuan, oraindik bazuela zer esanik uste nuen, eta egia esan zu-zendaritza taldeko kide ohi batzuek giro txarra sortu zuten, beste indar batzuk hazten ari zirelako... baina, beno, jarrai-tu egin genuen", zehazten du Antton Mari Aldekoa-Otalorak²⁷.

Hala ere, aurrera jarraitzeko behin betiko erabakia 1984ko udaberriko bariku batean hartu zen, mahai baten inguruau, Getarian. Taldearen lehenengo helburua elkartea sendotzea zen. Esku ugari zituzten²⁸ eta, oraindik nahikoa ez izan arren, baliabide materialak gero eta gehiago ziren. Hala ere, epe laburreko eta ertaineko itxaropenak ilusioa pizten hasten ziren taldean.

Astolako Auditorio Etxearen lanak las-ter bukatu behar ziren, denbora gutxi barru Euskal Jaiak ospatu behar ziren

Durangon, Durangoko Udalarekin lan-kidetzan, Gerediaga Elkartea gero eta lankidetza handiagoa zuen ikerketa his-torikoan eta arkeologikoan adituekin... Gerediaga Elkartea, bere ohiko jarduerei, hazteko bide berriak eta interesgarriak gehitzen zitzaizkiela ikusten ari zen. 1986ko Asanblada Nagusiak helburu horiek berretsi zituen, eta elkartea etapa berrirako prestatu zen.



Gerediaga Elkartea 25. urteurreneko ospakizunak, Astolan eta Goiuriko erretegian, 1990. *Iñaki Irazabal*.

²⁷ Hala ere, dena ez zen zuria edo beltza. Batzuetan, laguntzak uste gabeko lekuetatik etorri ziren. "Hauek bizardunak dira, baina ez dute ez adarrak ezta buztanik", esan zuen behin Garaiko alkateak, Aldekoa-Otalorak adierazten duenez. "Antton Mariak oso garai zailletan izan zuen zuzendaritzaren ardura, eta sektarismoan jausi barik egin zuen", aitortzen du Jose Luis Lizundiak.

²⁸ Zuzendaritza Taldea hauek baino ez zuten osatzen: Antton Mari Aldekoa-Otalora Zamalloa, presidenteordea, pre-sidente eginbeharrekin, Lazaro Milikua Atutxa idazkarria, Jesus Mari Salterain Bediaga diruzaina eta Jose Luis Lete Birixinaga, "akulari" gisa. Azken horren esanetara egiten zuen Ian Jon Irazabal Agirrek. Izen horiei, jarduera batzuetan laguntzen zuten baxkide gutxi gehitu behar zitzaizkien, Jose Antonio Azkorbebeitia, Mirari Erdoiza, Amaia Eguzkitza edo Jose Mari Uriarte. Gerediagaren izarea irekiaren eta "familiaorearen" erakusgarri, esan daiteke azken horiek Zuzendaritza Taldeko eztabaidetan hartzen zutela parte, bertako kide izan barik.



I. Euskarazko Liburu eta Disko Azokako sarrera hitzaldia, Durangon 1986.

EUSKAL JAIAK

1984. urtearen amaieran, Gerediaga Elkartea buru belarri murgildu zen Durangoko Euskal Jaien mendeurrenaren antolakuntzan. Elkartea, Durangoko Udalak, mende bat lehenago, euskal hizkuntzari eta kulturari buruz egin ziren hiru egunen ospakizun ekitaldiatarako antolatu zuen kontseiluko kide izan zen, Jesus Mari Salterain ordezkariaren bitartez. Durangok modu handian ospatu gura zuen mendeurren hori, eta urtarilaren 1etik abenduaren 31ra luzatzen zen ekitaldi egutegia antolatu zuen.

Bi urtez, batzordea astero elkartu zen, ekitaldiak ondo prestatzeko, Jose Andres Etxebarria²⁹ batzordearen idazkariak bere txostenean adierazten duenez. Ekitaldi-tako batzuk jende asko eta asko elkartu zituzten, dantza erakustaldiak, euskal musika kontzertuak edo bertsolari saioak. Musika klasikoa, herri-kirolak, antzerkia eta dantza, txistulariak, mendietara irteerak... 1986. urtea, elkartetatik eta erakundeetatik euskarakaren eta euskal kulturaren alde egiten ari zen berreskuratze lanaren erakustaldi bikaina izan zen.



I. Euskarazko Liburu eta Disko Azokaren kartela, 1986.

Aukera horretaz baliatuz, Gerediaga Elkartea, euskaraz egindako kultur ekoizpenari bakarrik zuzendutako lehenengo azoka ospatu zuen. Antton Mari Aldekoa-Otalorak adierazten duenez, elkarteko zuzendaritzaren aspaldiko asmoa zen, abenduko azoka "euskar gaiei buruzkoa zelako, euskalduna baino gehiago", eta elkartea euskaraz egindako kultur ekoizpena azpimarratu gura zuen. Inaugurazio ekitaldiaren buru, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Bizkaiko ordezkari gisa, aurretik Gerediaga Elkarteko presidente izandako Balendin Lasuen izan zen³⁰.

Programa horren barruan, urrian, Gerediagak Erdi Aroa Durangaldean gaiari buruzko erakusketa antolatu zuen. Erakusketa Kalebarrian zegoen udal liburutegi zaharrean egin zen, eta arrakasta handia lortu zuen. "1.805 pertsona helduk" bisitatu zuten, Etxebarriaren txostenak erakusten duenez; eta horiei, ikastetxe askotatik etorritako ikasle asko eta asko gehitu behar zitzaizkien. Arrakastaren erakusgarri moduan, esan behar da erakusketa urriko hilabete osora zabaldu zela, lehenengo hamabostaldian amaitzea aurreikusita zegoen arren.

Erakusketan, eskualdeko hainbat lekutan aurkitutako hilarriak erakutsi ziren, eta baita Merinaldeko elizetan jasotako garai historiko hartako elementuak be, Etxebarriako San Agustingo kuxeta-erlikiategia, besteak beste. Bertan erakusten ziren

29 ETXEBARRIA, Jose Andres (1987). *Durangoko Euskal Jaiak (1886-1986)* Durangoko Udala.

30 Egungo ohorezko presidentea.

testuak eta azalpenak jasotzen zituen Iñaki Garcia Caminoren liburuxka batek osatu zuen erakusketa.

Beste erakusketa batzuk

Gerediaga Elkartea aurretik be hasia zuen ondarearen hedapenerako lana, beste erakusketa batzuen bitartez. 1983ko martxoan, adibidez, euskal jantziei buruzko erakusketa antolatu zuen Ezkurdiko Udal Kultur Aretoetan, hainbat euskal dantz talderen eta Bizkai taldearen eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren laguntzarekin. Era-kusketa osatzeko, Karme Goñik hitzaldia eman zuen martxoaren 24an.

Urte bereko maiatzean Durangaldeko Andra Mariei buruzko erakusketa aurkeztu zen, Euskadiko Kutxak Durangoko Fray Juan de Zumarraga kaleko sukursalari itsatsita zeukan erakusketa aretoan. Lehenengo erakusketa horretan, inguru honetan Ama Birjinari buruz zeuden ia irudi guztiak erakutsi ziren. Durangoko Merinaldeko hainbat baselizatan eta elizatan jasotako hogei irudi erakutsi ziren, eta baita aretoara eraman ezin zirenen argazkiak be. Horrez gain, irudi berezi horien ezaugarriei buruzko azalpen liburuxka bat be argitaratu zen.

1983ko bigarren seihibilekoan, Iurreta San Migel jaien inguruan antolatutako Ezpatadantzari Eguna zela eta, dantzari-dantza izenekoari buruzko erakusketa instalatu zen abade-etxearen lurretako taldeek erabiltzen zitzuten lokaletan. Bertan, dantza horiek erlazionatutako jantziak, argazkiak, banderak eta beste elementu batzuk erakutsi ziren.



“Durangaldea Erdi Aroan” erakusketa, Durangon 1986. *J. M. Uriarte*.



Sarkofagoa eta
Durangoko kondeen
gorpuzkinak,
San Agustin Etxebarri.
*Txelu Angoitia eta
Pablo Garitaonaindia,*
Astola urtekaria,
2012.



BURUA MOZTUTAKO KONDESA

1988an, Doña Leguncia Durangoko kondesak burua galdu zuen, Durangaldeko hainbat lekutan zeuden baselizetan izandako profanazio eta arpitlatze boladaren ondorioz. Konderri zaharreko anderearena omen den momiak atseden hartzen zuen bere "correspondiente sepulcro de la iglesia de San Agustín de Echevarría en Elorrio (Bizkaia)"³¹ lekuan, baten batek bere atsedena apurtu eta burua eroan zuen arte. Gertakari horren ostean, bere gorputik geratzen zena eta, dirudinez bere senarrarena, Don Munio Sanchezena, zen gorpua, Bilboko Arkeología Museora eraman ziren³².

Lapurretak ez ziren ezustean gertatu³³. Izan ere, Gerediaga Elkartea behin baino gehiagotan esana zien agintariei baseliza horiek eta kulturaren aldetik interesa zuten beste eraikin eta leku batzuk bertan behera utzita zeudela. "En 1973, la sección Askondo de Gerediaga había elaborado una lista que recogía lo que en aquel momento se consideraban elementos y conjuntos de interés, lista que fue remitida a las autoridades"

³¹ ETXEARRIA, Francisco eta beste batzuk. (1994. Donostial). *Antropología, historia y creencias populares en torno a las momias conservadas en el País Vasco*. Cuadernos de Sección. Ciencias médicas. Eusko Ikaskuntza.

³² Bilboko Euskal Historia Museora eroan eta bertan garbitu eta behar bezala zaindu zituzten, eta 2000ko ekainaren 8an Etxebarriako San Agustingo arkuean zegoen San Martín eta Santa Marina kaperetako sarkofagoetara eroan ziren berriro.

³³ Elementuak lapurtu ziren urretako Amatzako San Martín edo Orozketak Santiago baselizetan, Abadiñoko Mendiolako San Kristobalenean, Elorrioko Aldapeko Santiago eta Gerediagako San Salvatoren. Horrez gain, beste gertakari batzuk be izan ziren, urretako Orozketak Santiago baselizaren lurreratzea, etab.

jasotzen du Jon Irazabalek "Patrimonio en Peligro"³⁴ izeneko artikuluan. 1979an, berriro be, Gerediaga Elkarreak idazkiak aurkeztu zituen Udal sortu berrieta, Durangoko Vera Cruz eta Muruetatorre baselizena, Izurtza Etxaburutorre baselizaren edo lurretako Goiuria auzokoaren etorkizunari buruzko interesa erakutsiz. Eta 1983an, Gerediaga aldizkariak, bere hirugarren etapan, ale monografikoak eskaini zion ondare monumentalari, "Durango Merinaldeko ondare artistikoak galtze arriskuan" izenburuean.

Alor horretan, Etxebarriako San Agustin ingurunea izan da Gerediaga Elkarrearen parte-hartze garrantzitsuena jaso duen lekuetako bat. Elkarreak asko baloratu izan du beti erakundeen aldetik bertan behera utzitako gune horren aberastasun kulturala eta eskualdearen iragan historikoarekin duen lotura handia. Elizaren egoera negarria, arkupearen erorketa, kondesaren momiaren buruaren lapurreta, nekropolia eta arkueetan azaleratutako erdi aroko aztarnak ia galtzera eraman zuten lanetan egindako akatsak... Horiek guztiak gatazkak sortu zituzten Gerediaga Elkarrearen eta Elorrioko Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean.

Ondarearen kontserbazioak defendatziale sutsu bat izan zuen, Jon Irazabal. Garai hartan Gerediagako presidente zen Antton Mari Aldekoa-Otalorak gogoratzen duenez, "Seguruenez bera zen gai horien inguruan ardura gehien zuena, lehendik be interesua, egon bazegoen arren. Berak egiten zituen proposamen gehienak, eta gai batzuk oso serio hartzen zituen". Hain serio hartzen zituenez, batzuetan taldeko gainerako kideek parte hartu behar izaten zuten, egoera salbatzeko, Lazaro Milikuak adierazten duen moduan.

Zorionez, garaipenak be lortu ziren. Irazabal berak egiten duen zerrenda luzea da: Interes arkeologikoa duten haitzuloen kontserbazioa, Abadiñoko Bolinkoba, adibidez, Izurtza-Etxaburu dorrearen, Abadiñoko Larringaingo errotaren eta Muntzaratzeko dorrearen zaharberritze lanak, Ertzilleko arnaga eta Goikola jauregia lurretan, Muruetatorre, Kurutzesantua, Miota hotelaren fatxada eta Ezkurdi aurreko gainerako eraikinak Durangon, Etxebarriako San Agustingo larrialdietako esku-hartze arkeologikoak, Tabirako San Pedro, Mikeldiko San Bizente, Garaiko San Miguel Goiaingerua, etab.

Ez ziren eraikinak defendatu beharreko ondarea osatzen zuten bakarrak. 1983an Gerediaga Durangaldeko udaletara zuzendu zen, udal artxibategien egoera zela eta bere ardura erakutsiz, inolako katalogazio barik eta ikerlariantzat itxita, oso egoera txarrean, bertan behera utzita, xiologoen, karraskarien eta hautsaren menpe.



Muntzaratzko dorrearen zaharberritze lanak itxaroten, Abadiñon 80.eko hamarkadan. *J.M. Uriarte*.




Etxaburu dorrea, Izurtzan 40.eko hamarkadan. *Foto German*.

³⁴ IRAZABAL AGIRRE, Jon. (2011) *Patrimonio en peligro*. Astola ikerketa eta historia Durangaldeko Urtekaria.



Foto German denda Ezkurdin, Durangon 80.eko hamarkadan. J.M. Uriarte.



"Durangoko Plateruak",
Aldekoia-Otalora
Zamalloa, Antton Mari,
1984.

KONTATU AHAL IZATEKO IKERTU

Durangaldearen ondare historikoaren eta artistikoaren ikerketak eta hedapenak garrantzi berezia hartu zuen trantsizio garai hartan Gerediaga Elkartea-rentzat, eta hurrengo urteetan bere nortasun zeinuetako bat bilakatu zen.

Eskualdearen iraganari buruzko ezagutzak zabaltzeko erabilitako baliabideak anitzak izan ziren, eta sarri askotan, euren ahaleginean ekin eta ekin aritzen direnek izan ohi duten zortea ere alde izan

zuten. Zorteari esker, neurri handian, 1983an Gerediaga Elkartea Durangoko "Foto German" establezimenduko argazki artxiboaren parte bat berreskuratu zuen, hondakinen edukiontzi batera botatzen ari zela. Urtebete geroago, Gerediagak Esteban Bilbao politikari frankistaren hainbat material be berreskuratu zituen eta, 1986an, Astolako Auditorioan egindako epaiketei buruzko XVII. eta XVIII. mendeetako dokumentu prozesalak.

Dokumentu haien, bazkideek egindako ekarpenekin³⁵ eta sortu berria zen tokiko prentsaren artikuluekin batera, Durango Merinaldeko Dokumentategia izenekoaren sorburua izan ziren. Erakunde horren helburua Durangoko Merinalde zaharrari buruzko dokumentazioa biltzea zen, edozein euskarritan, gai bat edo besteari buruzkoa bazeen ere.

Baina iraganaren ezagutza ezin zen zortearen menpe utzi. Horregatik, 1983an, Gerediaga Elkartea, 100.000 pezeta banatzten zituen ikerketa historikoari buruzko "Iturri-za Saria" deitu zuen. Saria Agustín Azkaratek irabazi zuen, "Elementos de arqueología cristiana en la Vizcaya altomedieval. El Duranguesado, umbral de la aculturación y cristianización del suelo Vizcaíno" lanarekin.

Artxibo zaharretan egindako ikerketa lanak, argitaratu gabeko ezusteak ekarri zituen, Gerediagako artxibozainak lurretako parroquia-etxeko paperen artean aurkitu zituen euskarazko sermoiak adibidez. 1985ean argitaratu ziren, 'Durangoko euskeraz 4 sermoi'³⁶ izenburupean. Halaber, "Durangoko Plateruei" buruz berba egiten zuten testuak be bildu zituen. XVIII. mendeko analisi bi ziren, eta metala lantzeaz gain, 1984an

³⁵ 1986tik aurrera, Gerediaga Elkarteko kideek eta gertukoek material eta funts asko eroan zituzten Astolara, Durangoko "La perfección del obrero", Elorrioko "Urkizu-Zorrillatarren" familiako dokumentuak, "Sociedad de seguros mutuos contra incendios de Yurreta" izenekoari zegozkionak, etab.

³⁶ Testu horiek Iñaki Aramaioak eta Joseba Sarrionandia transkribatu zituzten Herrera de la Manchako presondegiak.

Antton Mari Aldekoa-Otalorak liburutxo batean bildu zituen euskaraz idatzitako ber-tsoak eta koplak utzi zitzuten³⁷.

Horrela ekin zitzaison berriro Gerediaga Elkartearen argitalpen lanari. Horren aurre-tik, 1983an, aurreko urtean, XVII. Euskal Liburu eta Disko Azokan deitutako idazketa lehiaketan saritutako ipuinak argitaratu zituen. Hala ere, Gerediaga aldizkariari berriro ekiteko helburuak ez zuen aurrera egin ahal izan. 1983 eta 1986 artean lau zenbakia argitaratu ostean, aldizkakotasun finkoarekin argitaratzeko baliabide ekonomikorik eta giza baliabiderik ez zegoela ikusi zuen elkarreka.

1984ko martxoan, hitzaldi ziklo baten barruan, Durangoko Euskadiko Kutxako kultur aretoan hainbat pertsonaia garrantzitsu aritu izan ziren, Emiliano Fernandez de Pinedo, Jose A. Fernandez de Lombera, edo Manuel Tuñon de Lara. Hurrengo hilabetean, eta Alfredo Baeschlin arkitekto suitzarrari egindako omenaldi ekitaldien barruan, arkitekturari buruzko beste hitzaldi bi antolatu ziren. Aukera horretaz baliatuz, es-kualdearen iraganean sakondu zen. Horrela, 1983an, Iparragirreren irudia gogoratu zen Urkiola gainean, hori izan zelako ‘Gernikako Arbola’ eresekiaren bertsoak lehen aldiz entzun ziren lekuetako bat.



Idazlan lehiaketa XVII. Euskal Liburu eta Disko Azokan, Durango 1982.



Gontzal Mendibil Iparragirre pertsonaia antzezten, Urkiolan 2004.

³⁷ ALDEKOA-OTALORA, Antton Mari (1984). *Durangoko Plateruak*. Gerediaga Elkartea.

4

EMAN DIEZAGUN ETORKIZUNA HARITZARI

- 87 Etaparik luzeena
- 90 Gerediagaren altxorra
- 92 Gero eta bilduma handiagoa
- 95 Atxarte hamaka gainera igo da
- 98 Omenaldiak eta efemerideak
- 101 Iragana defendatuz
- 103 "Inork ez daki ezer Durangoko
 bonbardaketari buruz"
- 105 Italiarrak izan ziren!
- 108 Berriro gertatu ez dadin
- 112 Etapa berria Merinalde
 Egunarentzat
- 114 Teilatu beraren azpian
- 116 Zubiaurretarren itzulera

«Pena eta gogortasun handian umeak altxatu arren, ondorengo aberatsa zeukala ondorioztatu zuen»

Zeruetako Erresuma, 2005


Itxaro Borda

ETAPARIK LUZEENA

Gerediaga comienza con esta junta¹ una nueva etapa en la que los principales objetivos son tratar de llenar el vacío cultural existente en la comarca. Según José Luis Lete, portavoz de la asociación, "gran parte de lo que se organiza en la zona pasa sin más trascendencia. Una alternativa podría ser la edición de publicaciones sobre estos actos; es una forma de que quede constancia de lo organizado".

Raúl Gorroño kazetarien artikuluaren² laburpen horrek agerian uzten du Gerediaga Elkarteak bere etapa berriari zelango indarrez ekin gura zion. Urte horretan bertan hil zen Letek aipatzen zituen argitalpenak ez ziren izango zuzendaritza taldea osatu ondorengo jardunaren ezaugarri nagusia. Ondare historikoaren, kulturalaren eta naturalaren defentsak, antolatutako jarduera gehienek baino titular gehiago lortu zituzten Gerediaga Elkartearrentzat, hurrengo hamarkadan kulturaren eta gizartearren ikuspegiatik oso oihartzun handia lortu zuen Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaz gain, jakina.

1987. urtearen erdialdean, Astolako auditorio etxearen zegoen elkartearren egoitzaren inaugurazioarekin, Gerediaga Elkarteak, bere jarduera guztiak bideratu, eta gero eta handiagoa zen dokumentuen artxibategia gorde ahal izateko leku propioa be irabazi zuen. Dokumentuen artxibategi horri buruz aurrerago egingo dugu berba. ➤



III. Euskal Liburu eta Disko Azokaren karta, Durangon 1988.

¹ Artikulan aipatzen den zuzendaritza taldeko kideak hauek ziren: Iñaki Barañano, Miren Bihotza Erzilla, Javi Zurikarai, Amaya Eguzkitza, Ander Erzilla, José Luis Ferrería, José Antonio Azkorbebeitia eta F. Javier Ruiz de Azua, aurreko asanbladatik zetozenean bostei gehitutakoak: José Luis Lete, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Jesús Mari Salterain, Lázaro Milikua eta Eskarne Aroma.

² El Correo egunkaria argitaratua 1987/1/5ean.



Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka, 1988.

Beste garai batzuetan gatazka bat baino gehiago sortu zuen euskara, Gerediaga Elkarteko lanerako hizkuntza eta “zeharkako elementu” gisa finkatu zen elkartearren eguneroko jardunean, Jon Irazabalen berbetan. Horrez gain, Antton Mari Aldekoa-Otalora presidentearren berbetan, euskal kulturan eta euskalduntzean “bosgarren martxa jaritzeko” zenbait jarduera ere jarri ziren martxan.

Horrela, 1986. eta 1988. urteen artean, Gerediaga Elkartea hiru euskalazko liburu eta disco azoka antolatu zituen³. Baino bere lana haratago joan zen, bertako euskaranen toponimiaren edo berezitasunen ikerketari eman beharreko bultzadatik, hainbat hitzaldiren edo argitalpenen bitartez Durangaldeko edo euren lana eskualde horretan egindako hainbat euskaltzaleren⁴ biziari eta lanari buruzko hedapenera. Horrez gain, Gerediaga Elkartea urte horietan euskaraz idatzitako hainbat lan⁵ argitaratu zituen, eta 1986an Durangoko Euskal Jaien⁶ eta 1991n lurretako mendeurrenen edo 1996an Durangoko “Lenengo euskalegungen” 75. urteurrenaren antolakuntza lanetan hartu zuen parte.

³ Ikusi 2015. urte honetan Gerediagak argitaratuko duen Durangoko Azokari buruzko libura.

⁴ Azpimarragarriak dira Astarloaren edo De la Fuente anaien “Durangoko Plateruen”, eta Fray Juan de Zumarragaren ekarpeneak Durango, Felipe Arrese Beitiarena Otxandion, Mikel Zaraterena Cerenan (Mallabia).

⁵ Argitalpen horien artean Nicolás Alzola “Bitáñoren” lanak, Fray Daniel Baertelen euskararen aldeko sermoia, Epifanio Lorenzo durangarrak XIX. mendean euskaraz emandako sermoiak, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren inguruan antolatutako Idazlan lehiaketetan saritutako ipuinak, Sarasua anaien bertsoak, etab. daude.

⁶ Ikusi 3. kapitulua, Euskal Jaiak.

"Guk be jarri dugu hemen gure hondar aletxoa. Gure ingurunean zegoen, D ereduaren sustapena, ikastolak. Korronte berria heltzen ari zela ikusten genuen, ez uholde bat... baina bai korronte bat", aztertzen du Aldekoa-Otalorak. Hala ere, garai horretan, euskalduntzean eta hizkuntz normalizazioan oinarritutako beste talde batzuk sortu ziren, eta euskararekin erlazionatutako ekitaldiak bultzatzen jarraitu arren, beste erakunde batzuei lekuak uzten hasi zen Gerediaga. Horrela, Kontseilua edo AEK bezalako beste talde batzuen ekimenak bultzatu zituen, eta baita Egunkaria, Eraz edo Anboto bezalako komunikabideen jardunak be.


Garai horretan jarduera asko aurrera eraman arren, antolakuntzarekin erlazionatutako gabeziak ez ziren guztiz konpondu, eta zuzendaritzako taldeak, "betiko kide berbereko", behin eta berriro esaten dutenez, heltzen ez zen errelebua eskatzen zuen. Oinarri soziala Gerediagaren hasieran baino askoz txikiagoa zen. Arazo horiek konpontzeko helburuz, 2001ean Zuzendaritza taldeak, elkartearen bizileku zen testuingurua eta el-kartea bera berrindartzeko bideak aztertu zituen.

"Eman diezagun etorkizuna haritzari" izeneko dokumentuan, zoritzarrez une batzuetan baino ez duela lortu gura zuen "herriko" elkardea izatea, aitorzen du Gerediagak, eta baziideek Gerediagaren bizitzan izan duten partaidetza nahiko eskasa izan dela. Halaber, adierazten da elkardea osatzen duten berrehun pertsona inguru horiek nahiko modu desberdinean daudela banatuta eskualdeko herrietan, eta, horrela, badaudela inolako ordezkaririk edo ordezkaritza testimoniala baino ez duten herriak. Gerediagaren egitura kontuan izanda, hori arazo larria zen karguak izendatzeko eta zuzendaritza taldea berritzatzeko orduan.


Gerediagak ikusi zuen, baita ere, gura baino harreman gutxiago zegoela inguruko kultur taldekin eta baita kultur talde horien artean ere. Izen ere, elkartek egindako azterketaren arabera, alde batetik, arlo berean lan egiten zuten taldeen artean baino ez zegoen harremanik, eta, bestetik, antzeko taldeak sortzen hasi ziren herri guztietan, Gerediaga Elkarteak bultzatu gura zuen eskualde komunaren ideiatik urrunduz. Horrela, bi jarduketa eremu sustatzen zirela ikusten zen: udalerria edo lurralde historikoa, baina ez eskualdeak bezalako tarteko erakundeak.

Finantzaketa bideak be aztertu ziren, eta arreta Merinaldeko Udaletara bideratu zen, horiei laguntzak eskatzeko asmoa aurrikusiz. Horren ordez, "ondarearekin erlazionatutako gaietan ahokularitza eman..." zitekeen.


Abagune horiek kontuan izanda, Gerediaga Elkarteak etorkizunari begirako hainbat lan ildotz proposatu zituen: beharrezko barne berrantolaketa ("edo bestela erdi hilda erdi bizirik jarraituko dugu"), eskualde kontzentzia bultzatzea, kulturaren inguruko lana indartzea, eta XXI. mendeko "eskualdeko erronketan" parte hartzea.



Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren egitaraua, Durango 1989.



Astolako auzitegi etxearren inauguraziorako gonbita, Abadiñon 1986.



Astola auzitegiko epaketak.

GEREDIAGAREN ALTXORRA

Ez dago urrerik lurperatuta Gerediaga Elkarteaaren bulegoen azpian, baina bertako apaletan benetako harribitxiak daude... Martzaako jaunak eskuz idatzi zuen gutuna, 1387an bere dorretxea erre eta eraitsi ostean, Arrasateko kontzejuak egindako iraina barkatuz. Gerra haien garaia igaro ostean, une honetan gutuna ilunpean lo dago, plastiko batean bilduta eta kutxa baten barruan, behera begira, argiak eta hautsak kaltetu ez dezaten. 1410ean datatutako gutun hori, Gerediagako Batzar Nagusiak aipatzentzen lehenengo dokumentu ezaguna da.

Oso gertu beste dokumentu bat dago, zertxobait berriagoa, Eguía jeneral durangarraren sinadura daramana... Dokumentu hori sinatzeko luma besondoan sartu behar izan zuen, besomotza zen eta⁷.

Eskuizkribu horiekin batera, Germán Zorraquín argazkilariaren negatibo hauskorak daude. Negatibo horietatik begiratzen dute, kristalezko lamina finetan izoztuta, joan den mendearen hasierako durangarrek, harrituta, ziurrenez. Eurengandik ez oso urrun, Eraz aldizkaria izan zenaren probak gordetzen dituzten kutxak daude.

Paper pila handiak, kutxek, negatiboek, afixek, kartelek, liburuxkek, postalek, bideoek, karpetek eta mota eta tamaina guztietako dokumentuek osatzen dute Gerediagako Dokumentategia. Benetako "altxorra" da⁸, elkarteko kideek behin baino gehiagotan adierazi duten moduan.

⁷ Bonba pakete batekin egindako atentatu batean eskua galdu zuen XIX. mendeko jeneral durangarra.

⁸ 2015ean, Gerediaga Elkartea funts horren balio ekonomikoa 176.660,21 eurotan tasatu zuen.

Bilduma hori 1983an hasi zen osatzen, Foto Germáneko argazki artxibategia aurkitu zenean. Durangoko Merinaldeari buruzko erreferentziak zituzten liburuak be orduan hasi ziren biltzen. Urtebete geroago, Esteban Bilbao politikari frankistaren zenbait material gehitu ziren, eta 1986an, Astolako Auditorioan egindako epaiketei buruzko XVII. eta XVIII. mendeetako dokumentu prozesalak, baten batek zaborretara bota eta gero.

Denbora asko igaro aurretik, Iurrealde mailako egunkarien tokietako ordezkaritzak martxan jarri zirenean, eskualdeari buruzko informazioak jasotzen zituen hemeroteka bat eratzea pentsatu zen. Eta proiektu horrek bultzatuta, Gerediaga Elkarteko kideak artxibategirako material asko ematen hasi ziren. Horrela, Durangoko "La perfección del obrero"⁹, Elorrioko "Urkizu-Zorrillatarren" familiako dokumentuak, "Sociedad de seguros mutuos contra incendios de Yurreta" izenekoari zegozkionak... lortu ziren.

Durangoko Merinaldeko Dokumentategia, Astolan zegoen Gerediagaren egoitzan sortu eta hazi zen, eta bere helburua Durangoko Merinalde zaharrari buruzko dokumentazio guztia biltzea zen, edozein euskarritan, gai bat edo besteari buruzkoa bazeen ere, ikerlarien eta interesatutako beste pertsona guztien esku jartzeko. Horretarako, beharrezko zen bilaketa aktiboak egitea Durangaldearekin erlazionatutako antzinako materialak egon zitezkeen antikuarioen dendetan, enkanteetan eta bigarren eskuko azoketan.

"Urtean pare bat aldiz Madrilera joaten ginengin" horrelako dokumentuak aurkitzeko, azaltzen du Jon Irazabalek. Beti ez zen erraza izaten horiek eskuratzeari. Alde batetik, ez zegoen askorik, eta bestetik, Gerediakteak saltzaileek eskatutako prezioa ordaindu ezin bazuen, gerta zitekeen objektu horiek bilduma pribatuetan amaitzea, ikerlariengandik aparte. "Gehien interesatzen zitzaizkigunak eskuizkribuak ziren, horietatik %90 ale bakarrak direlako, eta bat galtzen bada, dena galtzen delako", dio Irazabalek.

Urte luzez dohaintzetatik eta lagapenetatik etorritako materialek be bilduma handitu zuten. Batzuetan jatorrizkoen kopiak ziren, "el durangués" egunkaria-rekin gertatzen den bezala. Horren jatorrizko materialak "ez dakigu noren esku egongo diren", dio Irazabalek.

Mikeldiko idoloa,
Durangon
XX. mendearren
hasiera.



⁹ Dokumentu horien jabeak Jesuitak ziren.

Ezkurdi 20.eko hamarkadan, Durangon. Foto German.



Durangaldeko dokumentategiko depositoak.

lizatzeko emandako diru-laguntza jaso ostean, 1991n Gerediagak Itziar Irazabal kontratu zuen, funtsaren ordenamenduari bultzada emateko. “[Informatikari esker] egia da salto handia eman zela [...] artxiboak bateratzen hasi ziren. Harribitxi bat zegoela ikus-ten zuten. Bilketa lana 80ko hamarkadatik ari da egiten...”, esaten du Itziar Irazabalek.

Garai horretan Dokumentategiaren aldeko apustua egitea erabaki zen, euskal gaiei buruzko hainbat material orokor biltzen zuen Nicolás Alzola “Bitaño” Liburutegiaren kaltetan. Horren funtsak Durangoko eta Durangaldeko beste herri batzuetako Udal Liburutegiei eman zitzazkien.

Cutxieneko bolumena katalogatu eta Astolako egoitzan antolatu eta gero, dokumentategi hori jendearentzat zabaltzea erabaki zen. 1992ko maiatzaren 4an inauguratu zen, Deustuko Unibertsitateko liburutegiko “Euskal Ikaskuntzen” sekzioko arduraduna zen Karmele Santa Mariak “Euskal liburutegien eta dokumentategien egoera eta etorkizuna” gaiari buruz eman zuen hitzaldiarekin.

Zentroak astean birritan zabaltzen zituen atek jendearentzat, baina konsulta asko telefono edo gutun bitartez egiten ziren. Zerbitzua ikerlariei, kazetariei... zuzenduta ze-goen. Hala ere, Astolako etxearen egoteak ez zion larregi lagunten erabilera, batzuek atzera egiten zutelako kokagunea zela eta, eta funtsaren hazkunde erritmoak Gerediaga

GERO ETA BILDUMA HANDIAGOA

Funts dokumentalaren tamaina, Gerediaga Elkarteko kideek kudeatu zezaketena baino erritmo handiagoan hazi da. Edukiengorako kopuruaren eta aniztasunaren eta horren kudeaketara zuzendutako langileen faltak asko zaildu dute guztia katalogatzeko lana. Batez ere, kontuan izaten badugu bilduma etengabe handitu dela sortu zenetik eta aurkibideak egiteko, katalogatzeko eta artxibatzeko moduek eta teknikek aldaketa handiak izan dituztela azken urteetan.

“Hasiera batean Durangaldeko informazioa sistematizatzen hasi ginen, ordenatu eta katalogatzu”, esaten digu Irazabalek. Horretarako, hasieran Euskaltzaindia-ko liburuzainen laguntza izan zuten, eta erreferentzia gisa, “Agirre aitak Lazkaon aurrera zeraman sistema” hartu zen. Lehen unean, 1988an zabaldu zen jendearentzat.

Berriro be itxi egin zen, eta Eusko Jaurlaritzako Irargi zerbitzuak artxiboak digitalizatzeko emandako diru-laguntza jaso ostean, 1991n Gerediagak Itziar Irazabal kontratu zuen, funtsaren ordenamenduari bultzada emateko. “[Informatikari esker] egia da salto handia eman zela [...] artxiboak bateratzen hasi ziren. Harribitxi bat zegoela ikus-ten zuten. Bilketa lana 80ko hamarkadatik ari da egiten...”, esaten du Itziar Irazabalek.

Elkartearren katalogazio ahalmena gainditzen zuelako. "Duela urte batzuk jendea etorzen zen, internet zabaldu aurretik", zehazten du Esther Sotok, elkarteko administrariak.

Itziar Irazabalek gogoratzen duenez, berrikuntza teknologikoak bata bestearen ostean etorri ziren, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokari zegokionez, baina baita elkartearren eguneroko jardunari eta bertako dokumentategiari zegokienez be. "1996an Iruñeko jendea etorri eta katalogoa informatizatzea proposatu zigun. Europa mailan, jada egile eskubiderik ez duten liburu guztia jasotzen dituen liburutegi birtual erraldoia jasotzen duen Guttenberg egitasmoa be hor zegoen. Webgunea egitea proposatu ziguten. 1997ko Azokan teknologia berrientzat lekua prestatu zen, eta oso gela iluna zen, pantaila ia ikusi be ez zen egiten. Internetetik nabigatzen hasten zen, mezu elektronikoez berba egiten hasten ginen...", gogoratzen du.

Aldaketa horien eta Gerediaga Elkartearren baliabide mugatuen ondorioz, Merinaldeko Dokumentategiaren jardueretako batzuk alde batera utzi ziren. Horrela, komunikabideen bertsio digitalak heldu zirenean, dokumentategiak utzi egin zion paperean agertzen ziren albisteak artxibatzeari. Zeregin horrek, gero eta handiagoa zen elkarteko talde teknikoaren lanaren parte handia hartzen zuen. Sarrerako atea Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka izaten zen, une horretan lan asko pilatzen zelako bulegoan. Ondoren, pertsona batzuk Gerediagako talde teknikoan sartu ziren.

Esther Sotok adierazten duenez, 90eko hamarkadan Astolan lanean hasi zenean, bere lana egunero prentsa aztertzea zen, medioetan Gerediagari eta Merinaldeari buruz agertzen ziren albisteak aurkitzeko, kopiatzeko eta artxibatzeko. "Geroago katalogoa modu digitalean egiten hasi ginen eta denbora asko igaro orduko, 'dokumentategian' beharrean hasi nintzen, liburuak fitxatzen eta bestelakoetan". Esther García lankideak ➤



32. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako marrazkia, 1997. Erakus.



Martzaako Jaunaren "Itun eta barkamen-gutuna" (1410).

Mumentategiko materialen aurkibidea egiten hasi zen, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokatik datozen liburuak be erregistratzten diren datu basearekin.

Gaur egun, Durangoko Merinaldeko Dokumentategia, Abadiñoko Astolako auditorio etxearen dagoen elkartearren egoitza ofizialaren eta Durangoko Larrasoloeta kaleko administrazio bulegoaren artean banatzen da. Funtsen parte bat bigarren lekura era man da, hain delikatuak diren materialak kontserbatzeko baldintza hobeak dituelako. Dena den, taldeko kideek esaten dutenez, zoritzarrez oraindik ez dute Gerediagaren altxorra baldintza egokietan gordetzeko "beharrezkoa den materialik".

Durangaldeko biztanle gehienentzat ezezaguna den altxor horren etorkizuna ez dago guztiz argi oraindik. Harribitxi paregabeak ditu, eta, inolako zalantza bariik, gaur egun aurkitu daitekeen Durangoko Merinaldearekin erlazionatutako bilduma material hoberenetakoa da.

baieztagatzen duenez, hamar urte geroago be, bere kontratazioak antzoko ezaugarrriak izan zituen.

Ekonomiak ere mugatu zituen dokumentategiaren jarduerak. Alde batetik, Gerediaga Elkartea bezalako elkartek battek ez zuen material interesgarriak eros-teko aukera. Gabezia hori gainditzeko, elkartea batzuetan saltzaileen eta era-kundeen arteko bitartekari lanak egiten zituen, elkartearren ustez interesgarriak izan zitezkeen dokumentuen edo objektuen berri emanet. Horrela gertatu zen Valentín de Zubiaurrerren partiturekin. 2014an horiek eskuratzeko aukera jakinari zion Garaiko Udalari.

Beste alde batetik, liburuak, eskuizkribuak, grabatuak, audio eta bideo grabazioak, aldizkariak, dokumentazio politiko-soziala, kartelak, mapak... jasotzen jarraitu zen. Horien katalogazioa eta dokumentazioa, diru-laguntzarik edo kontratazio puntuak egon ezean, Gerediagako talde teknikoak egiten du. "Ahal dugunean egiten dugu, bat liburuen fitxekin aritzen da, eta bestea argazkiekin, postalekin...", deskribatzen dute Sotok eta Garcíak.

Denborarekin, eta hainbat sailkapen eta artxibo sistema probatu ondoren, Dokumentategiko materialen aurkibidea egiten hasi zen, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokatik datozen liburuak be erregistratzten diren datu basearekin.



Mañariako harrobiak, XXI. mendearen hasieran. *J.M Uriarte*.

ATXARTE HAMAKA GAINERA IGO DA

1989ko azken egunetan Urkiola parke natural izendatu izana, bultzatzaileek lortutako helburua¹⁰ izateaz gain, Anbotoko mendikatearen defentsarako abiapuntu be izan zen. Parkearen inguruari nolabaiteko babesa ematen zion adierazpen horrek¹¹ bazuen muga bat oraindik, bere ertzatan funtzionatzten jarraitzen zuten harrobien emakidengatik, Atxarteko eta Atxa Txikikoa, besteak beste, Abadiñoko Udalak harria ateratzeko jarduerarako emakida 1990era arte luzatu zielako. ➤

¹⁰ Horien artean, azpimarragarria zen Gerediaga Elkarte, 1979an hori lortzearen alde egindako adierazpen publikoa horretarako entzun zen lehenengo ahotsetako bat izan baitzen.

¹¹ Hasiera batean aurreikusitako 30.000 Ha-tik, gune babestua 5.769 Ha-ra mugatu zen, 1990eko urtarrilaren 4an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak argitaratu zuenez.



Atxarteko hamakan, Abadiñon 1990. *UAB*.

"Argi eta garbi zegoen parkea kaltetzen zuten elementuetako bat harrobiak zirela. Atxarteko baseliza, adibidez, oso kaltetuta zegoen leherketen ondorioz, eta, Abadiñoko Udalari tona bakoitzeko tasa bat ordaintzen zitzainez ateratzen zen harri kopuruaren kontrola egin behar zen arren, inork ez zuen baskulatik zer pasatzen zen kontrolatzetan", laburbiltzen du Jon Irazabalek.



Ertzaintzaren kontrola Atxarten, Abadiñon 1999.
Atxarte Bizirik elkartea.



Atxarteko hamakan,
Abadiñon 1990. UAB.

Enpresek eskatzen zuten moduan administrazioak lutzapen berria emango ote zuen arduraturak, 1990ean, eskalatzaile eta ekologista taldeek, eta baita Gerediaga Elkartea bez¹², Urkiola Aldeko Batzordea (UAB) osatu zuten. "Protesta berritzailea izan zen, ez zelako politizatu, beste batzuk bezala, eta izenak berak adierazten zuen moduan, ez zen zerbaiten kontrakoa, zerbaiten aldekoa baizik, Urkiolaren aldekoa", zehazten du Irazabalek.

"Bilera haietako asko Gerediagaren egoitzan egin ziren. Elkartea batzordean izan zuen partaidetza funtsezkoa izan zen, protesten lehen etapan, batez be", aitorrentzdu Jon Sáenz eskalatzaile eta EHU-ko irakasleak, dagoeneko desagertuta dagoen UAB-ko kideak. Ekainaren erdialdean plataformako kideek igarobidea moztu zieten Asuntzeraino heldu gura zuten automobilei eta informazio paskinak banatu zitzuten.

Baina protesta haren gauzarik deigarriena, gatazkak parke naturalaren muga estuetatik kanpo oihartzuna izatea lortu zuena, ekainaren 24an Atxarteko harrobiko hormetan eskegi zen hamaka izan zen¹³.

Egun batzuk geroago, harrobiko langileek euren lanpostuen alde egindako mobilizazioen ostean, eta Euskadiko eta Bizkaiko administrazioek leherketak kontrolatzeko azterlan teknikoak eskatuko zirela agindu eta gero, eskalatzaileak hormatik jaitsi ziren. Handik denbora gutxira, Abadiñoko Udalak eskaria egin zion Eusko Jaurlaritzari, emakida beste hamabost urte luzatzeko hartutako ebazpena berretsi zezan. Hamabost urte horietako azkeneko bostak ustiapena errematatzen bideratuta egongo lirateke.

Hilabeteetan bilerak egin ziren UAB-en eta administrazioetako ordezkarien artean (EEE-EVE, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia...). Bileren buru Juan Mari Atutxa Bizkaiko Foru Aldundiako Nekazaritza Diputatua eta Urkiolako Parke Naturalaren Patronatuko presidenteak izan zen. Bileren helburua, Atxarteko ustiapenari amaiera emateko moduari buruzko akordioa lortzea zen.

¹² Gerediaga Elkartea Urkiolako Patronatuko parte be izan zen. Erakunde ofizial horretan Aranzadi elkartea eta Mendi Federazioek be hartzten zuten parte, administrazioekin batera. Horien artean Abadiñoko Udal, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza zeuden.

¹³ Horrela jasotzen du Alpino Tabira Mendizale Taldearen Katala aldzkariaren 86 zenbakiak, 1990ekoak. Bertan protestarekin bat egiten zuela adierazten zuen.

Urriaren 12an berriro, 125 egunez, eskalatzaile talde batek indarra lortu zuen Labargorriko horman zintzilikatutako egitura batean, harrobiaren bertikalean. Plataforma hartan pertsona bat edo bi egoten ziren une oro, eta, ondorioz, harrobiek ezin zuten leherketarik egin, lege barruan. Gobernari zibilaren agindu batek horri berretsi egin zuen.

Modu ofizialean, UAB protesta hartatik kanpo zegoen, baina maila pertsonalean, erakundeko hainbat kidek hartu zuten parte "hamakaren" errelebuetan. Azkenean, 1991ko otsailaren 6an, Ertzaintzak hamaka hustu zuen, gatazkan solaskide izan zen¹⁴ eta egun horretan bertan, Juan Lasá Jáuregui ordezkatzuz, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailburu izendatu zuten Juan María Atutxaren aginduz.

Urte horretan bertan, Durangoko epaitegiak protestetan parte hartu zuten hainbat pertsona deitu zituen. Geredia-ga Elkarteak UAB-en zuen ordezkaria, Jon Irazabal Agirre, prozesatu egin zuten, Atxarte eta Atxa Txiki enpresek aurkeztutako salaketak adierazten zuenez, galera ekonomiko larriak eragiten zizkien protestaren arduradunetako bat zelako. Durangoko epaitegian auzipetu gisa deklaratu ostean, artxibatu egin zen.

Hamaka hustu ostean, aurrera jarraitu zuten gatazkari konponbidea aurkitzeko bilerek eta harremanek. 1991ko irailaren 12an, toki administrazioak, "Urkiolako Parke Naturalean dauden Atxarte eta Atxa Txiki harrobiak berreskuratzeko" ideia lehiaketa deitu zuen. Orduan gatazka beste fase batean sartu zen. Enpresek eta administrazioek kontrako jarrerak hartu zitzuten harrobien erremataari eta lan hori nork egin behar zuen arazoari buruz. Legez kanpoko jarduerak hainbat urtez jarraitu zuen, 1995ean eten zen arte. Ingurua bertan behera utzita, egoera penagarrian, geratu zen.

"Guk ez genuen Atxarteko gatazka irabazi, eurak galdu zuten", laburbiltzen du Jon Sáenzek. Bere iritziz, Urkiolako Parke Naturalaren ingurunea harrobien aurrean babes-teari egindako ekarpena ustiapenaren aldi baterako etetea lortzea zen. "Ez zegoen bermatuta betirako gelditzeko aukera¹⁵". Baina arazoa hainbeste luzatu zenez, azkenean ezin izan zuten ezer egin, Eusko Jaurlaritzak, azkenean, horrela agindu zuelako", laburbiltzen du Sáenzek.

¹⁴ Nekazaritza diputatu gisa.

¹⁵ Atxarteko gatazka berpizteko ahalegin bat baino gehiago egon da. 2002an, Javier Uriarte Abadiñoko alkateak berriro be harrobiak berreskuratzeko plan batzuk buruz egin zuen berba, eta ekologistek "berriro be hamakak eskegiteaz" egin zuten mehatxu. 2012an, Atxarteko harrobia, Abiadura Handiko Trena eraikitzeko lanetan soberan geratutako lurrik matetzeko leku moduan erabiltzeko aukera aztertu zen, baina ideia horrek be kontrako iritziaz jaso zituen eta bertan behera utzi zen.



Atxarteko hamakan, Abadiñon 1990. UAB.





Gerediaga Elkartearen 40. urteurreneko ospakizuna, Durangon 2005. *Txelu Angoitia*.

OMENALDIAK ETA EFEMERIDEAK

1988ko azaroaren 7an, Gerediaga Elkarteak Florencio Amador Carrandiren, Durangoko Lurraren antzinako antolakuntzaren gorabeherak idatzita utzi zituen Gernikako Batzar Etxeko artxibozainaren, jaiotzaren mendeurrena ospatu zuen. Bera izan zen 1965ean sortutako Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango haren bultzatzaileen inspirazioetako bat.

Omenaldian Margarita Amador Carrandi, "Durangoko Merinaldeko Korregimenduaren Tenentziako Artxibategia galeratik berreskuratu zuen" heroaren (gai horretan behintzat) alaba egon zen. Ekitaldian Aingeru Zabalak artxibozainari buruzko hitzaldia eman zuen, eta bertan, gaur egun be Astolako auditorio etxearen jarraitzen duen oroimen argazki bat desestali zen. Aukera horretaz baliatuz, Gerediaga Elkarteak etxearen 2. solairuko ekitaldi aretoa inauguratu zuen eta lehen solairuko ziega zaharrean etxeakoak izandako objektuz osatutako erakusketa¹⁶ antolatu zuen.

"Astola errebindikatu gura genuen", adierazten du Jon Irazabalek. Omenaldi haren bitartez, Gerediagak Amador Carrandiren irudia oroitu gura zuen, baina, horrez gain, eraikinak berez zuen balioa eta Gerediaga Elkarteak eraikinarekin zuen erlazioa be azpimarratu gura zituen. Ez da ahaztu behar denbora gutxi lehenago uste izandako bai-

¹⁶ Ikusi: Astola, amestutako etxea kapitulua.

no askoz leku txikiagoa okupatzera eta etxeak beste erakunde batzuekin partekatzera behartua izan zela elkartea.

Modu berean, urteetan zehar egindako beste omenaldi batzuek ere bigarren irakurketak izan zitzaketen. "Gaiak sozializatzeko eta gai horiei buruzko interesa pizteko aprobetxatzen zen", airtzten du Irazabalek.

Atxarteko gatazkak eta ondare naturalaren eta historikoaren kontserbazioak baizuten zerikusia 1992an Gerediaga Elkartek, Joxe Miel Barandiaranek eta Telesforo Aranzadik leku harten 1932an egindako ikerlanak gogoratzuz, Atxarten jarri zuen plakarekin. Lan horiekin hasi ziren historiaurreko Durangaldearen ezagutzan sakontzeko aukera eman zuten azterlanak. Modu berean, 1993an antolatuako argazki erakusketa eta 'Crestas del Duranguesado' liburuaren argitalpenak, Indalecio Ojanguren eta Antonio Ferrer argazkilarien Parke Naturalaren ingurunearekin izandako lotura erakutsi zuten.

Hurrengo urteetan omenaldia jaso zutenak hauek izan ziren: Felipe Arrese y Beitia 1996an eta 2006an; Fray Juan de Zumarraga 1998an; Guillermo de Humboldt, Jaime Kerejetea eta Juan Orobiogotia 2001ean; eta Pablo Pedro Astarloa 2002an, Durangon jaio zenetik 250 urte bete zirenean.

Urkiolako komunitateak eta Garaiko Zubiaurretarrek ere jaso dituzte omenaldiak azken urteetan. 2014ko uztailean, Gerediaga Elkartek Bittor Kapanaga otxandiarraren, Gerediagako kide eta euskaltzalearen, omenaldi ekitaldian hartu zuen parte. Omenaldi ekitaldi horretan bere poemen bertsioak abestu ziren, Gontzal Mendibil musikariaren zuzendaritzapean.

Beste gertakari historiko batzuk be gogoratu dira, 1072an izandako lurretari buruzko lehenengo aipamenaren 925. urteurrena; 1994an gogoratu ziren Urkiolako ostatuaren 400 urteak; lehenengo "Euskalegunen" 75. urteurrena; 1996an ospatu zen Durango-ko oihalgileen 500. urteurrena; eta Bizkaiko Merinaldeek Durangon egin zuten ➤



J.M. Barandiaran eta T. Aranzadi omenaldia Atxarten, Abadiñon 1992.
Irazabal artxiboa.



Durango kondeei
omenaldi ekitaldia,
San Agustín Etxebarrin
2012. Txelu Angoitia.



Gerediagaren foru gunearen baieztapenaren 500. urteurrena, Abadiñon 2008. *Txelu Angoitia*.



Durango Bizkaiako hurbilketaren 800. urteurrenaren ospakizun ekitaldia, Gerediagako baselizan 2012. *Txelu Angoitia*.



Hilarion Sarriondiaren herriotzaren 100. urteurrenean oroimen ekitaldia, Garaiko udaletxean 2013. *Txelu Angoitia*.

Bileraren 125. urteurrena, 1999an ospatutakooa. Duela denbora gutxiago, 2012an, Durangaldea Bizkaian sartu izanaren 800. urteurrena ospatu zen.

Joana Iaren, Bizkaiko Andrearen, agindu zuzen bitartez Gerediagako foru espazioaren baieztapenaren 500 urteak, lurretako kofradien berrantolaketaren 150. urteurrena edo Abadiñoko Txanbolin familiari eskainitako omenaldia izan ziren ospakizunez beteta etorri zitzagun 2008ko gertakarietako batzuk. Hurrengo urteetan lurretaren desanexoaren XX. urteurrena, elizate horretako azken banderaren mendeurrena¹⁷ edo Juan Ramon Iturriza historiagilearen heriotzaren bigarren mendeurrena gogoratu ziren.

Efemeride eta ospakizun horiekin guztiekkin batera hitzaldiak, erakusketak eta argitalpenak egin ziren, omenduen bizitzari eta lanari edo gogoratutako gertakarien garrantziari buruzko xehetasunekin.

Familiako, gertuko, ospakizun eta omenaldietarako lekua be egon da. 2005ean, Gerediaga Elkartea sorkuntzaren 40. urteurrenaren ospakizunen barruan, zendaritza talde berriak ohorezko presidente izendatu zuen Antton Mari Aldekoa-Otalora, aurreko presidentea. Izendapen horretan Jesus Mari Salterain, Lazaro Miliukua, Jose Luis Azkorbebeitia eta Jon Irazabal izan zituen berarekin, ohorezko juntakide gisa.

Hurrengo urtean, Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketaren 40. urteurrenean, Gerediagak Miguel Ángel Astiz kazetariaren (1919-1984) oroimena goraitatu zuen. Elkartea kronista izan zen elkartea sortu zenetik, eta bere informazioetako asko txapelketa horri buruzkoak izan ziren.

17 Bandera konpondu egin zen egun horretarako.

IRAGANA DEFENDATUZ

Ondare kulturalaren kontserbazioa Gere-diaga Elkarreko eten barik egindako lana izan da, baina 1989an defentsa horrek garrantzi berezia hartu zuen. Elkarreko administrazioen aurrean egindako salaketak biderkatu egin ziren, udalak, fransismoaren garaian idatzitako udal plan-teamendua berrikusten hasi ziren garietan. Berriro be, interes ekonomikoak eta udalerrien hedapenerako beharrak elementu historikoak, arkitektonikoak eta artistikoak babestu gura zituen Gerediagak kontserbazioaren alde zuen interesaren kontra jartzen ziren.

Durango borroka horretako gune nagusietakoa izan zen, hirigintza alorreko plan berrieik Ezkurdi parkeko eraikin berezienetako batzuetan zutelako eragina. Horrela, 1989. urte horretan, Gerediaga Elkarreko Ermodo kaleko Guimón jauregiaren eraisprena salatu zuen, Juan Aguirreren Etxea izenez ezagutzen zena, Durangoko Udalak berak 1985ean eraikin horren babesea onartu zuen arren. Salaketa publikoan, Gerediagako kideek, onespennen eta behin betiko argitalpenaren artean, babesea merezi zutela adierazi izandako eraikinen zerrendak jasandako aldaketak azpimarratu zituzten.

1989an, baita ere, Gerediagak helegitea aurkeztu zuen batzokia eta Tabira zine aretoa eraisteko proposamenaren aurrean. Elkarreko iritziz, eraikin biak Durangoko ondarearen parte garrantzitsua ziren, baina perituen txostenak batzokiaren interesa muritzu egiten zuen eta zine aretoaren balio posiblea baztertu egiten zuen. Azkenean, Udalak erabaki zuenez, interesgarriagoa zenorube horiek, leku horretan Durangoko Epaitegia egiteko asmoz erosia zituen Eusko Jaurlaritzari lagatzea.

Une hartan, Gerediagak salaketa ekintza indartsuagoren bat egitea planteatu zuen, baina horren inguruan izandako eztabaidei buruz dagoen dokumentazioak erakusten duenez, elkarreko ez zuen bere burua horrelako ekintzak aurrera eroateko bezain indartsu ikusten.

Urte batzuk geroago, elkarreko helegite horien eraginkortasunari buruzko gogoeta egin zuen. *"Urte batzuk igaro ondoren argi esan beharra dugu ondarearen babeserako eskuartearen dugun "botika" bakarra, neurriz, salaketa publikoa dugula.*



Matute Jauregia Komentu kalean, Durango 1981.

J.M. Uriarte.



Batzokia eta Tabira zinea, Durangon 1988. Fotosol.



Kondeen kapera,
San Agustin
Etxebarriin 1988.
Irazabal artxiboa.

Beste bide batzuetatik arazoak konpontzea pentsatu izan dugun bakoitzean, udalek, ugazabek, promotoreek eta abarrek, eurek nahi izan dutena egin dute, ondorioz azken hamarkadan ondare arloan ia ez dugu lortu ezer bideratzea. Argi ikusi da arduradunen politika "esan nahi duzuena, baina nik nahi dudana egingo dut". Hainbat eraikuntza galdu dira, eta beste kasu batzuetan irudia mantendu dute, hau da fatxadak "kontserbatu" eta egiturak, eskailerak eta barneko balio guztiak, askotan fatxada bera baino baliotsuagoak pikutara joan dira. Gaur egun ondarea babestu barik herriko "irudia" babesten ari gara eta irudia ondareen alde bat bakarrik da. Arlo honetan "de la ceca a la meca" joan garela pentsatzen dugu eta gure lana bideratu beharko zen. Argi finkatu herri bakoitzean zerk duen balioa eta horren aldeko lanak gogortu¹⁸".

Bidean geratu ziren, beste batzuen artean, 1989an desegindako San Agustingo errota, Etxebarribein baseria, Madalenako (Durango) arma lantegia edo Orozko-tako Santiago baselizako erretaulak.

2002an, Gerediagako foru zelaia berreraikitzeko lanek, izena zin-baselizaren izenetik hartu zuen elkarrearen animuak berotu zituzten. Merinaldeko elizateak irudikatzen zitzuten harlanduak hormigoizko lautadan sartu ziren, zelaiaaren perimetroa horma batekin inguratu zen, modu fisikoan eta metaforikoan eskualdera zabalik zegoen espazioa itxiz. Tenpluaren zaharberritze lanek itxura garbia eta modernoa eman zioten, aurrekik zeuden elementu adierazgarrietako asko kenduta.

Gerediaga Elkartea jende aurreko protesta egin zuen esku-hartze horren aurrean, eta hau kritikatu zuen: "Durangaldeko monumentu garrantzitsuenetako batean izandako eragin handia, foru gune horren irudia desbirtuatz"¹⁹.

Sei urte geroago, foru espazioaren baieztapenaren 500. urteurrenaren ospakizunen barruan, eta administrazioari guni hori jendearen erabilera arako zabal zezan egindako eskari giroan, Gerediaga Elkartea "Gerediagana" argitaratu zuen, baselizaren eta foru zelaiaaren historia kontatzen duen liburuxka.

18 "Eman diezagun etorkizuna haritzari", 2001eko dokumentutik ateratakoa.

19 Gerediaga Elkartaren 2002ko memoria.



Savoia bombardariak Durangaldea zeharkatzen, 1937.

"INORK EZ DAKI EZER DURANGOKO BONDARDAKETARI BURUZ"

1937ko martxoaren 31n bonbak erori ziren Durango gainera. 336 pertsona hil ziren²⁰ egun horretan eta hurrengoan, jasandako zaurien ondorioz, erasoaren hondakinen artean. Beste batzuk atzetik jarraitu eta metrailatu egin zituzten herriaren inguruko zelaietan, kanpoaldean, Landakon, Montorretan eta erasoaldiaren erdigunea zen alde zaharraren inguruan zeuden zuhaitzen artean ezkutatzera zihoazenean.

Ikara, bertan egon zirenen begietan eta, beste batzuen artean, garai hartako Eusko Jaurlaritzako argazkilariet hartu zituzten irudi batzueta geratu zen grabatuta. Gerran galtzaile izatearen eta beldurrazen ondorioz, eta Gernika sinbolo bilakatu zelako, bombardaketaren oroinmena isilpean gordeta geratu zen, bizirik irten ostean ezer esaten ez zutenengan eta giltzez itxita zeuden artxiboean. Herriko seme-alabek eta bilobek metrailak harrizko hormetan utzitako zauriak ikusten zituzten, baina ez zuten garbi entzuten zauri horiek kontatzen zuten historia. ➤

²⁰ Jon Irazabalen ikerketek erakusten dutenez, ez ziren izan gerran arietik botatako bonbek eragindako lehenengo hildakoak, eztak bakarrak be. 1936ko irailaren 20an, 12 pertsona hil ziren Ezkurdiko pilotalekuaren erori zen bonbarren ondorioz. Apirilaren 2an eta 4an berriro erori ziren bonbak Durangoko hondakinen gainean. Gainera, 1936ko uztailaren 22an beste 43 pertsona hil ziren Otxandion botatako bonben ondorioz, eta 1937/03/31n, beste zappi hil ziren Elorriion arrazoi berberarengatik.



Santa Susanako mojak bombardaketa jaso ondoren, Durangon 1937. *Sabino Arana Fundazioa.*



Bonbardaketaren 50. urteurreneko karte-la, Durangon 1987.

la mende erdi igaro zen Manuel Tuñón de Larak bere arreta historia kolektiboaren txoko ilun hartara, Durangoko bombardaketara, bideratu zuen arte. Lerro batzuk baino ez zizkion eskaini, eta lerro horiek gertatutakoa argitzen ez bazuten be, nahikoak izan ziren gerakizun haren ezagutza faltari buruzko arreta pizteko: “*Se produjo entonces el bombardeo de Durango por la aviación alemana, el más atroz que hasta entonces había conocido la historia militar del mundo. Un convento de monjas fue*

pulverizado con las religiosas dentro. Los sacerdotes Billalabeitia y Morilla perecieron bajo los escombros...”²¹.

Albiste historiko labur hori ikusita, Gerediaga Elkarteak hitzaldi bat emateko eskaria egin zion historialari madrildarrari. Jon Irazabalek gogoratzen duenez, 1984ko martxoaren 31n Durangoko Institutuan emandako hitzaldiaren²² ostean Tuñón de Larak “inork ez daki ezer Durangoko bombardaketari buruz” esan zuen. “Hark animatu egin gintuen, benetan zer gertatu zen jakiteko grina piztu zigun”, aitortzen du Irazabalek. Jakin-min horrek, ikerketa historikoaren estandarteko bat bilakatuko zena bultzatu zuen. Jarduera horrek protagonismo handia lortu zuen hurrengo hamarkadetan.

Lana, ia beti bezala, liburutegian hasi zen. “Euskal filmei buruzko liburu bat begiratzen”, Irazabalek, Espainiako Filmoteka Nazionalean gordetzen ziren eta Eusko Jaurlaritzari konfiskatu zitzazkion Durangaldeko gerrari buruzko film erroilu batzuei buruzko erreferentzia aurkitu zuen. Material harekin film labur bat²³ egin zen, eta Gerediaga Elkarteak 1987ko martxoan eta apirilean Durangoko bombardaketari eskaini zion era-kusketa eman zen. Erakusketa Kalebarriako liburutegi zaharrean egin zen, gertakaren 50. urteurrenean.

Erakusketa oso arrakastatsua izan zen²⁴. Madrilen lortutako filmez gain, Gerediagak gertakari negargarri hartan hildakoen zerrenda egin zuen eta lekuo batzuen testigantza jaso zuen, eta bombardaketaren hurrengo egunetan egindako argazkiak eta zenbait dokumentu bildu zituen. Hori guztia liburuxka batean jaso zen, eta argitaratutako mila aleak oso denbora laburrean agortu ziren.

- 21 TUÑÓN DE LARA, Manuel (1978) *La España del siglo XX (Vol. III): La Guerra Civil 1936-1939*.
- 22 Hitzaldia, Gerediaga Elkarteak bombardaketa oroitzeko antolatu zuen lehenengo ekitaldia izan zen. Historialariaren presentziak jende asko erakarri zuen, eta beharrezkoia izan zen Euskadiko Kutzak San Inazio auzunean zuen aretoak baino leku gehiago izango zuen lekuak bilatzea. “Gestioak korrika eta presaka egin ziren, eta institutuko ekitaldi aretoa lortu zen”.
- 23 Film laburra Luis Mª Alvarezek eta Jose Luis Letek muntatu zuten Berrizen. Emanaldien aurreko gauean gogor aritu behar izan zuten, irudiak elderantziz jarritxa heldu zirelako. Jose Mari Uriarterekin eta Jon Irazabalekin bombardaketari buruzko lan batzordeko kide zen Mirari Erdoizak, “Gerediagak erositako lehenengo hegazkin txartela” erabili zuen Madrilera joateko eta kopia zuzenak hartzeko, Jon Irazabalek kontatzten duenez.
- 24 Gerediaga Elkarteak 1987ko urteko memorian jasotzen duenez, erakusketak 2.967 bisitari eta 500 ikasle erakarri zituen.

ITALIARRAK IZAN ZIREN!


Gerediaga Elkarteak 1987an Durangoko bombardaketari buruz egin zuen erakusketa, bonbak zuzenean jasan zituztenak eta haien senide asko bildu zituen. Bombardaketatik bizirik irtetea lortu zutenen artean Francisco Berganza zegoen. Jose Mari Uriarte bombardaketari buruzko ikerketa batzordeko kideak gogoratzentzuenez, Mirari Erdoizarekin batera elkarritzetatzeko bisitatu zuenean, behin eta berriro esan zien oker zebiltzala, bonbak bota zituzten hegazkinak italiarrak zirela. "Apuntatu egin genuen, oker zibilela uste bagenuen be", onartzen du Uriartek. "Ziurrenez, Durangon bombardaketaren egile materialari buruz egia zekien pertsona bakarra izango zen", Jon Irazabalek adierazten duen moduan²⁵.

Urte horretan bertan, Vicente Talónek ere, bombardaketaren egileak italiarrak izan zirela esan zuen²⁶, baina gehienek, egun batzuk geroago Gernika suntsitu zuen Alemaniako Condor legioaren bonbak izan zirela pentsatzen jarraitu zuten.

XX. mendearren parte handian, Durangon gertatutako ahaztuta, baztertuta, geratzen. Zeuden irudiak Gernikako sarraskiaren irudiekin nahastu ziren, eta hasiera batean xehetasunez beteta egon ziren informazioak desagertuz joan ziren. Lehenengo, Durangoren bombardaketa errepublikarren propagandak asmatutako zeozer zela esan zuten, gero helburu militarra zela, ondoren esan zuten giza kalteak oso puntuatuta zeudela, eta, azkenean, ezer gertatu zenik be ahaztu egin zen. ▶



1937ko martxoaren 31ko bombardaketa, Durangon.



213.eko eskadrila italiarraren egutegia, 1937.

²⁵ IRAZABAL AGIRRE, Jon (2001). *1937 martxoak 31. Durango*. Gerediaga Elkartea.

²⁶ TALÓN, Vicente. Los aviones italianos destruyeron Durango. 1987/05/09an. El Correo Español egunkarian argitaratutako artikulua.



213.eko eskoadrila italiarraren egutegia, 1937.

Gerediaga Elkarteko bombardaketari buruzko ikerketa batzordearen lanen barruan, bertako kideak benetako erromesaldia egin zuten Europako artxibategi militarretatik. Lan horien ondorioz, 1987an entzundakoa baieztu zuten. Emaitza hiru urte geroago jakinarazi zen:

"La mayor aportación del estudio es la demostración de que los aviones que bombardearon la Villa fueron italianos coordinados por las autoridades militares alemanas y españolas de la zona norte de la guerra y que su finalidad era más que militar, la de arrasar territorio vizcaíno, como amenazara el general Mola". Horrela jaso zuen Egin egunkariak 1990eko apirilaren 1ean²⁷. Martxoaren 31 hartan gertatutakoaren inguruan argia egiten zuen albisteak oihartzun handia izan zuen garaiko komunikabideetan.

Ondoren egindako ikerketek gauza gehiago argitu zituzten. 2013an, Gerediaga Elkartea bombardaketaren 76. urteurreneko ekitaldietara gonbidatu zuen Ángel Viñas historialariak, bombardaketa haren helburu makabroa berresten zuen Alemaniako goi agintaritzaren dokumentua aurkitu zuela argitaratu zuen. Proba bat baino ez zen izan. "Alemaniak, ondoren II. Mundu Gerran aplicatuko zituen teknikak probatu zituen Durangon [...]. Durango bombardatzetan ari ziren bitartean, Frantzian eta Polonian pentsatzen ari ziren", adierazi zuen.

27 'Asus'-ek sinatutako informazioa.

Historia guztia argitzeko aukera eman zuen pista nagusia Madrilen aurkitu zuten bombardaketari buruzko batzordeko kideek, Villaviciosa de Odónen dagoen Aire Artxibo Orokorr eta Historikoan. 1989an, Gerediagak, bertan gordetzen diren “eragiketen parteak” ikusi ahal izan zituen. Parte horietan, (“Negrillos, Legionarias eta Nuestras”) ize-neko eskoadriilek martxoaren 31n Durango eta Elorrio gainean airetik egindako batidak zehazten ziren.

Lehenengo txosten hura argitaratu ostean, Durangoko bombardaketari buruzko ikerketa taldeak Italiako artxibategi militarretara zuzendu zituen begiak, erasoa zehaztasun handiagoz ezagutzeko aukera emango zuen materiala gordeko zutelauste zuelako. Atzera botatako diru-laguntza batek plan horiek atzeratu egin zituen. Azkenean, 1991ko uztailean, Jon Irazabal buru zuen taldea Erromara joan zen, eta Archivio Stato Maggioren Aeronautica Militare izenekora “arazo barik” sartu ziren. Bonbak bota zituzten Savoia 81 hegazkinei, botatako material kopuruari... buruzko material ugari aurkitu zuten. Bainaurikuntza haien kopiak eraman gura izan zituztenean, fotokopiagailuak ez zuen funtzionatu. “Hurrengo egunean, material hura klasifikatu egin zutela esan ziguten”, adierazten du Irazabalek.

Gerediaga Elkarteak bere protesta aurrean zuen “zentzu bako” gertakari ha- ren aurrean. Hala ere, bi hamarkada igaro behar izan ziren paper haien argia ikusi arte, 2011n. Herriaren gainera heriotzaz betetako karga botatzen zuten bitartean pilotu italiarrek euren kabinetatik ikusten zituzten irudiak lehen aldiz ikusi ahal izan ziren Durongan.

Urtebete geroago, irudi horiek, Irazabalek Gerra Zibilari buruz egindako lan zabal batean²⁸ argitaratu ziren. Liburu horrek zorroztasun eta zehaztasun handiz aztertzen du, ez Durangok 1937ko martxoaren 31n jasan zuen bombardaketa bakarrik, baita Otxandiok eta Elorriok jaszandakoak, frontean izandako borrokak, eskualdean bizi izandako tentsioak edo Errepublikako erregimenarekin “bat ez zetozenen” fusilamendua be.

Archivio Stato Maggiore
Aeronautica Militare- n,
Erroman 2011. *Txelu
Angoitia.*



²⁸ IRAZBAL Agirre, Jon (2012). *Gerra zibila Durangaldean 1936-1937*. Gerediaga Elkartea.



Bonbardaketan hildakoen omenezko lore eskaintza, Durangon 2012. *Txelu Angoitia*.



BERRIRO GERTATU EZ DADIN

"Gogoratu... berriro gertatu ez dadin". Goiburu horretan oinarrituta, Gerediagak bultzatutako memoria historikoari buruzko ariketak gero eta kide gehiago bildu ditu martxoaren 31 bakoitzean. Gerraren oroitzapenak zauriak irekitzen zituen oraindik 1984an, lan horri ekin zitzionean, eta batzuek mehatxuak ere egin zizkieten lehenengo ekitaldiko antolatzaleei²⁹. Hamabost urte geroago, Gerediaga Elkartea eta Sabino Arana Fundazioak batera egin zuten Durangoko Andra Mariko arkuean plaka bat jartzeko eskarria, 1937an bonben eraginez hildakoak oroitzu³⁰.

Bonbardaketaren
orioimen ekitaldietako
kartela.

Aireko erasoen aurreko babesik ez zuen herri batean bonben eraginez erori zen arkupe bera monumentu bilakatu da, urtez urte gerraren tragedia gogoratzen den gunee-

²⁹ 1987ko erakusketa hainbat eskela eskura eman zitzaizkien, adibidez.




³⁰ Ordura arte, Gerra Zibilean hildakoei buruzko erreferentzia bakarra Alameda de los Mártires izenekoa izan zen, gaur egun Antso Estegiz dena. Frankismoaren garaian izen hori jarri zioten, 1936an Durangoko hilerran fusilatutako tradisionalisten omenez.

tako bat da³¹. "Durangok jasandako bombardetzeen ondorioz hil ziren guztien oriomenez" dioen plaka ez zen 2005era arte jarri, baina ordurako memoria ariketa horrekin bat egindakoak asko eta asko ziren ziren.

2001ean, Kriskitinek, Berbarok³² eta Gerediaga Elkartea, Unai Iturriagak bultzatuta, ordutik aurrera urtero errepikatu den lehenengo omenaldia eskaini zieten bombardaketaren biktimei. 2007an, 70. urteurrenean, Sabino Arana Fundazioak Gerra Zibilari buruzko bere bildumaren parte bat laga zuen, Dresdeko eta Coventryko³³ ordezkarien bisita jaso zuen erakusketa antolatzeko. Zazpi hamarkada behar izan ziren mundu osoak bombardaketa planifikatua jasan zuen lehenengo biztanleria zibila Durangokoa izan zelajakin zezan, "erabateko gerra" izenez ezagutuko zenaren aurrerapen moduan.

Urtez urte, Gerediagak, Kriskitinekin eta Berbarorekin batera, memoria horren xehetasun berriak azaleratu zituen. Horrela, 2010ean, frankismoaren lehen garaietan, gaur egun Nevers ikastetxea dagoen lekuau, kartzela³⁴ jasan zuten emakumeak eta umeak ekarri zitzutzen gogora.

2004an, agintariek, ezagutzen diren bombardaketaren biktimen izenak jasotzen zituen plaka bat jarri zuten Durangoko hilerrian. Lan hau idatzi den 2015. urte honetan, bombardaketaren oriomena, gerraren ondorioz euren lurretik kanpora joan behar izan zuten umeen memorian zentratu da. ➤



³¹ Oromenerako beste gunea Durangoko hilerria da. Bertan ehortzi ziren egun hartan hildakoengor puak.

³² Berbaroren kasuan, elkarren artean egindako ekitaldi horretan izandako lankidetza 2012an amaitu zen.

³³ II. Mundu Gerran bombardaketaren ondorioz suntsitutako hiriak.

³⁴ Bertako hormen artean bost emakume, lau mutiko eta neskato bat hil ziren.

"31-M. In memoriam" instalazioa bombardaketaren 75. urteurrenean, Durango 2012. *Txelu Angoitia eta Elena Solatxi*.



Ekitaldi horiei, Gerediaga Elkartearen ikerlanek sortzaileen eta dokumentalisten artean Durangoko bombardaketaren inguruan sortzen duten gero eta interes handiagoa gehitu behar zaie. Gehienetan, informazioa eta lagunza eman zaie horiek egindako lanei. Durangoko bombardaketari buruzko lehenengo dokumentala ('Durangoko Bonbardaketa') Jesus Mari Arruabarrenak egin zuen³⁵. Bideo hori aitzindaria izan zen, eta une egokienean egindakoa, 80ko hamarkadarren amaieran, bombardaketen hamahiru lekuko zuen grabatzeko aukera izan baitzuten, ez Durangoko bombardaketarenak bakarrik, baita Otxandioko bombardaketarenak be.

Istripu batek jatorrizko zinta suntsitu zuen, suntsitu aurretik zenbait ikastetxetan erakusteko aukera egon bazen ere. 2012an Pablo Garitaonandiak filma berregin eta Gerediaga Elkarteak bombardaketei buruz jasotako informazio berria gehitu zuen.

2007an Egoitz Rodríguez zinegileak, Gerrikako eta Durangoko bombardaketetan girotutako 'Zerutik sua dator' dokumentala aurkeztu zuen. Iban Gorriti kazetari eta argazkilari durangarrak be gai horri buruz ikertu zuen 2010ean, "Kantatzen ez duen herria, herri hila da" lanean.

Karrika antzerki taldea bombardaketaren 75. urteurrenean, Durangon 2012.
Txelu Angoitia.

2012an, baita ere, Durangoko institutuko Karrika antzerki taldeak 'Lurra astinduz' lana aurkeztu zuen. Horrez gain, urte horretan bertan, Txelu Angoitia argazkilari eta Gerediagako kideak, Elena Solatxi artistarekin batera, Santa Susana komentura³⁶ zuzendu zituen begiak, bombardaketan hildakoen omenezko M31 arte instalazioaren bitartez.

Beste alde batetik, jarduerak ez dira Durangora mugatu, ez zelako Durango izan eskualdean bombardaketa jasan zuen herri bakarra. Elorriok eta Otxandiok be jasan zituzten bombardaketak, eta gainerako herriek ere Gerra Zibilaren ondorioak jasan zituzten.


³⁵ Iñigo Camarero izan zen alde teknikoaren arduraduna.

³⁶ Komentu horretan hamabi moja eta euren zerbitzaria hil ziren, soroan zegoen txabola batean babesteko ahaleginetan ari zirenean.

Horregatik, azken urteetan, ikerketa lanek eremu zabalagoa hartu dute, eta elkartzeaz gain, herriean helburu berberak dituzten beste lan talde batzuk sortu dira.

Gertatutako ezagutarazteko ahalegin horretan beste hainbat ikerlan bultzatu zen Gerediaga Elkartetik, jada aipatu ditugun Jon Irazabalek egindakoez gain. Azpimarragarria da 2005ean Berrizten izandako gerran eta gerraostean sakondu zuten Norberto Ibáñez Ortegaren eta José Antonio Pérez Pérezen lana. Urte horretan, Berrizko Udalarekin batera, omenaldia eskaini zitzaien Felipe Urtiagari, 1937an fusilatutako elizateko alkateari. Hiru urte geroago, 2008an, Elo-rirok Juan Izurrategi hiribilduko parrokoa omendu zuen, 1938an Dueñaseko kartzelan hildakoa, bertan jasan zituen baldintza negargarrien ondorioz.

Jon Irazabalek behin eta berriro esaten duenez, beharrezko da "ikertza, ez hazteko, zer gertatu zen jakiteko, be-launaldi berriei gertatu zena jakinarazteko eta ez dela berriro gertatu behar azpimarratzeko".



Bonbardaketaren oroimen ekitaldia Andra Mari plazan, Durangon 2012. *Txelu Angoitia*.



Bigarren garaiko lehen Merinalde Eguna, Astolan - Abadiñon 1991.

zuen, eta gauza bera egin zuen merinaldearen jai egunarekin, Merinalde Eguna izena jarriz. Hala ere, jaiak lehengo helburu berberarekin jarraitzen zuen, eskualdearen espazioa, kultura eta erakundeak errebindikatzea.

Ez zen kasualitatea izan egun hori ospatzeko data moduan urte bakoitzeko abenduaren 27a jartzea, Durangoko Merinaldeko elizateetako leialek 1875ean egindako azken Merinalde Batzarra gogoratz. Astolako Auditorio etxea izan zen garai berriko lehenengo Merinalde Egunaren eszenatokia 1991ean, eta 2002an Gerediagako foru espazioa zaharberritu arteko hurrengoak be bertan egin ziren.

Ohitura berreskuratuz, jardunaldi horretan "eskualdearen iraganarekin, orainaldiarekin edo etorkizunarekin erlazionatutako gairen bat" lantzen da, Jon Irazabalen berbetan.

ETAPA BERRIA MERINALDE EGUNARENTZAT

Barne antolakuntza indartzera eta finkatza zuzendutako epealdiaren ostean, Gerediaga Elkartea berriro ekin zion es-kualdearen izpiritua sustatzen bideratutako lanari, politikan garai berriak heldu zirenean lokalismo nabarmenagoaren alde desagertuz joan zen izpiritu hori indartzera zuzendutakoari, hain zuzen ere. Elkartetik Udalek eta aldundiek gero eta indar gehiago zutela ikusten zen, bitarteko erakundeen, Durangoko Merinaldearen³⁷ eta Mankomunitatearen, kaltetan.

Hori dela eta, unea heldu zenean, Gerediaga Elkartea Merinalde Egunaren³⁸ ospakizunari ekin zion berriro. 1979an utzi zitzaien eguna ospatzeari. Urte hartan Urkiolan egin zen, eta bertan, ingurune hura Parke Natural gisa babestea planteatu zen³⁹.

1992an, euskararekin zuen konpromisoaren ondorioz, Asociación Guerediaga de Amigos de la Merindad de Durango izenekoak Gerediaga Elkartea izena hartu

³⁷ Horrela ikusten da "Eman diezagun etorkizuna haritzari" barne dokumentuaren testuinguru azterketan

³⁸ Ikusi 49. orrialdea

³⁹ Ikusi 75. orrialdea

Horrela, 1992an, Iñaki García Caminok, 1982tik 1992ra Durangaldean egindako arkeología lanaren azterketa eskaini zuen. Ondoren, asko izan dira hainbat gairi buruz aritu direnak: Aingeru Zabala, Ernesto García Fernández, Alberto Santana, Adrián Celaya, Ángel Zurita, Tomás Urzainqui, Jose Luis Lizundia, Juan Luis Lazkurain, Natxo Aldekoa, Gurutze Arregui, eta abar luzea.

Hitzaldiezin gain, proiekzioak, 2009an Uxue Alonsok eta Edurne Eguíak emandako bezalako musika emanaldiak, eta antzerki edo dantza ikuskizunak ere izan ditugu, 2013an L'Atelier dantza eskolak eskainitakoa, besteak beste.

Jon Irazabalek adierazten duen bezala, "Merinalde Eguna, bigarren etapa honetan, arteetara eta hitzera zabalk dagoen eta Durangoko Lur honen iragana, oraindialdia eta etorkizuna ikusi ahal izateko aukera ematen duen Aula Magna gisa egituratu da".



Merinalde Eguna, Astolan – Abadiñon 1992.



Merinalde Eguna, Gerediagako baselizan, Abadiñon 2013. *Txelu Angoitia*.



Adrian Celaya Teila jasotzen, Astolan - Abadiñon 2001.



Karmele Goñi Teila jasotzen, Astolan - Abadiñon 2004.

TEILATU BERAREN AZPIAN

Eguneroko elementu batzuek, betetzen duten eginbeharra gainditzen duen esanahi sakonagoa izan ohi dute. Hori da teilaren kasua. Euskal Herrian jabetzaren ideiari lotuta dago, baina etxearekin, sustraiekin, nortasunarekin bat egitearen sinbolo be bada. Eta, gainera, sinbolo mugikorra da, nahiko erraza garraitzeko. Horregatik, "etxetik joaten zenari teila bat ematen zitzaison", ez zezan bere jatorria ahaztu, Jon Irazabalek kontatzen duenez. "Umea izan berri zuen emakumeak, be, ohiturak agintzen zuena baino lehenago premiaz etxetik irten behar baldin bazuen, teila bat eramatzen zuen buru gainean, araua ez apurtzeko", esaten du.

Horrez gain, badago teilak eta Durangoko Lurra lotzen dituen beste errefrentzia bat. Jatorrizkoa galdua dagoen arren, badago Mañariko Larrea baserrian aurkitu zen eta "en la Merindad de Durango, año 1596" testua zeraman teila zahar bat erakusten duen argazkia.

Ez da arraroa, bada, Gerediaga Elkarteak, jatorriz beste leku batzuetakoia izanda Durangaldearen alde egindako lana dela eta baten bat omentzeko modua bilatzen ari zenean, teila bat oparitzeko ideia bururatzea. Horrela, omenduak, erkidego bereko, komunitate bereko, etxe bereko, kide bilakatzen ziren.

1997an, Gerediaga Elkarteak, Merinalde Egunean, egindako lanari esker "kanpotik eterri arren" Durangaldean etxeakoak ziren pertsona horiei teila bat emateko erabakia hartu zuen. Oroiagarria egiteko agindua Arabako Olleriasen dagoen Euskal Buztingintza Museoaren sortzailea zen Blanca Gómez de Segurari eman zitzaison. 'Teila sinbolikoa, txikia, egitea pentsatu genuen, baina berak 'ezta pentsatu ere, behar den moduko teila' egingo zuela esan zuen', gogoratzen du Jon Irazabalek. Artistak bere aztarna be utzi zuen buztinaren gainean eskuz egindako grabatuan.

1997ko abenduaren 27an, "Durangaldeko lehenengo Teila", eskualdeko foruei buruzko ikerketa lanak egin zituen Gregorio Montreal historialari nafarrari eman zitzaison.

Orditik, aintzatespna bi urtez behin⁴⁰ eman da, beste abenduaren 27 batean, 1875ean, bertan egindako Merinaldeko azken Batzarra gogoratuz, Gerediagako San Bizente eta San Salbatore baselizan ospatzen den Merinalde Egunean.

Sari hori jaso dutenak hauek izan dira:

1997. Gregorio Monreal. Historialari na-far horrek Durangaldeko erakundeei buruzko ikerketa egin zuen.

1999. Pedro Mari Basañez. Eskualde honetako ondarea berreskuratzeko lan egin zuen arkitekto bilbotarra.

2001. Adrian Celaya. Abokatua izanda, Durangaldeko Legedia Zaharrari buruz ikertu duen gutxienetakoa izan da.

2004. Karmele Goñi. Bilboko Euskal Historia Museotik, eskualdeko ondare etnografikoan egin du lan.

2006. Enrique Ibañez. Etnografohorrek Durangaldeko ontzizintzari buruzko hainbat ikerlan egin ditu.

2008. Jose Ángel Barrio Loza. Durangaldeko kultur ondarearen babesaren eta hedapenaren alde egindako lanarengatik.

2010. Jose Luis Muñoyerro. Kazetari bilbotar horrek eskualdeko bizitzeko moduak eta ohiturak ezagutarazi zituen, eta ondarea balioan jarri zuen.

2012. Iñaki García Camino. Bilboko Arkeología Museoko Zuzendaria. Arkeologoa eta Durangoko Merinaldeko Erdi Aroaren ikerlaria.

2014. Juanjo Moreno Pérez de Arrilucea. Irakaslea, saskibaloi entrenatzalea eta Jesuiten Etxearen sortzailea.



Enrique Ibañez Teila jasotzen, Gerediagako baselizan - Abadiñon 2006.



Iñaki García Camino Teila jasotzen, Gerediagako baselizan - Abadiñon 2012.



Juanjo Moreno Teilarekin Gerediagako foru gunean, Abadiñon 2014.

⁴⁰ 2003an jauzia egin zen kronologia horretan, eta Teila hurrengo urtean eman zen



ZUBIAURRETARREN ITZULERAREN

"Joango al zara Madrilera pare bat hildakoren bila?"

Galdera horrela egin zen, gutxi gorabehera, eta galderaren hartzailak baietz erantzun zuen. Iñigo Zuazo Gerediagako baziideak, Espainiako hiriburura "liburu kaxa batzuen" bilak joatea edo antzeko zeozer proposatu ziotela pentsatu zuen, geroago aitortu zuen bezala. Logikoa zen hori pentsatzea, enkargua Jon Irazabalek egin ziolako eta Gerediaga Elkartearrekin erlazionatuta zegoelako.

Zubiaurretarren
gorpueen hilobiratzea,
Garain 2002. *Irazabal
artxiboa*.

Baina oraingoan ez zegoen metaforarik. Madrilen jaso beharreko Valentín Zubiaurre musikariaren, haren emazte M^a Paz Aguirrezabalen eta Valentín eta Ramón Zubiaurre margolarien gorpuzkiak ziren, familiaren nahiari erantzunez, Garaiko panteoian ehorzteko. "Carraiolaria", Itziar Irazabalekin, Gerediagako beste baziide batekin, horrectarako alokatutako furgonetan Somosierrako mendatetik gora zihola jabetu zen bere akatsaz.

Eskaria, familiaren oinordeak bizi diren Mexikotik heldu zen, eta leku aldaketa Gerediagak kudeatu zuen. La Almudena hilerran zeuden gorpuzkiak aurkitu behar izan zituzten. Eskaria aurkeztu eta onartu ostean, ehorzleek gorpuzkiak atera eta Gerediaga Elkartearren ordezkaritzari eman zizkioen. Haiek furgonetan sartu eta Durangaldera itzultzeko bidea hartu zuten. Garaira heltzean, gorpuzkiak Elizabarrin utzi ziren, ehorzeta berriaren zain.



Zubiaurretarren gorpueen hilobiratzea, Garain 2002. *Irazabal artxiboa*.



Zubiaurretan Blai! berriketaldia, Garain 2013. *Irazabal artxiboa*.

“Ekarri barik geratu direnak, azken senidearen, Reina Sofía museoaren aitzindari izan zen Madrigo Arte Moderno Museoaren lehenengo zuzendari izan zen Ricardo Gutiérrez Abascalen⁴¹, gorpuzkiak izan dira. Errepublikako intelektual handienetakoia izan zen, eta euskal artea oso ondo ezagutzen zuen”, azaltzen du Jon Irazabalek. “Mexikon dagoen familiaren adarrak kide guztiak Garaiko panteoian egotea gura du, horrekin ziklo bat ixten dela ulertzen dutelako”, gehitzen du.

2002ko omenaldian, Pablo Pedro Astarloa eta Felipe Arrese Beitia be gogoratu ziren. Oroimen ekitaldien barruan, “Cantata de Astarloa” izenekoaren emanaldiak antolatu ziren, Durangaldeko musikarien eta abesbatzen eskutik, Otxandion, Durangon eta Garain.

Anekdotez gain, Zubiaurre familiak eta bertako kideen legatu artistikoak eta intelectualak “balioan jarri” behar direla uste da Gerediaga Elkartetik. Horrela ulertzen dira 1966an eta 2001ean jasotako omenaldiak; Gerediaga Elkarteak lagundutako, Pilar de Zubiaurreren ‘Evocaciones: Artículos y Diario (1909-1958)’ liburua⁴², edo 2013an, Valentín María de Zubiaurre musikariaren heriotzaren mendeurrenena zela eta programatu ziren jarduerak.

⁴¹ Pilar Zubiaurreren serarra

⁴² 2009an argitaratutako liburua Iker González-Allendek bildu zuen, eta argitalpena Hamaika bide elkarteark bultzatu eta Nebraska Lincon Universityren eta BBK-ren laguntza jaso zuen.

5

XXI. MENDEARI BEGIRA

- 119 Aldaketa garaia
- 122 Dantzekin gora eta behera
- 124 Merinoaren ibilbidea
- 126 Zaindu, ikertu... zabaldu!
- 127 Irudi kontua
- 128 Talde lana



Testamentuaren azken klausula «Esaten ez dena bakarrik baita esan behar zena»

Izen gabe direnak, 2000
Tere Irastorza

ALDAKETA GARAIA

Gerediaga elkarteko buru moduan hamarkada bi baino gehiago eman ostean, Antton Mari Aldekoa-Otalora buru zen zuzendaritzat taldeak lekukoa beste batzuen esku uztea erabaki zuen. Gerediaga Elkartearen beharrei buruzko gogoeta sakona egin ostean, elkartea biziberritzeko berrantolaketa ezinbestekoa zela ikusi zuten. Bazkide kopuruak egonkor jarraitu zuen berrehun kideren inguruan, gehienak Durangokoak, lurretakoak eta Abadiñokoak, eta bazeuden bazkiderik ez zuten edo estatutuetan eskatzen zen ordezkaritza izateko behar adina bazkide ez zuten herriak.

Horregatik, bazkide gehiago zegoen lekuetan bilerak egitea onetsi zen, zuzendaritzat taldean jende berria sartzeko. Sei bazkideren konpromisoa lortu zen, lurretako bat, Durangoko bi eta Abadiñoko hiru. Berriztapen prozesu hartatik, Adrian Zelaia buru zuen zuzendaritzat talde berria sortu zen, 2003ko martxoan.

Dena den, talde horrek lanean hasteko aukerarik be ez zuen izan ia, hilabete batzuk geroago presidentea kargua utzi zuelako, arrazoi pertsonalak zirela eta. Inork ez zuen bere burua lekukoa hartzeko gai ikusten, eta Gerediaga Elkartea zuzendaritza talde berria aukeratu beharrean ikusi zen berriro be. ➤



46. Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa,
Axe-Atxondon 2012. *Txelu Angoitia*.



Plan Estrategikoaren aurkezpena Gerediagako Batzar Nagusian, Abadiñon 2005.



Ibarretxe
Lehendakariarekin
elkarritzeta,
Ajuriaenean 2007.

la ikusten nuen, hau da, elkartea profesionalizatu egin behar zen. Beste ezer baino lehen elkartea ezagutu behar nuen, ez nintzen elefante baten moduan sartuko. Beraz, lehenengo urtea azterketa eta behaketa urtea izan zen [...]. Plan estrategiko bat eskatu genuen¹ Gerediaga ikuspuntu metodologikotik ezagutzeko, eta horrekin asko ikasi nuen”, esaten digu.

Prozesu haren ostean Gerediaga Elkarteak gerentea kontratatu zuen lehen aldiz, Asier Atxa, eta eredu horrekin jarraitu zuen, hark enpresaz aldatu eta egungo gerentea, Aitziber Atorrasagasti, kontratatu zuenean. “Ezinbestekoa zen sailak mugatzea, baina errazagoa da hori paper gainean egitea benetan egitea baino. Baino kudeaketa hobetu dugu”. Zuzendaritza talde berriaren iritziz hobetu beharreko beste sail bat, eta Gerediaga Elkartea oraindik lantzen ari dena, komunikazioa zen. “Egia da, baita ere,

Gerediagaren historian lehen aldiz, bere programa propioa zeukan hautagai bat aurkeztu zen, Eduardo Barinaga. 2004an baziideek Nerea Mujika geografoa aukeratu zuten, elkartearren buru izan zen bigarren emakumea. “80ko hamarkadatik nintzen Gerediagako bazkide. Oso harro nengoentzat elkarteko parte izateaz, baina ez nuen funtzionamendua ezagutzen”, onartzen du Mujikak, Gerediagatik eskualdearen alde lan egiteko gogoa zeukala gehituz. Izan ere, aukeratua izan baino pixka bat lehenago defendatu zuen doretza tesi Durangaldean zentratu zen.


“Alor askotan aitzindari izan gara, inolako zalantza barik. Gogoratzen dut Barrio Loza arte katedradunak Deustun esandakoa: herri guztietan Jon Irazabal bat eta Gerediaga Elkartea bat egon izan balira, Bizkaia bere ondarearen beste historia bat izango lukeela”.

Hala ere, antolakuntzari eta administrazio kudeaketari zegokienez, “Gerediagak lehen bezala egiten zuen lan [...]. Ekonomiaren gaia ere oso serioa zen. Bazegoen hainbat denbora kobraturik zeraman jendea”, adierazten du Mujikak. “Hobekuntzak egin behar zire-

¹ Gerediaga Elkarteak 2005-2010 plan estrategikoa LKS kontsultoretza etxek egin zuen. Enpresa hori da, baita ere, egungo gogoeta prozesua zuzentzen ari dena.

Gerediagak gero eta azpi-kontratazio gehiago dituela, eta horrek arduratu egiten nau", onartzen du Mujikak.

Azken urte hauetan, Gerediaga Elkarteak bere buruari proposatutako helburu haie-tako batzuk lortu ditu. Bazkide kopurua handituz joan da, 2001eko oinarrizko soziala bikoizteria heldu arte. Elkartearen aurpegi publikoa ere aldatu egin da. Presidenteaz gain, zuzendaritzaz taldea emakumez osatuta dago, eta emakumeak dira, baita ere, elkartearen lan egiten duten pertsona gehienak. Horri dagokionez, Mujikak aldaketa "naturala" izan dela dio, ez bilatutako zeozer, baina horrek argi eta garbi erakusten duela Gerediaga bere garaiko eraldaketetara egokitzten joan dela.



46. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka, 2011. Txelu Angoitia.



Dantzan.



Txanbolitarrei omenaldia, Berrizten 2008.
Julen Uribe.

